

•eus
Jakin251

herria kultura hizkuntza uztaila-abuztua
2022

EH2040

Demografia, zaintza, hizkuntza

IMANOL ESNAOLA ARBIZA
JULE GOIKOETXEA MENTXAKA
FELIX ARRIETA FRUTOS
GARIKOITZ GOIKOETXEA ETXEBERRIA
ITSASO OLAIZOLA AZURMENDI

EGUNEN GURPILEAN
MAIALEN AKIZU BIDEGAIN
IÑIGO MARTINEZ PEÑA

Jakin^{•eus}251

herria kultura hizkuntza uztaila-abuztua
2022



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea, 29

20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

9

GAI NAGUSIA EH2040: demografia, zaintza eta hizkuntza

- 13** Euskal demografia lurraldean:
zer dio prospektibak?

Imanol Esnaola Arbiza

Euskal Herriaren geroa nolakoa izango den galdetzeak jarrera aktiboa eskatzen du, nolakoak izan nahi dugu? Iraganeko erabaki arrotzen ondorioak nozitzen ari garen honetan (hazkunde demografikoaren ondorioak, lurralde desorekak...), etorkizunean izan nahi dugunaren oinarriak jartzea dagokigu, baina ez gara bakarrik izango.

- 29** Espazioaren produkzioa: hiria, familia, utopia
Jule Goikoetxea Mentxaka

Espazioaren produkzioaren eta ongizatearen arteko lotura aztertzen da. Espazio neoliberal eta patriarkalaren sorkuntza zer den azaldu eta espazio emantzipatzaileak ekoizteko bideak, metodoak eta utopiak plazaratzen dira.

- 51** Gizarte zerbitzu sistematik zaintza sistemara:
trantsizio baterako gakoak

Felix Arrieta Frutos

Pandemia ondorengoak zaintzaren beharraren inguruan marraztutako kontsentsu zabala aztertu eta egun indarrean dagoen gizarte zerbitzuen sistematik benetako zaintza sistema batera iragateko eman beharreko pauso eta aukerak deskribatzen dira.

67 Euskara: ezagutza ez da nahikoa izango
Garikoitz Goikoetxea Etxeberria

Euskararen azken hamarkadetako bilakaera eta gaur egungo egoera oinarri hartuta, 2040rako norabidea eta eragiteko gako nagusiak aztertzen dira.

85 Demografia, lurraldea eta zaintza
hizkuntza-ekologiaren begiradatik
Itsaso Olaizola Azurmendi

Garapen eredua eta hizkuntza garapena lotuz, euskararen al-deko testuinguru fisiko eta sozialen balioan jartzen da azpimarra. Lurralde bizigarria euskaraz eta euskaratik eraikitzea zergatik den estrategikoa hausnartzen da, eta, hizkuntza-ekologiaren begiradatik, demografia, lurraldea eta zaintza aldagiekiko erronka/galdera/aukerak identifikatzen dira.

EGUNEN GURPILEAN

111 Kultura
Maialen Akizu Bidegain

117 Glocalia
Iñigo Martinez Peña

KONTRAZALA Dom Campistron

Uztailaren 7an eta 8an, *EH2040: demografia, lurraldea, zaintza, hizkuntza* Jardunaldia antolatu zuen JAKINEk Usurbilen, UEU eta Usurbilgo Udalarekin batera. Jardunaldi horretako hitzaldiak bildu dira zenbaki honetan. Saio horien bideoak Jakin.eus webgunean daude ikusgai:



Usurbilgo Udalak

Zenbaki honek Usurbilgo Udalaren laguntza jaso du

BASQUE COUNTRY 2040: DEMOGRAPHICS, CARE AND LANGUAGE

Basque demographics within the territory: what does the prospective say?

Imanol Esnaola Arbiza, director of Gaindegia between 2004 and 2021, conducts demographic prospective on the Basque Country of 2040. The author argues that the question as to whether the future of the Basque Country demands an active attitude about what we want to be –if it's true we are currently bearing the consequences of other people's decisions from the past, we need to lay down the foundations for what we want to be in the future. [Imanol Esnaola Arbiza](#)

The production of space: city, family, utopia

Jule Goikoetxea Mentxaka, teacher of Political Science, analyses the relationship between the production of space and wellbeing. The author explains what the creation of a neoliberal and patriarchal space involves and sets out the production channels, methods and utopias available for the production of emancipatory spaces. [Jule Goikoetxea Mentxaka](#)

From the social service system to the care system: keys to a transition

Felix Arrieta Frutos, teacher of Sociology, analyses the broad consensus that has evolved following the pandemic about the need for care, and describes the steps to be taken and the possibilities existing for moving on from the current social service system to a genuine care system. [Felix Arrieta Frutos](#)

Basque language: knowledge is not enough

Garikoitz Goikoetxea Etxeberria, Basque language technician, explains the keys to evolution of the language up to 2040 based on an analysis of the evolution of the Basque language in recent decades. [Garikoitz Goikoetxea Etxeberria](#)

Demographics, territory and care from the linguistic ecology standpoint

Itsaso Olaizola Azurmendi, specialist in Environmental Law and Linguistic Ecology, highlights the value of physical and social contexts in favour of the Basque language using the link between the development model and evolution of the language. The author reflects on the strategic nature of the building of a liveable territory in and through the Basque language, and identifies the issues, possibilities and challenges facing demographics, territory and care from the linguistic ecology standpoint. [Itsaso Olaizola Azurmendi](#)

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture and globalization matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain and Iñigo Martinez Peña. [Various authors](#)

Ziurgabetasun garaiak bizi ditugu. Esan nahi dugu agian beste garai batzuetan ere halaxe izan dela –beste lurralde eta pertsona batzuen bizitza hori dela oraintxe bertan eta joandako aspaldian–, baina egun etorkizunak ekarriko diguna aurrerabidea ez dela izango badakigula, nahiz eta zail zaigun dakigula onartzea. Aurrerabide bakarra desazkundera izan zitekeen galdetzen genuen iazko Jakin Jardunaldian, eta aurtengoan, demografiaren argitan, lurralde oreka, zaintzaren erronka eta euskararen etorkizuna aztertu nahi izan ditugu.

Ziurgabetasun garaiak bizi ditugu eta ekaitz perfektua inguratzen ari delako susmoa dago han-hemen. Gure bizieraren joera orokorrak honako hauek direla diote adituek: zahartze prozesu azkarra; migrazio mugimenduen ugaritzea, eta horrek jendearen eta hizkuntzen joan-etorria handituko du; belaunaldien arteko diferentziak, besteak beste, teknologiek eraginda; genero arteko *berdintasun* prozesua: zortzi urte barru, lan munduan emakume deituak %40 izango ei dira; bizialdi luzeetarako prestatu dira hiriak, 60 urtetik gorakoena izango da eta talde nagusia; hirien nagusitasuna eta landaguneen hustea etorri da, metropolizazio prozesu gogorra; indibidualismoaren, kontsumismoaren, harreman ez-egonkorren kultura areagotuko da eta horren ondorioz bakardadea auzi garrantzitsua izango da; teknologia berrien konektagarritasunak eta konbergentziak areagotu egingo omen du *Gauzen Internet*a deitzen denaren potentziala, eta aplikazio berritzaile ugari agertuko dira geure bizimoduak eta harremanak aldatuko dituztenak; adimen artifiziala garatuz joango da eta makinek ikasteko gaitasuna areagotu ahala guk egiten ditugun gauzak egingo dituzte eta erabakiak hartzen ikasiko dute eta itzultzaile neuronala eguneroko ogia izango da eta horrek hizkuntzei eragingo die, hiztunoi, alegia; aldagetak gertatuko dira botere ekonomikoan –Europatik eta Amerikatik Asiara eta Afrikara aldatuko da eta horiek izango dira haziko diren ekonomiak–, eta, adibidez, Mendebaldean hazkunde ekonomikoaren beherakada espero da hurrengo urteetan; negozio eredu berriak datoz, datuak diru-iturri bihurtuko dira gero eta gehiago eta horrekin zerbitzu –eta behar– berriak sortuko

dira; erregai fosilen amaiera eta energia iturri berrien ordezkatzeko prozesu zalantzarria ere berehalaxe ezagutuko ditugu; aldaketak gertatuko dira lan merkatuan eta litekeena da epe luzerako egiturazko langabezia sortzea eta 2030a baino lehen automatizazioak Europako langileen %40-60 ordezteak; gobernu-ereduak bilakatu egingo dira: dinamikoagoak eta malguagoak izango ei dira; mundu mailako interdependentzia gero eta handiagoa da jada, ia esparru guztietan; eta, azkenik, populismoen gorakada biziko dugu.

Horiek adituen prospekzioak. Beteko dira? Batzuk bai, besteak auskalo. Egia da prospekzioa bera, sarritan, marrazten duen etorkizunaren –sarri distopikoa– legitimatzaile eta bultzatzaile bihurtzen dela.

Joera horiek gurean ere izango dira, badira jada asko. Eta zer egingo dugu? Dagoenari eusten saiatu, *statu quo*-a ahalik eta gehien berreginez? Edo iragan ustez hobe baten nostalgiari helduta, erretrotopietan babestu? Ala gizarte berri bat sortu? Aldamioak aldatu? Gizarte bizigarriago bat lortzen saiatu? Alegia, distopiatik eta erretrotopiatik utopiara bidea nola egingo dugun da galderetako bat.

Euskal Herria 2040 zer-nolakoa izango den edo izatea nahiko genukeen aztertzen hastea da zenbaki honen helburua, 18 urte barruko Euskal Herrian jartzea gogoan, gaur jaioko litzatekeen norbaitek adin nagusigoa lortuko lukeen urtean. 18 urte, agian gehiegi ere bada; izan ere, prospektibak alda ditzake pandemia batek, gerra batek, klima muturreko batek, erregai gutxiagoko mundu batek... Agian, iraultza batek, iraultza on batek edo askok, nork daki.

Zahartzeaz, migrazio mugimenduez, lurralde orekaz, ongizate politiken eta zaintza ereduaren demokratizazioaz eta hizkuntzen egoera eta euskararen biziberritzeaz ari dira hainbat aditu. Imanol Esnaolak prospektiba ariketa orokor bat dakar beti ere desiratzen dugun gizarte baten jopuntua galdu gabe, Jule Goikoetxeak espazio fisiko eta birtual emantzipatzaileen beharra aldarrikatzen du, Felix Arrietak egungo zaintza sistematik sistema integral eta integratu baterako bidea marrazten digu, eta Garikoitz Goikoetxeak eta Itsaso Olaizolak euskararen eta euskal hiztunon geroa argitzeak gakoak ematen dituzte. Amaiera Dom Campistronek ematen dio, ohi bezala, genero disidentzia eta harremanak jada aipatu ere egingo ez diren 2040ko Euskal Herri bat dantzan jarritz.

EH2040: DEMOGRAFIA, ZAINZA ETA HIZKUNTZA

- 13** Euskal demografia lurraldean:
zer dio prospektibak?
Imanol Esnaola Arbiza
- 29** Espazioaren produkzioa:
hiria, familia, utopia
Jule Goikoetxea Mentxaka
- 51** Gizarte zerbitzu sistematik zaintza
sistemara: trantsizio baterako gakoak
Felix Arrieta Frutos
- 67** Euskara: ezagutza ez da nahikoa
izango
Garikoitz Goikoetxea Etxeberria
- 85** Demografia, lurraldea eta zaintza
hizkuntza-ekologiaren begiradatik
Itsaso Olaizola Azurmendi

Euskal demografia lurraldean: zer dio prospektibak?

Imanol Esnaola Arbiza

Gaindegiako koordinatzailea 2004-2021 artean

Prospektiba datorkeenaren aurrean jarrera aktiboa hartzea da. Etorkizunari forma emateko diziplina dela esan daiteke. Euskal Herria gero ere herri izan-go bada, etorkizuna edukiz beteko duten prospektoreak behar ditu. Egungo egoera iraganean egindakoek ekarri dute, eta, prospekzio lan emankorrak falta izan ez badira ere, inposizioz kanpoko botereguneetatik hartutako erabakiek egungo Euskal Herriaren demografia, soziologia, ekonomia eta geografia baldintzatzen jarraitzen dute.

Joera horien argitan, egungo biztanleria inoizko jendetsue-na bada ere, inoizko zahartuena eta lurraldeari dagokionez oso kontzentratua da. Etorkizunean pentsatzekoa da biz-tanleriak hazten jarraituko duela migrazioari esker, baina hazkunde horrek lurralde patroi argia izango duela, metro-polizazio handikoa. Ingurumari horretan, ororen ongizatea, inguruaren zaintza eta euskaltasunaren iraupena bermatuko duten prospekzio ariketa eraginkorrak diseinatu eta arrakas-taz plantan ezartzeko lanak egin beharko dira.

Lerro hauen buruko izenburuak Jakinek uztaillean Usurbilen antolatutako Jardunaldiaren hasierako hitzaldiaren muina izan nahi zuen. Hitzaldia eman zuena, ordea, ez da demogra-foa, ezta prospektorea ere; gehienez, Gaindegiako koordina-tzaile izan den bitartean euskal geografia sozioekonomikoaren

auzian ikusle pribilegiatua izan da. Artikulu honetara ekarritako edukiak, ordea, Gaindegiaaren inguruan bildutako lankide eta laguntzaileen ahaleginari zor zaizkio.

Prospektiba egiteko moduaz

Prospektiba estrategikoa hitzetik hortzera dabilen garaiotan, «zer dio prospektibak?» galdetzen badiogu geure buruari, berehala dator erantzuna: zer diogun 'geuk', ezta? Alegia, prospektiba estrategikoak etorkizun desiratura iristeko jakin beharrekoak eta egitekoak uztartzen baditu, lehen mailako auzia da etorkizun hori interesatuak berak bere lehentasunen arabera irudikatzea. Hari horri tiraka, beraz, esan dezakegu, prospektibak zer dioen baino, guk zein prospektiba eraikiko dugun zehaztea dagokigula.

Ariketa horretan, «norentzat?» eta «zer?» galderak berebizikoak dira. Euskal Herriaz ari bagara, ez da zalantzarik nor hori euskal herritar guztiak direla, bizilekua, sorterrria edo antolamendu instituzionalaz dituzten preferentziak edozein direla ere.

Jardunaldian Marta Luxan demografoak emandako definizioa hartuz, demografiak komunitateko kideengan eragiten duten dimentsio guztiak aintzat hartzea eskatzen du. Alta, euskal demografiari begirako prospekzio ariketak errotik unibertsalista izan behar du, denok eta dena aintzat hartuz osatutakoa. Denon ongizatea, bistan da.

Honaino etorrita, beraz, «zer?» galderari erantzuteko moduan gaude. Ariketa prospektiboak, hala, euskal lurraldean bizi diren pertsona guztientzat ongizatea ekarriko lukeen agendaz jardutea eskatzen du, jakinda, mundu globalizatuan bizi garen aldetik, geuk ere badugula ardura mundu horren geroan baikorki eragiteko.

Zein da, ordea, Euskal Herria aintzat hartzen dugunon ongizaterako agenda prospektiboa? Zer dugu proposatzeko gure herriari denon arteko bizikidetzaren eremua izan dadin?

Euskal Herriaren ukazioa egunerokoa da. Ukatzaileak mendeak daramatza «hemen» esatean Paris edo Algeciras

auzokoak direla sinetsarazi nahian. Agerikoa da hori diotenek ere ez dutela sinesten. Ez da aspaldikoa Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuan lehendakaria izan zenak «hemen» horretan Errioxa, Gaztela edo Aragoi batzeko egin proposamena. Bide berean pauso bat eman du Frantziako Errepublikak Akitania Berria izenekoan Uztaritze eta Poitiers «hemen» administratibo berean uztartuz. Herri Elkargoaren lurralde mugak ezartzerakoan hautetsiek hartu erabakiak ezin argiago utzi zuen zein zen «hemen» horren muga.

Gaindegiaren sorrerako urteetan, Euskal Herria garapen jasangarriko unitatea zela genioen, besteak beste, euskal hiztun herriaren territorioa izateaz gain, bete-betean konplizten zituelako Europako Batasunak 'garapen' iraunkorreko lurralde orok bete behar lituzkeen ezaugarriak.¹ Bistan da euroeskualde hori Poitiers-Tutera-Enkarterri hirukian urtu nahi izan dutela. Erregai fosilen agortzea ikusten dugun honetan, ordea, «hemen» hori euskal bizikidetzaren eremutik gero eta hurbilago ageri zaigu energia sorkuntza eta erabilerari dagokionez. Bada zerbait.

Prospektiba diogunean, ordea, prospektiba estrategikoaz dihardugula azpimarratu beharko genuke, Juanjo Gabiñaren ekarpen intelektual eta profesionala aintzat hartuz.

Prospektiba estrategikoa nahi genukeen horretara ahalik eta gehien hurbiltzeko eman ditzakegun urrats eraginkorrenen diseinua dela esan daiteke. Ekinbidea marraztea eta bidea eginez mugarri berrien atzetik abiatzea, betiere asmoz, jakitez eta eraginkortasunez. Gabiñak berak hitzetik hortzera darabil Luzio Anneo Senekaren aipua, zeinak dioen ez dagoela aldeko haizerik nora doan ez dakienarentzat.

Prospektiba
estrategikoak etorkizun
desiratura iristeko
jakin beharrekoak eta
egitekoak uztartzen
baditu, lehen mailako
auzia da etorkizun hori
interesatuak berak bere
lehentasunen arabera
irudikatzea

Euskal prospektore estrategikoen ekarriaz

Hitz lauz esanda, etorkizuna prestatu beharra dago, egunero prestatu ere, geuri interesatzen zaiguna gertagarri egiteraino. Gurean herri xedea ezin unibertsalagoa da, gure bizikidetzak eta gure ongizatea hemen erabaki-eraiki. Euskal Herriak zailtasun jakina du, ordea, ariketa hori egiteko; herri xedez jarduteko egitura formal mugatuak ditu, ehun administratiboak eta soziala atomizazio hutsa da. Eta atomizazio horretan urtzen da gehienon ahalegina.

Beraz, gauzagarria al da bizi ditugun gabeziekin ingurumari honetan Euskal Herria aintzat hartzen duen prospektiba estrategikoa? Galderari erantzuna topatu baino bizkorrago datozkigu Txillardegi eta Koldo Mitxelenaren irudiak eta euskara batuaren definizio prozesua. Hizkuntza eredu normatiboaren gaineko adostasuna ez zatekeen Arantzazun abiatuko, aurretik jomuga hori irudikatu izan ez balute, eta adostasunak eraiki, nahiz eta frankismo betean murgildurik bizi.

Berebiziko garrantzia du bizi dugun une historiko eta politiko honetan Euskal Herria aintzat hartzen dugunok prospektiba estrategikoari lotzeak. Ezintasuna aitzakia hutsa baino ez da. Matalazek lurrraren jabegoari eutsi beharra aldarrikatu zuenean oker zebilela esan dezakegu elikadura krisia ate joka dugunean? Gaztelaren inbasioari aurre eginez burujabetza defendatu zutenak oker ote zebiltzan? Eta euskal sufragistak ere erratuta, erabakitzea zegokiela esatean? Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresuan euskal unibertsitatearen beharra lehen lerrora ekarri zutenek xede prospektibo okerra adierazi ote zuten? Agirre lehendakariak gerra hotsen erdian eskubide indibidual eta kolektiboaren defentsa lehen egitekoen artean jarri zuenean bisio okerra izan ote zuen? Oker ote zebiltzan Elbira Zipitria eta beste hamaika eragile eredu pedagogiko propioen bila abiatzean, oker garai bereko kooperatibistak frankismoarekin lerratutako elite ekonomikoaren ondoan burujabetasunez lanari ekin ziotenean? Burutik eginda zeuden euskal prentsa eta kazetaritza sustatu nahi izan zutenak,

inozoak izan al ziren Euskal Laborarien Batasuna sustatu zutenak Ipar Euskal Herriak bere euskaltasunari eusteko beste nekazaritza eredu bat behar zela uste zutelako?

Zorionez, gure historia Euskal Herria xede izan duten prospektore estrategikoz beteta dugu. Orain, ordea, gure etorkizuna prospekzio herrigile berriekin jantziko dutenak behar ditugu; des-herria ereiten dutenak sobera ditugu.

Iraganeko prospekzio ariketen ondorioez

Gure herriaren lurraldeari begira prospektiba estrategikoa gehiagok ere egiten dute. Lehen eta orain ere bai. 1936ko estatatu kolpe frankistaren ondoko hamarkadetan zenbait sektore sozioekonomiko eta politikotan argi ikus dezakegu. Orduko joerak aztertuz jabetuko gara hortxe dagoela gure analisisetan agertzen diren aldagai askoren jatorria, izan demografian, egitura ekonomikoan edo geografia sozioekonomikoan, besteak beste.

Euskal Herriak bi gatazka handi nozitu izan zituen 1936 eta 1945 artean, batak zein besteak egungo egitura demografikoa baldintzatzen dute. Aurretik bizi izandako Gerra Handiaren ajeak (1914-1918) ere aintzat hartzekoak dira Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan. Irakurlea zirikatzen nahian, esan daiteke Francisco Franco diktadoreak eta De Gaulle generalak jarraitzen dutela gure lurraldearen nolakoa baldintzatzen bere garaian hartutako erabakiekin.

Ariketa historikoan luzatzeko asmorik gabe, aski da elementu gutxi batzuk azpimarratzea, hala nola Hegoaldean elite ekonomiko minoritario batek garatu zuen egitismo industrialak. Industria hura, maila teknologiko apaleko metalgintzan oinarritzen zena, energia kontsumoan intentsiboa zen, formaziorik gabeko enpleguan ere intentsiboa eta maskulinizatua. Horrek, halaber, hamaika ondorio izan zituen lurraldearen egiturari, biztanleriaren hazkundera eta bere geografian, bai eta beste hamaika kontutan ere. Hirurogeiko hamarkadan bizi izandako hazkunde demografikoak atzetik

zuen diseinu politikoan ez zuen parte hartu euskal *intelligentsia*-k, ordurako aski jazarria.

Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoak ere ez zuten aro go-
zoagorik izan. Ipar Euskal Herriari aisialdi lurralde izatearen
eginkizuna ezarri zitzaion, edo, nahiago bada, industriarik

ez zegokiola erabaki, diseinu
ekonomiko zentralizatuan.
Iparraldeak inoiz izandako
industria ahultzen edo urrun-
tzen joan da. Jarduera indus-
trial horren galerak, ordea,
egitura ekonomiko ezaguna
ekarri du, hamaika belaunal-
di gazteren migrazioa eragin
duena.

Azken urteetan,
metropolizazio prozesu
argia bizi du Euskal
Herriak: horren adibide
da 2016-2020 epealdian
hiriguneek eta bitarteko
hiriguneek izan duten
biztanle kopuruaren
gorakada

Agerikoa da urte horietan
hartutako erabaki strategi-
koen ondorioak handiegia-
k zaizkigula oraindik ere etor-


kizunean eragin asmoz abiatzen garenean. Iraganaren zama.
Garai historiko haren ajeak JAKINEk demografiaren bilakae-
raz osatutako dosierrean azaldu zituen hainbat adituk (77-78.
zenbakia, 1993). Aipagarria da Iñigo Garaialderen artikulua
garai bateko diseinu ekonomikoaren ondorio kaltegarriak
azalduz. Garaialderekin batera, Iñaki Larrañagak 1960-1981
bitarteko urteetan bizi izandako hazkunde demografiko «des-
kontrolatua» nabarmentzen du. Ramon Saizarbitoriak haz-
kunde handi horren ondotik zetorren zahartzearen inguruko
ikuspegi ezkorra kritikatzeko zuen, Marta Luxanek aurtengo
Jardunaldian egin zuen moduan. Jose Mari Agirrek 1960
ondoko urteetan izandako hazkunde industrialaren gabeziak
eta horren ondorioak aipatzen ditu. Egile horiek eta dosierra
osatzen duten gainerakoek iraganaren ajeak azpimarratzen
dituzte, bai eta horretan eragiteko Euskal Herri osoko datu
homologatuak ez izatearen problema. Baina hori beste gai
bat da.

Egungo Euskal Herriaren ezaugarri soziodemografikoak

Biztanleria hazkundera ez da eten azken bi hamarkadetan, baina lurralde dinamikak aldatu dira


Euskal Herriak %10eko biztanleria hazkundera izan du azken bi hamarkadetan. Bilakaera horrek, ordea, hainbat etapa desberdin izan ditu: 2000-2012 epealdiko biztanleria gorakada konstantea, lehenik; 2012-2016 epealdiko biztanleria egonkortzea, jarraian; eta azken lau urteetako biztanleria hazkunde berria, azkenik.

1. grafikoa. Biztanleria hazkunderaren bilakaera




2008ko krisi ekonomikoa inflexio puntu garrantzitsua izan zen biztanleria hazkunderaren lurralde dinamiketan. Izan ere, krisiaren eragina nabaritu aurreko urteetan (2000-2012), landa eremuan antzeman zen biztanleria hazkunde handiena (%14,5). Azken urteetan, ordea, metropolizazio prozesu argia bizi du Euskal Herriak: horren adibide da 2016-2020 epealdian hiriguneek eta bitarteko hiriguneek izan duten biztanle kopuruaren gorakada. Horiek horrela, Euskal Herriak gaur egun 3.196.594 biztanle ditu, eta horietatik %82,6 hirigunean eta bitarteko hiriguneetan bizi dira. Halaber, hiriguneek gainerako eskualdeetako herritarrak mobilizatzen dituzte, harik era hiriguneen eragin eremu gotorrak egituratzeraino.

2. grafikoa. Udalerrien tipologia (2020)




3. grafikoa. Hirien eremu funtzionala (2020)



Nolanahi ere, biztanleria hazkunde positiboa ez da homogeneoa izan Euskal Herriko lurralde guztian. Hiriguneak eta horien inguruko udalerriak biltzen dituzten eskualdeek (Arabako Lautada, Bilbo Handia, Plentzia-Mungia, Euskal Kostaldea-Aturri, Iruñerria...) %30etik gorako biztanleria hazkunde tasak izan dituzte azken bi hamarkadetan. Landa eremuko udalerrietako biztanleriak ere, oro har, gora egin du, nahiz eta bertan aurkitzen diren biztanleria galera handiena izan duten eskualdeak (Enkartzioak, Zuberoa, Nafarroako Pirinioak, Zangozaldea, Ega, Larraun-Leitzarar...).

4. grafikoa. Biztanleria hazkundearen bilakaeraren mapa
(Euskal Herria, 2000-2020)




Biztanleriaren adin egituraren zahartzea orokorra izan da

Euskal Herriko eta aztertu diren eremu desberdinetako biztanleria piramideek biztanleriaren adin egituraren zahartzea orokortu bat erakusten dute. Duela hogeitazortez 20-44 urte bitarteko belaunaldia zen biztanleria egituraren presentzia

handiena zuena; gaur egun, belaunaldi hura nagusitzen da, baina 40-64 urteko adin tartean.

5. grafikoa. Biztanleriaren piramidearen bilakaera



65 urtetik gorako biztanleria tasak ere etengabeko hazkundea izan du: 2000 urtean %17,7 izatetik 2020 urtean %22,1 izatera igaro da. Joera berdina izan dute hiriguneek, bitarteko hiriguneek zein arnasmuneek. Landa eremuak, ordea, berezitasun bat du: 2000-2012ko biztanleria hazkundearekin batera, bere zahartze tasak behera egin du. Azken urteetako joera gainerako eremuen berdina da.

Azpimarratu behar da biztanleriaren biziberritze datuak positiboak izan direla 2000-2013 epealdian: horixe erakusten dute 15 urtetik beherako biztanleria tasaren zein jaioberrien tasaren igoerak. Gainera, arnasmuneak eta landa eremua izan dira adierazle horien balio handienak zituzten eremuak. Alabaina, urte horretatik aurrera bi adierazleen joera beherakorra da, 15 urtetik beherako zein jaioberrien kopuru absolutua bezalaxe. Ugalkortasun tasaren beherakada eta bizi itxaropenaren igoera dira horren erantzule nagusiak.


Bide horretan, esan beharra dago biztanleriaren zahartzeak ere udalerrri eta eskualde mailako desoreka argiak dituela.

Korrelazio espaziala argia da: biztanleria galera handiena izan duten eremuek dituzte gaur egungo zahartze tasarik handienak eta biztanleriaren biziberritzeari lotutako adierazleen baliorik apalenak.

Estatutik kanpo jaiotako biztanleria eremu urbanoetan kontzentratzen da

Azken bi hamarkadetako biztanleria hazkundearen arrazoi nagusia migrazio saldo positiboa izan da. 2000 urtean Euskal Herrian estatutik kanpo jaiotako 67.692 pertsona zeuden (%2,3); 2020 urtean kopurua 372.480 herritarrera igo da (%11,7).

6. grafikoa. Estatutik kanpo jaiotako biztanleria tasaren bilakaera




Hiriguneak eta bitarteko hiriguneak² dira, kopuru absolutu zein erlatiboetan, estatutik kanpo jaiotako pertsona gehienak biltzen dituzten eremuak. Aldiz, landa eremuak eta arnasguneek (azken horiek bereziki) izan dute migrazioaren eragin urriena, baina inguruko udalerrietatik biztanle ugari hartu dute.

Hala eta guztiz ere, hainbat eskualderen egitura ekonomikoa dela medio, landa eremuko hainbat eremutan estatutik

kanpo jaiotako biztanleria tasak handiak dira. Horren adibide dira Arabako Errioxa, Lea-Artibai, Lizarraldeko Erribera, Nafarroako Goi Erribera edota Nafarroako Erribera eskualdeak.

7. grafikoa. Estatutik kanpo jaiotako biztanleria tasaren diferentziaren mapa (2000-2020)



1. taula. Biztanleria adin tartearen arabera (2020)

<i>Adina</i>	<i>Hirigunea</i>	<i>Bitarteko hirigunea</i>	<i>Landa eremua</i>	<i>Arnasgunea</i>	<i>Euskal Herria</i>
< 15 urte	234.507	128.536	86.697	57.078	449.740
15-29 urte	256.109	122.992	75.777	52.321	454.878
30-44 urte	353.916	172.891	107.923	73.096	634.730
45-64 urte	522.859	260.750	165.811	110.545	949.420
65-79 urte	272.963	129.584	80.553	55.274	483.100
> =80 urte	128.704	57.259	38.715	24.462	224.678
Orotara	1.769.062	872.013	555.519	372.776	3.196.594


Iturria: INE eta INSEE.

2. taula. Biztanleria jaioterriaren arabera (2020)

<i>Eremua</i>	<i>Estatutik kanpo jaiotakoak</i>	<i>Estatu barruan jaiotakoak</i>	<i>Orotara</i>
Hirigunea	222.892	1.546.170	1.769.062
Bitarteko hirigunea	97.408	774.605	872.013
Landa eremua	52.180	503.339	555.519
Arnasgunea	33.843	338.933	372.776
<i>Euskal Herria</i>	<i>372.480</i>	<i>2.824.114</i>	<i>3.196.594</i>

Iturria: INE eta INSEE.

8. grafikoa. Estatutik kanpo jaiotako biztanleria tasaren mapa (2020)




Biztanleriaren hazkundeak eta zahartze tasak handitzen jarraituko dute hurrengo urteetan

Biztanleria prospektibak aurreikusten duenaren arabera, hurrengo 15 urteetan Euskal Herriko biztanleriak hazten jarraituko du: 2035 urtean biztanle kopurua 3.360.000 ingurura iritsiko da, gaur egun baino %5 gehiago. Hazkunde horren oinarria migrazio saldo positiboa izango da. Egia esan, azken

urteetako migrazio dinamikak mantenduko ez balira eta prospektiban eragingo ez balute, Euskal Herriak biztanleria galduko luke. Izan ere, etorkizunean egongo diren jaiotza kopuruak heriotza kopuruak baino gutxiago izango dira.

9. grafikoa. Biztanleria hazkundearen prospektiba




Biztanleria kopuruak gora egin ahala, bere adin egitura zahartzen joango da bi arrazoi nagusi direla-eta: gero eta bizi itxaropen handiagoa, batetik, eta jaiotza kopuruen beherakada, bestetik. Horiek horrela, 2035 urterako zahartze tasa %27raino igotzea eta 15 urtetik beherako biztanleriaren tasa %11,4raino jaistea espero da. Bestalde, azken urteetako jaioberrien kopurua migrazio saldo positiboaren baitan bakarrik mantenduko da.

3. taula. Biztanleria prospektibaren datuak adin tartearen arabera


Adina	2020	2025	2030	2035
< 15 urte	449.740	421.966	390.639	384.428
15-29 urte	454.888	512.569	560.212	562.283
29-44 urte	634.734	563.767	545.597	583.249
45-64 urte	949.432	990.623	974.065	920.515
65-79 urte	483.106	534.703	576.891	620.788
> =80 urte	224.692	236.312	264.135	287.122
Orotara	3.196.592	3.259.940	3.311.539	3.358.385

Iturria: Ekoizpen propioa, INE eta INSEEtik abiatuz.


10. grafikoa. 15 urtetik beherako biztanleria tasaren prospektiba




11. grafikoa. 65 urtetik gorako biztanleria tasaren prospektiba



12. grafikoa. 80 urtetik gorako biztanleria tasaren prospektiba



13. grafikoa. Jaioberrien tasaren prospektiba



Euskal Herria erdigunean duten aipamen horiek guztiak, ordea, aldaketa bizian doan mundu honen baitan bizi ditugun beste hamaika gertaerari lotu behar dizkiegu, hala nola aldaketa klimatikoa eta horrek eragiten dituen krisi mota guztiak (migrazioak, muturreko klimatologia, elikagai krisia), krisi energetikoa eta baliabide natural askoren agortzea eta abar.

Gauzak horrela, geure buruari galdetu beharko genioke zein den geure prospektiba estrategikoa, eta prospektiba hori gauzagarri egiteko non ditugun elementu galgatzailleak eta non eragileak, zein diren aldaketak eragiteko nahikoa indar dutenak eta zein lagungarri gerta daitezkeenak. 🌱

Oharrak

1. www.gaindegia.eus/eu/begi01
2. DEGURBA edo urbanizazio maila neurtzeko Europako indizearen araberako lurralde sailkapenean oinarritua. Zehaztasun gehiago hemen: <https://ec.europa.eu/eurostat/web/degree-of-urbanisation/background> (ikus 2. grafikoa).

Espazioaren produkzioa: hiria, familia, utopia

Jule Goikoetxea Mentxaka

*UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko
irakaslea*

Espazio/lurralde neoliberalaren produkzioa: hiri globala

Hiri funtzional eta industrialaren ereduak leundu nahi zituzten eskola razionalisten pisuaren ondorioz, 1931n hirigintzako manifestu bat egin zen: Atenasko Gutuna. Jasotzen zuen printzipioetako bat hiriaren zonifikazioa zen; gizarte modernoaren erabilera eta beharren arabera, lau funtzio egituratzaile zituen: bizitzea, zirkulazioa, lan egitea eta birsortzea. Gutunak erabileren eta funtzioen arabera espezializazioa defendatzen zuen, hiri ordenatuagoa, eraginkorragoa eta harmonikoagoa unean uneko produkzio-sistemaren, eta, beraz, produkzio industrialaren eta produkzio heterofamiliarren arkitekturaren beharren mesedetan.

Zonifikazioaren printzipioak espazioa generoaren eta genero arrazaren arabera banatzea ekarri zuen, non lan ordainduaren espazioa maskulinitatearen propietatea zutenentzat izango zen diseinatu, eta, bizilekua, aldiz, lan ez-ordainduaren espazioa izango zen, hots, maskulinitatearen propietatea ez zutenentzat. Horrek fragmentazio ikaragarria ekarriko du, unitate unifuntzionalen aniztasuna eta dispersioa, erritmo

eta aktibitate ezberdinekin, hiritar, langile, subjektu forma eta giro guztiz ezberdinduekin. 70eko eta 80ko hamarkadetan, hiri liberaletik hiri neoliberalera igarotzen hasiko gara. Industria murriztuko da, zerbitzuak handitu, emakumeak lan-merkatuan sartzen hasiko dira masiboki, eta, aldi berean, espazio publikoak desagertzen hasiko dira. Hiria, hiritar liberal produktiboaren espazioa izatetik, edo produkzioaren eta esplotazioaren tokia izatetik, metaketa eta desjabetzearen espazioa izatera igaroko da.

Espazio eta lurralde postfordista

Ekonomia postindustrialerako bidean, zerbitzuetan eta informazioan oinarritutako espazioak produzitzen hasiko dira. Zerbitzu berriak eskaintzen dituzten frankiziak, hala nola kafetegiak, biderkatuko dira eta ohiko liburu eta arropa dendak itxi egingo dituzte, bai liburu denda txiki eta independenteak, bai H&M bezalako kateak; Internet bidezko salmentak handitzen diren heinean, gure paisaia urbanistiko osoa aldatzen hasiko da. Duela 60 urte, industria txikiak zeuden tokietan tailerrak jartzen hasi ziren, gerora janari dendak, ostean arropa dendak eta orain kafetegiak. Fordismo industrialetik postfordismo digitalera igarotzeko, derrigorrean ekoitzi behar da espazio berri bat, Lefebvrek zioen moduan; beraz, gaur egungo hiriek, espazioaren produkzio zehatz baten bidez, zerbitzutan eta finantzatan oinarritutako produkzio erregimena sortzen dute, hau da, hiriek espazio postfordista eta global hori mamitzen dute. Zerbitzuetako lanbide espezializatuek beren jabetza pribatua balitz bezala hartzen dute hiriko espazio eten bat, espazio publikoak neutralizatuz. Aro neoliberaleranzko trantsizioa pribatizazioaren arkitektura politiko baten bidez egiten da, baina garrantzitsua da ulertzea *pribatizazio*-prozesu neoliberalak hiri pribatuak ekoitzi behar dituztela; espazioaren pribatizazio horrek bi ezaugarri ditu:

- *Baga*, espazio publikoaren pribatizazioak gainontzeko guztia pribatizatzeke baldintzak jartzen ditu, esan nahi

baitu produkzio ekonomikoaren eta kulturalaren dimentsio guztiak pribatizatzen direla, hala nola ezagutza, produkzio zientifikoa, kulturala eta herrikoia, kaleak, plazak, eraikinak, bertan lan egiten dutenen eskubideak, kontratazioak, zerbitzu publikoa (adibidez, garraioa, anbulatorioak, erresidentziak, eguneko zentroak, jaiak, autoritate publikoa, komuna edo herrikoia eta, beraz, ongizatea lortzeko bide publiko, herritar edo amankomunak).

- *Biga*, pribatizazio horrek eskala berri bat sortzen du, eskala globala; horregatik esaten zaie Bilbo bezalako hiriei 'hiri globalak'. Zerbitzuetan eta finantzetan/finantzarizazioan oinarritutako espazio pribatu globalak sortzen dituzte hiri globalek. Hiri globala, Sassenek dioen moduan, 80ko hamarkadan hedatzen hasiko den fenomeno berria da. Produkzio globalerako espazio berri horren ezaugarria da bitartekotzaz osaturiko espazioa dela: hiri globala bitartekotzaz taxututako produkzio mota bat da. Bitartekotza horiek finantzariak, legelariak, kontableak, kreditu agentziek, funts ezberdinek (putre funtsak barne), kontsultoreak, aholkularitzek, aseguruak osatzen dituzte, horiek guztiek ezaugarritzen baitute hiri globala eta, beraz, kapitalismo global finantzarioa eskala horretan.

Har dezagun adibidetzat frankizia bat, kafetegi bat, zehazki: Bilboko kaleetan ikusten ditugun geroz eta kafetegi gehiago frankiziak dira, nazioarteko korporazio kateen parte. Denda horietan dauden langileak kafea saldu besterik ez dute egiten, gainontzeko guztia denda horien egoitzek egiten baitute: kontabilitatea, arazo eta zertifikatu legalak, input edo lehengai eta materialen erosketa. Orain dela hogeitau urte, aldiz, denda, taberna edo kafetegi horiek ezagutza espazio ziren; ezagutza mota bat produzitzen zen negozioaren inguruan, eta erabakimen espazioa zen. Espazio global horrek alienazioa hedatu eta zorrotzen du, esplotazio mota berriak espazio eta episteme berrien bidez sortzen direlako, tekne eta teknologia berrien bidez; horiek guztiek subjektu, hots,

langile mota berriak sortzen dituzte, hain zuzen ere matrize espazio-denbora 'global' berri horien bidez sortzen baitira.

Matrize espazio-denbora horietan garatzen da hain zuzen ere 'kudeaketa berria', '*new management*' edo 'gobernantza saretu kolaboratiboa', non kontzeptu eta kategoria horiek episteme neoliberal berriak sortzen dituzten *habitus* berriak barneratuz; hau da, esplotazio eta desjabetze *habitus* berriak taxutzen dituzte, alienazio eta, hortaz, subjektu/subjektibizazio berriak sortuz. Esan moduan, bitartekotza global horrek dendan edo tabernan egiten zen hori guztia denda edo taberna-espazio horretatik *ateratzen* duelako, hau da, *alienatu* egiten duelako, eta espazio globalean txertatzen duelako, espazio global hori taxutzen duten bitartekotza horien esku. Horrek esan nahi du espazio globala ez dagoela kosmosean, ezpada Bilboko dendetan, norberaren hiri edo herrietako kafetegi eta kaleetan. *Espazio globala norberaren plaza, kale, gorputz eta etxeetan dagoen eta norberak kontrolatu ezin duen espazioa da.*

Bizitza eta lana egiten dugun espazioa (lurraldea) globalizatu egiten da, ez soilik pribatizatu; hortaz, gure etxe eta

Espazio globala
norberaren plaza, kale,
gorputz eta etxeetan
dagoen eta norberak
kontrolatu ezin duen
espazioa da. Esku pribatu
batzuen den espazioa
gure kale, etxe, gorputz
eta bihotzetan sartzen da

tabernetan sartzen da kontrolatu ezin dugun eskala berri bat, ez dena ez nazio ez nazioarte mailakoa, baizik eta korporazio eta exekutiboek sortzen duten espazio xurgatzaile berri bat, berezko lege eta arauekin, non gure gorputzaren eta hark bizitzeko behar duen espazio ororen gaineko burujabetza edo kontrola ekiditen duen, inolaz ere gobernatu ezin dugun espazioa delako. Esku pribatu batzuen

den espazioa gure kale, etxe, gorputz eta bihotzetan sartzen da, jada existitzen zen espazioaren segregazio pribatizatua

areagotuz eta jabetza eta erabilera publiko, komun edo komunalak ezinezko bilakatu. *Espazio komunak desagerraraziz neutralizatzen da komunitatea.*

Orduan, espazioa jabetza-harreman gisa agertzen da, hau da, erosteko ahalmenaren harreman gisa. Baina ez da hor geratzen; espazioa faktore politikoa da, beraz, propietate horiek ezin dira bereizi horrelako botere-harremanetatik. Sistema arautzaile kapitalista patriarkal eta kolonialak eraikitako hiri-espazioak ekintzen lekua antolatu eta kontrolatzen du: zatitu eta isolatu egiten du komunitatea. Espazioaren bidezko kontrola eta espazio hori bereganatzea ezinbesteko bihurtzen dira. *Espazio ororen gaineko jabetza pribatua eskubide pribatua bilakatu da, 'privilegio' edo lege pribatu eta, beraz, desjabetze mekanismo legal. Espazioaren eta bertan produzitzen diren metatze- eta desjabetze-prozesu horiek sortzen dute hirigintza eta lurralde neoliberal, patriarkal eta koloniala, metatze eta desjabetze horiek langileen produkzio sexuatuaren eta arrazializatuaren arabera baitira.*

Horregatik dugu, alde batetik, espazio publikoaren pribatizazio eta merkantilizazio prozesuen bizkortzeak dakarren espazio jakin batzuen estigmatizazioa eta degradazioa eta beste batzuen edertzea eta nobletzea, dela gentrifikazioa, dela turistifikazioa. Espazio noble eta ederren okupazioa eta produkzioa subjektu noble eta ederrek egiten dute, estatistikoki gehiengoa izanik gizon zuri profesionalak edo horiengandik gertuen daudenak. Aldiz, espazio estigmatizatu eta degradatuak subjektu degradatu eta estigmatizatuak taxutzen dituzte, estatistikoki emakume arrazializatu pobreak. Horrexegatik da espazioaren produkzio erregimen neoliberal, patriarkala eta koloniala, produkzio erregimenek, merkantziak produzitzeaz gain, lan indar sexuatu eta arrazializatu produzitzen dutelako, hein handi batean familia den espazio pribatizatuaren bidez, hau da, lan ez-ordainduaren gune legitimatuak produzituz: familia heteronuklearra. Bizilagun edo subjektu periferikoak sortzeko, espazio periferikoak sortu behar baitira.

Lehen atal hau laburbiltzeko, hiru ideia nagusi.

Pribatizazioa. Espazio globala hiri globalen bidez mamitzen da, tokian tokiko espazioak pribatizatuz. Pribatizazioa ez da soilik irisgarritasun kontua, espazioaren produkzio pribatuak esan nahi du gure gaitasun politikoak pribatizatzen dituztela, hots, neutralizatu. Ez gara ari eskubideen pribatizazioaz, baizik eta autoritatearen, epistemologiaren, hots, ezagutzaren eta ongizate materiala lortzeko gaitasun politikoen neutralizazioaz. Erabile korporatiboak, korporazio edo nazioarteko enpresak lurralde nazionalean sartzen dira eta, pixkanaka, termitak bezala, lurralde hori barrutik jan edo pribatizatzen dute: lehenik etxe bat, gero berrehun (Air B&B), lehenik kafetegi bat, gero hirurehun (Starbucks), lehenik makroekitaldi bat, gero bi mila. Hori aurrera eramateko mekanismoetako bat bitartekotza dela esan dugu.

Bitartekotza. Egungo zerbitzuzko kapitalismo finantzarioa ekonomia estraktiboaren sektore bat da; logika estraktiboak esan nahi du balioa produzitu ordez balioa erauzten dutela, baita balio gutxiko produktuetatik ere, kafea edo loreak diren moduan, eta baita zor publiko eta pribatutik ere. Balioaren estrakzio horrek, esan moduan, subjektu zehatzak behar ditu.

Lan indar eta subjektu berrien produkzioa. Lan indar zehatz bat behar du produkzio erregimen bakoitzak, subjektu espezifikoak sortu behar dira, beraz. Aipatu bitartekotza horrek esan nahi du frankizia horietan lanaren dimentsio ia guztiak langileen eskutik kentzen direla (zerbitzua izan ezik) –kontabilitatea, legeria, erosketak, lehengai edo manufakturen aukeraketa–, eta hori bitartekotzak egiten duela. Hortaz, behar den lan indarra oso kualifikatua edo batere ez kualifikatua da; frankizia berean, postu desberdinetan. Kapitalismo globalak sortzen duen lan mota ez da jada kualifikazio ertainekoa (alegia, irakasleak, industria langileak...), horregatik azken hamarkadan galdu diren lanpostuen %65 kualifikazio ertaineko lanak izan dira, eta sortu diren lan berriak oso kualifikatuak edo batere kualifikaziorik gabekoak izan dira. Hemen demografiaren bilakaera kontuan hartu behar dugu, noski. Langileria klasearen barruan kokatzen zen klase industrial kualifikatua

(irakasle eta abarrekin batera klase ertain izendatzen dutena askok) eta sindikatuen subjektu politiko hegemonikoa izan dena azken hamarkadetan eraldatzen ari den heinean, horrek antolakuntza eta artikulazio modu berriak eskatuko ditu, langileria klasearen estratuak eraldatzen baititu eta klase frakzio berriak sorrarazi. Hortaz, Otxarkoaga eta Indautxuren arteko zatiketa ekonomiko eta kulturala handitzen da, baina baita Otxarkoaga eta Indautxu barrukoa ere, non kapital kultural handiko bertako eta migratutako langile pobretu asko sortzen den ('gainkualifikazioaren fenomeno'), kapital kultural gutxiko edo kualifikazio baxuko langile zuri, migratu eta arrazializatuekin batera. Askok sinplifikatuz, kualifikaziorik gabekoak (suposatzen da, ez baita horrela oraingoz) kafeak saltzen ibiliko dira frankizietan eta kualifikazio handikoak frankizien bitartekotzan, hau da, espazio global horren legelariak, abokatuak eta kontableak izango dira.

Kontua da bitartekotza hori egiten dutenen %80 gizon zuriak direla eta lan zikina eta ez kualifikatua egiten ari direnen gehiengoak emakumeak eta arrazializatuak.

Espazio/lurralde patriarkalaren produkzioa: hiri publikoa, familia pribatua

Estatu liberal patriarkalak espazioa bitan egituratu zuen: publikoa eta pribatua. Lehen espazioan, publikoan, herri-tartasuna kokatzen da, eta jabetza-irizpide maskulinizatuen arabera egituratzen den eremu politikoa da. Aldiz, eremu pribatua jabe ez diren norbanakoena da, hots, razionalak ez direnena eta, beraz, eskubiderik ez dutenena: umeak, animaliak eta emakumeak. Eskubideak izaki razionalen ezaugarri edo tasunak dira, eta eskubiderik ez duenak ez du soldata izateko eskubiderik ere. Horregatik, mundu mailan emakumeen erdiak ez du sekula soldatarik jaso, eta, jasotzen dutenen artean, lan ez-ordainduaren, hau da, espazio pribatuan egiten den lan mota horren %97 emakumeek egiten dute mundu osoan.

Zein dira hiriaren, hau da, espazio publikoaren existentziaren baldintzak?

Gizon publikoaren existentziaren baldintza nagusia emakume pribatizatuaren produkzioa baldin bada, espazio publikoaren baldintza nagusia espazio pribatuaren existentzia da. Lan ordaindua posible egiten duen hori lan ez-ordaindua den bezalaxe. Esplotazioak existitu ahal izateko, gorputz esplotatuak egon ahal izateko, gorputz desjabetuak beharrezkoak diren bezalaxe. Hiri moderno industrializatuetan, espazio pribatuaren bidez egikarituko da desjabetzea, eta horren gune pribilegiatua familia heteronormatiboa izango da: esplotatua den gizon bakoitzari desjabetua (eta esplotatua) den emakume bana dagokio, Rousseauk eta modernitateko ideologiek dioten moduan.

Zer ari da gertatzen aro neoliberalean? Espazio pribatuko, alegia, etxeetako produkzio sistema espazio publikora pasatzen ari da, hau da, desjabetzearen bidezko produkzioa etxe-ko espazio pribatutik hiriko espazio publikora pasatzen da; horregatik hedatzen da espazioaren pribatizazioa, produkzio erregimena aldatzen doalako. Espazio pribatuek izaki pribatizatuak behar dituzte –orain arte emakumeak, eskubiderik gabeko izakiak–, hori baita hain zuzen ere desjabetzearen eta logika estraktiboaren bidezko produkzio erregimenen oinarria: eskubiderik gabeko espazio/gorputz pribatizatuak sortzea, espazio desjabetuek gorputz desjabetuak produzitzen baitituzte eta horiek subjektu desjabetuak. Horrek eragiten du hein handi batean faxismoa elikatzen duen gizon zurien haserrea hedatzea, orain arte esplotatuak baina ez desjabetuak izan diren gorputz horien haserrea baita. Ez da kasualitatea ezkerreko bozka gaur egun sexuatua eta arrazializatua izatea, izaki partikularrena, eta eskuineko bozka, aldiz, subjektu unibertsal sentitzen direnena, hau da, gizon zuriena.

Hiria eta espazio publikoa maskulinoak ziren gorputze-na izan da. Kapitalismo industrialaren garapen prozesua etxearen eta lanaren arteko banaketaren bidez gauzatzen da, argudiatur gizonak arrazoimena, eskubideak eta gainbalioa

ekoizten dituzten izaki kulturalak eta politikoak direla, eta emakumeak izaki naturalak, funtzio biologiko ez-razionalak dituztenak, non horien zeregin biologikoak aurrera eramateko –alegia, kumeak izan, hezitu, gizon langilea zaindu, jaten eman, garbitu, sexua eman eta merkatuak asebetetzen ez dituen beharrizan guztiak asetzeko– espazioa etxea den: lan ez-ordainduaren espazioa neskameen eta esklaboen espazio ez-politikoa da.

Hiritik libre eta aske ibiltzen diren horiek sortu dute hiria eta horren inguruko episteme guztia, hain zuzen ere, hirian libre eta aske mugitu ezin diren horiek libre eta aske ez izateko. Dispositibo moderno patriarkala eta arrazista da hiri kapitalista; ekoizpen industrial maskulinoa errealitate bilakatzen duen espazio moduan sortu zen. Kapitalismoa gizarte patriarkalak sortzen du, horregatik merkantzien produkzioan oinarritzen den menderakuntza maskulinoak espazioaren, denboraren eta bizitzaren/materiaren merkantilizazio oro era sexuatuan baino ezin du egin, gizon eta emakumeak (materia semiotiko zehatzak) produzituz lortzen duelako bere birsortzea.

Horregatik dira gizonak, Iranen, Egipton zein Bilbon, egunez zein gauez, kalean lasai mugi daitezkeen bakarrak, mozkorrak joan ahal diren bakarrak bortxatuak izateko beldurrik gabe, edo eraso sexualak jasateko arriskurik gabe, espazio publikoa izaki publikoena delako, izaki noble, jator eta uni-bertsalena, Bourdieuk eta Wittigek dioten moduan.

Analisi orok du abstrakzio maila zehatz bat eta konkrezio kokatu ezinbestekoa: Donostiako emakume zuri, aberats edo langile batek izan dezakeen arriskua, edo mugitzeko

Aro neoliberallean, espazio pribatuko, alegia, etxeetako produkzio sistema espazio publikora pasatzen ari da, hau da, desjabetzearen bidezko produkzioa etxeko espazio pribatutik hiriko espazio publikora pasatzen da

gaitasuna, eta gizon migratu senegaldar batek Bilboko kaleetan izan dezakeena desberdinak dira, menderakuntza ardatz horien uztartze ezberdinduagatik. Espazio praktikoa eta espazio-praktikak inklusio eta baztertze logiken bidez taxutzen dira beti: gorputz eta jarrera batzuk onartzen dira eta beste batzuk ez. Horregatik jasaten ditugu emakumeak erasoak, are gehiago gauetan etxera itzultzean, ez delako gure tokia, eta mozkorrak bagoaz, zigorra, ez baitzaizkie portaera sozial horiek onartzen izaki horiei eta espazio horietan; beraz, mugitzeko modu jakin batzuk indartzen dira (taldean, babestuta, atentzioa eman gabe, ezkutuan), eta beste batzuk debekatu. Ez al luke zaintza kontzeptuak hori erdigunean jarri behar?

Zergatik lotzen dugu zaintza beti familiarteko kontuekin edo afektua inplikatzan duten praktikekin? Ez al da hori zaintzaren ulerkeraren femeninoa trinkotzea, eta, beraz, patriarkatuaren birsortze epistemikoa?

Zaintzaren kontzeptuak, are gehiago euskaraz ‘bijilantzia’ esan nahi duenean ere, zaintza ekosistema bati egin behar dio erreferentzia, auzozaintzari, eta hirian eta espazio publikoan zenbait gorputzek mugitzeko eta espazio hura bere egiteko dituzten arazoak jarri beharko lituzke lehen lerroan. Emakumeek espazio publikoan edo komunitarioan –plazan, parrandan, kalean, gauean, garraio publikoan (emakumeek erabiltzen dute nagusiki)– eta, noski, espazio publiko-politikoetan (hedabideak, lantokiak, eskola, erresidentziak...) libre mugitzeko gaitasuna bermatu beharko luke zaintza berri horrek: espazio publikotik kanporatuak izan diren izakiek, emantzipazio kolektiboa lortzeko eta beraz subjektu politiko-publiko izateko, espazio publiko-politiko-soziala bereganatu behar dute; horrek esan nahi du espazio hori gobernatzeko gaitasuna izan behar dutela, eta horrek, aldi berean, zera ekarri beharko luke: espazio horretan burujabe izateko gaitasuna. Hortik sortzen baitira lurralde, herri eta komunitate burujabeak eta hortik subjektu burujabeak.

Lefebvrek 1974ko *La production de l'espace* liburuan azaldu zuen hirigintza ez dela ez lurraren antolamendu bat, ezta

kontu tekniko bat ere, baizik eta gai politiko-instrumental bat. Horrela, hirigintza eta beraz espazioaren produkzio oro ere ideologia da, gizarte ordena legitimatzen duen mekanismoa: espazio homogeen, zatikatu eta hierarkizatu baten errealitate alienatzailea, xedapen razional baten pean disimulatuz, neutral edo unibertsal gisa aurkezten zaigu, noski. Baina guk, emakume langile, feminista eta independentistok, oso ondo dakigu unibertsaltasuna beti dela hegemonia.

Espazio/lurralde emantzipatzaileen produkzioa erresistentzia bidez

Erresistentzia epistemikoa. Gure egunerokoan erabilitako kategoriek mundua ordenatzen digute; are gehiago, mundua ordenatzen duten egitura objektibatu edo sozializatuak birsortzen dituzte, errealitate objektibatu horiek zeharkatzen eta taxutzen dituzten subjektibitateak/identitateak birsortuz. Horren adibide ona da 'gobernantza sareen' kategoria eta bertan txertatzen diren diskurtsoak: erlazio eta ordena neoliberala birsortzen dute, ezkerreko perspektibatik ordena hori eraldatzen ari direlako ustearen pean, hain zuzen ere ordena neoliberal horizontalagoa eta gardenagoa bilakatzen baitute, hau da, are eta eragingarriagoa. Gobernantza kooperatiboa hasi zenetik, pobreagoak gara, hortaz; ez dut uste gobernantza sareek sistema produktiboak eta egitura politikoak errotik alda ditzaketarik. Bestetik, erlazio sozial guztiak dira botere erlazioak, baina boterea era desberdinetan egituratzen da, materialitate semiotiko, agentziadun eta egituratu desberdinak sortuz: egitura horiek sistema ezberdinen existentzia erakusten digute, non menderakuntza egituratuek elementu ezberdinak erabiltzen dituzten menderakuntza hori egikaritzeko aldeztu aurretik botere erlazio, estrategia eta egiturez 'beteta' edo 'egina' dagoen espazio batean. Botere eta menderakuntza sistema horiei aurre egiteko, espazio desberdin bat produzitu behar da; baina, horretarako, horiek ikusteko gai izan behar dugu; eta, menderakuntza sistemaren zirkuitu

Normala dena
hegemonikoa da, eta
gure helburuetako
bat 'normalitate'
horrekin amaitzea da.
'Normalitate' ororen
oinarrian biolentzia
batzuen eta ez
beste batzuen
legitimazioa dago

eta elementuak ikusi ahal izateko, diskurtso eta kategoria analitiko zehatzak behar ditugu, diskurtsoaren bidez ikusten ditugulako gizakiok menderakuntza sistemak. Sinple-

ki esanda, erresistentzia orok anticoloniala, antikapitalista, antiarrazista eta antipatriarkala izan behar du, eta horretarako horietako sistema bakoitzak elkarrekin funtzionatzeko dituzten moduak, zirkuituak, egiturak eta estrategiak azaldu eta ulertu behar ditugu, gero guk geuk errealitatea sortu eta definitu ahal izateko (*zer dira: patriarkatua, kapitala, Euskal Herria, gainbalioa, klasea, boterea, zientzia, estatua, euskaldunak, emakumeak, zuriak,*

demokrazia, biolentzia, hiria, espazioa, lurraldea, ekoizidua, bizitza, komunitatea, materia, berdintasuna, askatasuna...).

Norma(litatea)ri erresistentzia. Normala dena hegemonikoa da, eta gure helburuetako bat 'normalitate' horrekin amaitzea da. 'Normalitate' ororen oinarrian biolentzia batzuen eta ez beste batzuen legitimazioa dago, biolentzia batzuen 'legitimitateak' sortzen baitu *normalitatea*, ezin baita sistema politiko bat osatzen duten kideen gobernua lortu biolentzia zuzen ez-legitimoaren bidez soilik. Horregatik da deslegitimazioa ekintza ezinbestekoa biolentziaren normalizazioarekin apurtzeko. Ekintza deslegitimatzaile asko egin dira azken urteetan Bilbo Hiri Globala bilaka ez dadin: esan dugu, Donostia edo Bilbo bezalako hiri globalak kapitalismo globalaren dispositiboak dira: Zazpikaleetako eta Bilbiko denda bakoitzean dago espazio global kapitalista hori, astebururo egiten dituzten cross, maratoni eta kontzertuetan, MTV, Pride edo futbol profesionalaren makroekitaldi orotan: horiek guztiak ez dira kapitalismo globalaren zutabeak, baizik eta kapitalismo eta

espazio finantzario global horren legitimitatea lortzeko sortu-tako dispositiboak. Ezinbestekoak dira ekitaldi horien kontra antolatzen diren ekintza deslegitimatzaileak, hala nola langileek bertan dituzten lan baldintzen publikazioa eta politizazioa, hots, jasotzen dituzten diru sarrera miserableen kritika publikoa. Azken adibidea greba feministak dira: hiria paralizatu eta kontsumo, lan eta zaintza oro gelditzean, gainontzeko grebek uztartzen ez dituzten hiriko dimentsio desberdinak ekartzen dituzte erdigunera, Zaran lan egiten dutenen greba feminizatuak kontsumo grebarekin uztartuz, plazetako denda eta kafetegi guztiak barneratuz, etxeetako espazio pribatuan sartuz eta ordaindu gabe lan egiten duten milioika emakumeen lana espazio publikoan ikusgarri bilakatuz, horien esplotazio eta desjabetze normalizatua des-normalizatuz eta espazio pribatu despolitizatua politizatuz, familiaren kritika erdigunean kokatuz eta, beraz, sistema sostengatzen duen esklabo lan feminizatua agerian utziz, emakume migranteen lan ikusezin eta prekarizatuarekin batera, hiriko espazio publiko eta politikoaren arrazializazioa deslegitimatuz, espazioa bera eraldatuz, horien diskurtso, gorputz eta espazioan mugitzeko eta espazioa sortzeko era desberdinak mamituz, non umeen zaintza, lana, ekonomia, aisialdia eta politika espazio berean txertatzen diren, espazioaren zatiketa sexual, kolonial eta merkantilaren kontra jendea metatuz eta mobilizatuz, modernitateak zatikatutako eta entzerratutako bizitzak berriro elkartzuz ekonomia, politika eta kultura zatitzen ez duen espazioaren sorkuntzaren bidez.

Beste hainbat adibide daude, hala nola Kataluniako *manteroen sindikatuaren* ekintza politikoak, disidentzia sexualek egiten dituzten protestak edo pandemia garaian sortutako zenbait zaintza sare politizatu, tartean.

Subjektu espazial politizatuen erresistentzia. Postfordismoan sortzen ari den langileria klasearen frakzio berriak zerbitzuetara daude lotuta; Euskal Herrian %65-75 bitarte dira zehazki, gutxiengo bat oso kualifikatua, eta 'gutxi edo ez-kualifikatua' gehiengoa. Zerbitzuetako langileriak lan egiten duen espazio

horretatik antolatu behar du erresistentzia eta aldaketa, kon-tuan hartuz zerbitzuetako egituraketa askotarikoa eta aldako-rra, non gehienek oso kontratu kaxkarrak, behin-behinekoak eta etenak dituzten, askotan lantokirik gabe, alegia, espazio eten, fragmentatu eta aldakorretan aritzen direlarik, bai Glo-vokoak, bai frankizietako ostalaritza langileak, bai etxeko lan-gileak. Erresistentzia alienatutako espazioetatik egin behar da, hau da, espazio global hori ekoizten den gune guztietan sartu behar da tokian tokiko erresistentzia; horretarako, politizazio prozesuak egon behar dira espazio guztietan, dela auzoko plazako kafetegian, dela loradenden frankizian, dela man-teroen kale eta auzo zirkuituetan, etxebizitza sindikatuetan, eskoletan, zahar etxeetan, umeek jolasten duten parkeetan, supermerkatuan edo garraio publikoan.

Neoliberalismoak ekoizten duen subjektu motari ‘ekin-tzailea’ edo ‘enprendorea’ esaten zaio. Nor da ekintzailea? Lan finkorik, kontratu finkorik, etxebizitza finkorik, bizitza finkorik izango ez duen subjektua da. Bizitza prekarizatu eta fragmentatu horri aurre egiteko ezaugarri maitatuenari ‘erresilientzia’ esaten zaio, eta eskolaren bidez ekoizten dira subjektu erresilienteak, ez soilik familiaren eta hedabide edo kultura produkzioaren bidez. Gainera, subjektu erresilien-teek ‘konpetentziak’ dituzte, ez gaitasun politikoak, baizik eta ‘abilidade’ ezberdinak. Subjektu mota horiek txikitatik prestatzen dituzte 30 urterekin beren buruaz beste ez egiteko, hain zuzen ere aipatu kategoria eta praktika horien guztien bidez –erresilientzia, konpetentzia, ekintzailatza– zenbait espektatiba izan ez ditzaten, hala nola lan finkoarena, sol-datarena eta eskubideena, edota osasungintza eta hezkuntza publikorako eskubidea, zaindua izateko eskubidea, bizitza duin bat izateko eskubidea. Horrela ekoizten dira subjektu prekarioak espektatiba prekarioekin, lan prekarioekin, alegia, espazio prekarioak sortuz, espazio pribatizatuak, fragmenta-tuak, globalak, arriskutsuak eta degradatuak. Erresistentzia, horregatik, bizitza prekarioa gertatzen den toki guztietan antolatu behar da, ez soilik lantokian, edo ikasgelan, baizik

eta gune orotan, gune horiek politizatuz: etxebizitza, kafetegia, plaza, garraioa, dendak, etxea, auzoa. Ezin dugu ahaztu espazio global kapitalista hori mikroespazio pribatizatuez taxutzen dela: desjabetzearen eta esplotazioaren espazio globala tokian tokikoa da. Mikroespazio horiek guztiek izan behar dute erresistentziaren gune politizatuak, hain zuzen ere hortik abiatuta espazio komuna produzitu ahal izateko: erresistentzia espazioak espazio komun bilakatu eta hedatuz.

Erresistentzia digitala. Kale barrikadekin batera, barrikada digitalak egin behar dira XXI. mendeko kontrol eta gobernu pribatu digital edo algoritmikoei aurre egiteko. Hiri globalen funtzioa produkzio espazio berri bat sortzea da. Espazio hori ez dago udal, nazio edo nazioarteko legediaren pean. Espazio globalaren ekoizpena lege globalen bidez egiten da, komunitatetik inolaz ere pasatzen ez diren zirkuitu eta erakundeetatik. Espazio hori lege finantzario eta digital zehatzek ekoizten dute, eta herritarrek ezin dute inolako oposiziorik egin, ez baitute sarbiderik. Arkitektura liberal tradizionalei erresistentzia egitearekin batera, espazio globala sortzen duen arkitektura neoliberalari ere egin behar zaio erresistentzia; horretarako ezinbestekoa da erresistentzia algoritmikoa egitea, hori baita espazio horren ezaugarrietako bat. Hemen-dik urte batzuetara, oraingo mugikorrak azal azpian izango ditugu, eta azal azpiko txip horiek hackeatzeko baliabideak beharko ditugu: ez soilik baliabide epistemikoak eta ezagutza teknologiko konkretua gure gorputzetik ibiliko diren nanobotak hackeatzeko, baizik eta guk geuk nanobotak, txipak eta birus emantzipatzaileak sortu ahal izateko. Korporazio horien softwareak neutralizatzeko gai diren erresistentzia motak behar ditugu: banku transferentziak egiteko erabiltzen diren mekanismoak hackeatzeko gai izan behar dugu: Google eta Amazon blokeatzeko eta horiek pribatizatutako ezagutza, hardware eta softwareak libreki eta era irekian produzitzeko gaitasuna. Ekonomia digitalizatuta egongo da hamarkada batean; gure gobernu algoritmikoak sortzeko gai ez bagara, lehen aldiz historian gure bizitzaren eta gorputz osoaren

gaineko kontrola izango dute gu apenas ukitu gabe. Hortaz, eta adibide moduan: auzo osoak irisgarri izango duen etxebizitza hutsen datu base irekiak sortzen has gaitezke, mantoeroek saltzen dituzten produktuetara iristeko bide digital eta fisikoak sortzen, elikagaiak bertan ekoitzi eta etxez etxe saltzen/trukatzen dituztenen antolakundeak koordinatzeko software eta datu base libreak, auzoko medikuen asteroko kontsultak ezagutu eta hitzorduak eduki ahal izateko bide digital eta fisikoak...; zaintza mota ezberdinak hedatu eta egonkortzeko, eskola eta garraio publikoa hiriko eta herriko puntu ezberdinetan lotu eta jangela herrikoiekin uztartzeko... datu base irekiez gain, beste hainbat baliabide material behar dira. Baina ezagutza irekia espazio ireki horiek sortuz joan daiteke, eta, espazio komunak sortzen diren heinean, gaitasun politiko eta baliabide komunak egituratuz joango dira, benetako erresistentzia egituratu, egonkor, digital/algoritmitiko, espazial eta materiala sortu eta dentsifikatu ahal izateko.

Erresistentzia lurraldetua. Boterearen espazioaren mikrofisika lurraldetu bat ekoitzi behar dugu, hori baita gakoa zerbitzuzko kapitalismo patriarkal, kolonial eta finantzarioari aurre egiteko: gorputzak lurraldea dira, lurraldea gure gorputz kolektiboa da; hori apurtzen, pribatizatzen eta pobretzen badute, gure gorputzak pribatizatu, apurtu eta pobretzen dituzte. Bizitza gorpuztuta, hots, lurraldetuta baino ezin da existitu. Horregatik da ezinbestekoa eguneroko bizitza egiten dugun lurralde horretatik bertatik egitea erresistentzia eta borroka. Espazio askeek lurralde burujabeak behar dituzte –eta horiek espazio komunak– komunitate burujabeak sortu ahal izateko. Espazio ezberdinak ekoitzi behar ditugu, komunalak, publikoak baina informalak, formalak eta politizatuak, autogestionatuak, hibridoak eta dimentsio antzekoak. Hemen bi adibide baino ez ditut aipatu:

- *Espazio desmerkantilizatuak*, diruak baliorik izango ez duen truke bidezko gune, ekintza eta praktika multzoak sortu: merkantziak, erlazio moduan ulertuta, tokirik eta zirkuiturik izango ez duen espazio fisiko-digitalak sortu.

- *Espazio desfamiliarizatuak*, eta, noski, familiatik pasatzen ez diren zaintza sare egonkor eta egituratuak. Horretarako hiri espazio osoa aldatu behar da: gure bizitzak ordenatu, artikulatu eta sostengatzen dituen herri eta hiri antolakuntza eta espazio publiko eta pribatua zatitzen dituzten kosmobisio, estatu eta ekonomia politikoaren egitura guztiak eraldatzea eskatzen du horrek, eta, beraz, legedi, justizia sistema, sistema ekonomiko eta kultural osoa, familiatik hasita: emakumeon desjabetze eta esploazioaren gune pribilegiatua den familia nuklearraren inguruan egituratu delako sistema politiko, ekonomiko, kultural eta urbano osoa modernitatean. Hori lortzeko, ezagutza eta praktika berri asko sortu behar dira, eta horiek egituratu eta birsortzeko gaitasuna izango duten erakunde edo dentsifikazio lurraldetuak.

Euskal Herria 2040: utopia neomaterialistak

Ez da hau neomaterialismoaren markoa azaltzeko tokia; hor-taz, labur-labur bilduko ditut neomaterialismoaren hiru oinarri ontologiko eta epistemologiko: materia semiotikoa da, materia erlazionala da, materia agentziaduna da. *Zer da materia*: materia energia trinkotua da, eta bizitza oro da materia-lar. *Nolakoa* da organismo bizi-en materia: *sinpoietikoa*, hau da, ko-sorkuntzaren eta *autoantolakuntzaren* bidez mami-tzen den materia semioti-ko, agentziadun eta erlazionala dira organismo biziak. *Nor da materia*: organismo bizi horiek

Bizitza gorpuztuta, hots, lurraldetuta baino ezin da existitu. Horregatik da ezinbestekoa eguneroko bizitza egiten dugun lurralde horretatik bertatik egitea erresistentzia eta borroka

espezie anitzek osatzen dituzten holobionteak dira, gara eta izango gara. Marko orokor hori, gerora, diziplina zientifiko bakoitzean era hibridatu batean jorratzen da, beste hainbat

teoriarekin batera: hau da, estatu teorian, printzipio filosofiko zehatz batzuk jarraituz, ekonomia politikotik datozen beste teoria batzuekin uztartu behar da, biologian anatomiatik, immunologiatik, neurologiatik, genetikatik, epidemiologiatik datozen beste teoria eta markoekin uztartzen den bezalaxe.

Neomaterialismotik pentsatzen dugu utopia. Eta utopia horren zertzelada zehatz bat emango dut, amaitzeko. Faktore, elementu, egitura eta erakunde anitz behar dira familia patriarkal, kolonial eta liberaletik pasatzen ez diren bizitzaren produkzio eta mantentze espazioak, lurraldeak, hiriak eta komunitateak sortzeko eta horren konplexutasuna ulertu eta beste mundu bat irudikatu ahal izateko. Adibide bat jarriko dut. Espazio, bizitza eta komunitate desfamiliarizatuak sortzeko, toki askotatik has gaitezke; kasu honetan arauetatik hasiko naiz, gerora dimentsio ezberdinak barneratu ahal izateko. Errealitate materiala eta haren eraldaketa irudikatze jolas bat da hemen proposatzen dudana, ez programa politiko bat. Has gaitezen.

Egungo familia eta etxebizitza gehienak hurrengo bi arau sozialen arabera taxutzen dira: sexua eta herentzia genetikoak, alegia, gurasoen arteko sexua eta hortik sortutako odolezko ondorengotza: umeak. Hori da Europako familia nuklear gehienek betetzen dituzten arauak. Hori da, are gehiago, familia normala – unibertsala, hots, hegemonikoa. Eta horren arabera dago mamitua hiria, alegia, espazioa.

Has gaitezen lehen elementuarekin: irudika dezagun espazio edo lurralde zati bat (mundu honetan, ez asmatutako paradisu batean), non *bi arauen arabera antolatu behar dugun espazioa gaurtik aurrera*: sexua dutenek ezin dute elkarrekin bizi, ezta umeak elkarrekin dituztenek ere. Horrek esan nahi du gehiengoaren bizitza egituratzen duen hori aldatu behar dela, hau da, etxebizitza edo espazio pribatuaren neutralizazioa eskatzen du: familia patriarkala ahalbidetu eta taxutzen duten lege, egitura, erakunde, subjektu (senar-emazte) eta espazio ororen eraldaketa. Urbanismo berri bat eskatzen du horrek, ez soilik lurraren gaineko propietate pribatuaren amaiera,

non etxebizitzak guztiok erabili ahal izango ditugun, non etxebizitza gune zabal eta irekiak izango diren eta lurralde horretan bizi edo lan egiten duen edonork etxebizitza eskura izango duen, beti eta duintasunez, hots, eroso, osasuntsua eta babestua. Baldintza material objektibatuak –hau da, legal, politiko, ekonomiko, arkitektonikoek– ahalbidetuko lukete espazio pribatu eta publikoaren arteko zatiketaren neutralizazioa eta etxebizitza desberdinak edukitzea, zaintza mota oro ziurtatuta egonik etxebizitza guztietan.

Adi hemen, bigarren elementuan, logika espaziotik edo lurraldetik subjektura baitoa: lurraldeak ongizatea baldin badu, ur eta aire garbia, janari kutsatu gabea, bertako haziekin, garraio publikoarekin, anbulatorio publikoekin herri guztietan..., orduan bertan bizi direnek ongizatea izango dute. Berdin etxebizitzekin: etxebizitzek dena baldin badute –zaintza espezializatua eta profesionala, formala, informala, afektuzkoa, afekturik behar ez duena, janari kutsatu gabea, ur garbia...–, bertan bizi direnak ondo egongo dira.

Hirugarren elementua: zaintzaz hari garenean, bizitza mantentzeaz ari gara, bizitza duinek behar duten mantentze lanaz, janaritik osasunera, hezkuntzatik gaitasun politikotara. Zaintza desberdin horiek guztiak derrigorrezkoak eta txandakakoak izango lirateke, eta ez jarraituak; alegia, kasu honetan, umeak (edo umeak eta zaharrak) dituzten etxebizitzek zenbait ezaugarri izango dituzte beste etxebizitza mota batzuek –demagun, ikasleen etxebizitzek– izango ez dituztenak. Baina hemen gakoa zera da: ikasleek ere zaindu beharko dituztela umeak, dela horien eskoletan, dela etxebizitzetan. Hortaz, gizarte osoak egingo ditu zaintza mota ezberdinak bizitzan zehar, eta espazio horren arabera antolatuko da bai fisikoki bai digitalki, baita hori lortzeko behar diren subjektu moten produkzioari dagokionez, non ‘ama’, ‘aita’, ‘senar’ eta antzeko kontzeptuak desagertu edo eraldatuko liratekeen: guztiok pasatuko ginateke lau ama edo aita (biologikoa bat edo bi edo bat bera ere ez), hamar amona eta bizpahiru seme-alaba izatera, hau da, etxebizitza komunitate

hori, auzoko espazio edo lurralde zehatz hori sortzen duten izaki guztiok, non espazio desberdinetan egiten diren zaintza erlazio desberdinek subjektu berriak sortuko lituzketen familia heteronormatibotik at, hain zuzen ‘emakume’ eta ‘gizonen’ produkzioa eteteagatik familia eredu hori epe ertainera desagerraraziz; izan ere, lanaren zatiketa sexuala ezinezkoa izango litzateke eta, beraz, emakumeek mundu mailan egiten duten etxeko eta zaintza lan ez-ordaindua berrantolatu beharko litzateke, kapitalismo patriarkalaren desjabetze gune pribilegiatua neutralizatuz.

Familia posible egiten duten baldintza objektibatu edo sozializatuak –hau da, lege, ohitura, arkitektura, etxebizitza eta espazioak– eraldatzean, subjektibizazio eta identita-

Bizitzaren produkzio
erregimen desberdin
batek hirigintza zehatz
bat eskatzen du, espazio
berriak behar ditu,
etxebizitza berriak, lege
berriak... Espazio berriak
sortuz, lurralde berriak
sortzen dira

te berriak sortzen dira, kanpo egiturak aldatzean barne egitura emozionalak aldatzeko aukera dagoelako. Umeak bizi diren etxebizitza batean, hiru edo lau pertsonak baldin badute umeak egin eta zaintzeko ardura eta betebeharra espazio zehatz horretan, geroa betebeharrak hori nahi eta desio bilakatuko da, matrimonio-ezkontzarekin gertatu bezala: ezkontza derrigortutako praktika bat zen hasiera ba-

tean, emakumeak objektu gisa saldu edo trukutzen baitziren, eta horri deritzogu ezkontza. Denboraren eta ohituraren poderioz, salmenta edo truke hori, biolentzia mota hori, naturalizatu egiten da, legitimatu, eta salmenta horretan salgai izan direnek ezkontza desiratzen amaituko dute, hori izango baita emakumeek janaria eta duintasun apur bat lortzeko ia era bakarra: gizon batena bilakatzea.

Bizitzaren produkzio erregimen desberdin batek hirigintza zehatz bat eskatzen du, espazio berriak behar ditu, etxebizitza

berriak, lege berriak... Espazio berriak sortuz, lurralde berriak sortzen dira. Horretarako, familiak osatzera garamatzen baldintza material-semiotikoak aldatu behar dira, eta horrek egitura emozionalak eta desioaren egitura eraldatzea eskatzen du; izan ere, subjektu berriak osatu behar dira, alegia, identitate berriak, non identitatea materialtasun politiko esanguratsuen dimentsio semiotikoa den. Gaitasun politikoei gaitasun lurraldetu eta espaziala hartzen dute barne; ez naiz ari hiritarren eskubideez, baizik eta herria osatzen dutenek espazioa ekoizteko duten gaitasun politikoez.

Utopia horren irudi bat ekarriko bagenu etorkizunetik, dinamikoa izango litzateke; ez estatikoa, paradisu kristauaren gisa, ezpada sinpoiesian sortutako eta holobiontez beteriko espazio dinamikoa, non landareak, txoriak, arrainak, katuak, onddoak eta erleak izango diren hirigintza eta herrigintza berri horien partaide nagusiak, gizakiekin batera; non horiekin komunikatzeko eta horiek ulertzeko teknika hobeak izango ditugun ko-sorkuntza edo sinpoiesi horiek guztiak findu ahal izateko; non ez den ez gizonik ez emakumerik existituko; non landare-gizakiekin, zakur anarko-digitalizatuekin eta nanobot transfeministekin batera, gure espezie-anitzeko gorputz indibidual eta kolektiboaren gobernu mota emantzipatzaileak sortuko diren, poliziaren zakur algoritmikoekin eta korporazio sintetiko-glolokalekin gatazka eta konfrontazio jarraituaren bidez. 🌱

Gizarte zerbitzu sistematik zaintza sistemara: trantsizio baterako gakoak

Felix Arrieta Frutos

Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko arloko irakaslea

Azken aldian zaintzarekin lotutako eztabaida agenda politikoaren erdigunean kokatu da. Euskal gizartearen egungo ezaugarriek (bizi itxaropenaren luzatzeak edo populazioaren zahartzeak) eta mugimendu feministaren bultzadak fenomenoak inoiz baina presenteko egotea ekarri dute. Artikulu honetan eztabaidari politika publikoetatik begiratzen zaio, eta egun agenda publikoan kokatu den gai honi erantzun bat eman ahal izateko ezinbestean beharko liratekeen eztabaidarako giltzarri batzuk planteatzen dira. Funtsean, eraldaketa baten atarian bagaude, nola planteatu behar dugu aldaketa hori?

Hiru pausotan planteatuko da galdera horren erantzuna: alde batetik, egun dugunaren inguruko diagnostika eginez. Bestetik, eta askotan egiten dugunaren gainetik, ditugun aukerak azpimarratuz. Azkenik, epe luzeko helburuak marraztuz, igaro behar dugun trantsizio epe honetan argi luzeek ere lagun diezaguten momentuko erabakiak hartzen.

Nola gaude?

Zaintzaren kontzeptualizazioaz jarduterakoan, asko dira mahai gainean jarri beharreko elementuak: denok dugun eta izango dugun beharraren begirada, publikoa eta pribatuaren arteko oreka edo hori produzitzeko moduak. Denak baldintzatzen du zainduak izateko zein zaintzaile izatearen logika, terminoaren dimentsio bikoitzean. Edozein kasutan, agertoki politikoan presente dagoen eztabaidari so eginez, Victoria Camps filosofoaren hitzek ondo zehazten dute eztabaidaren gakoa, zera dioenean:

Zaintza helburu politiko bihurtzea zerbitzu publikoa oztopatzen duten eta administrazioak beren misio propioena betetzeko desgai egiten dituzten bizioei eraso egitea da, hau da, premiarik handiena duten herritarrei arreta eta laguntza ematea. Elkar zaintzeko betebeharrak birbanatzen lagunduko duten egiturak diseinatzea esan nahi du. (Camps 2021)

Beraz, helburu nagusia galdera bati lotua agertzen zaigu: posible al da zaintza sistema bat artikulatzea? Posible al da, Campsek dioen bezala, horretarako egiturak diseinatzea? Politika publikoen azterketatik ebidentzia bat formulatuz planteatzen has daiteke erantzuna: ez dago egun zaintzaz bere horretan arduratzen den politika publikoen sistemarik. Edo, hobeto esanda, zaintzaz arduratzen diren politika publikoen sistemak askotarikoak dira: gizarte segurantzaz, hezkuntza, osasuna... eta gizarte zerbitzuak. Hauxe da segurtasun osoz zaintzaz pentsatzen dugunean burura datorkigun sistema nagusia: gizarte zerbitzuena. Baina nola osatu da eta nola-koa da gizarte zerbitzuen sistema? Benetan arduratzen al da gaur egun zaintzaz modu artikulatu batean? Eta zer beharko genuke horretarako bidea egiteko?

Ukaezina da arlo honetan gizarte zerbitzuen sistemak eta bertan lanean diharduten profesionalek egiten duten lana. Baina zaintza sistemaren helburu nagusia ez den heinean, sistema bera ez dago horretarako ez pentsatua ez artikulatua. Uler dezagun horren eboluzioa eta ikus dezagun zein

liratekeen zaintza sistema bat osatzeko eman beharreko trantsiziorako gakoak.

Asistentziatik datorren sistema bat

Gizarte zerbitzuen sistema mendez mende garatutako gizarte sorospidetzaaren oinordekoa da. Gizarte sorospidetza horrek perspektiba asistentzialista izan du denbora askoan oinarri: ageriko arazoei momentuko erantzuna ematea, horren arrazoietan sakondu gabe. Ikuspegi asistentzialista horrek ondorio nabarmenak utzi ditu sistemaren definizio eta jarraitutasunean. Oraindik ere lan egiteko modu horren adibide argiak ikus daitezke arlo ezberdinetan, esate baterako elikagai gabeziari emandako erantzunetan. Perspektiba horri gurean laurogeiko hamarkada hasieran hasi zitzaion alternatibarik argiena ematen udalek hartutako rol protagonistaren bitartez. Udal demokratikoen eskutik hasi ziren sistema alternatibo baten

erakundetzerako lehen pausoak, eta orduan hasi ziren indarra hartzen egun ezinbestekotzat ditugun programa batzuk, Etxez Etxeko Laguntza, esate baterako.

Berrogei urte eskas dituen sistema batez ari gara, sistema gazte batez, beraz. Gaztetasun horregatik, askotan esan ohi da gizarte zerbitzuen sistema ‘*negatiboan*’ sortutako sistema bat izan dela, gainontzekoen gabeziak estaltzera deitutakoa, eta beraz helburu zehatz bat ez duena. Hau da, besteak beste, arlo horrek duen eztabaida nagusietako bat: bere objektu edo definizioa topatzea. Lege gehienek ongizatearen bilaketarekin lotzen dute hori, eta horretarako artikulatutako zerbitzu eta

Posible al da zaintza sistema bat artikulatzea? Politika publikoen azterketatik ebidentzia bat formulatuz planteatzen has daiteke erantzuna: ez dago egun zaintzaz bere horretan arduratzen den politika publikoen sistemarik

diru-laguntzen multzoarekin. Baina legeetan agertzen diren definizioek bi arazo nagusi dituzte diziiplina jakin baten definizio iturri bihurtzeko. Alde batetik, ez dute nahikoa zehaztasunik, ongizatea bilatzea elementu nahikoa orokorra baita. Bestetik, lege bat momentu jakin baten adierazpen politikoa den heinean, beste momentu politiko batean alda daiteke; beraz, ezinezkoa da behar zehatz baten definiziorako iturri bakar bihurtzea.

Eztabaidak eztabaida, Fernando Fantovak emandako definizioa erreferentzia garrantzitsutzat har daiteke eta berezitasun nabaria suposatzen du bide honetan. Fantovaren esanetan, gizarte zerbitzuen sistemak elkarrekintza du helburu eta oinarri. Elkarrekintza honela definitzen du:

Elkarrekintza honela definitzea proposatzen da: pertsonak bere bizitza-inguruneetan *modu autonomoan jarduteko duen gaitasunaren* eta, oro har, familia-, bizikidetz-, komunitate- edo *harreman-loturen* bidez eskura duen *gizarte-babesaren* arteko *doikuntza dinamikoa*. Elkarrekintza hitza proposatzen da, pertsonak *zer egiten duen* eta *nolako babesa* edo *laguntza duen* aipatzeko aukera ematen duelako, *lotura naturalei* esker. (Fantova 2008)

Elkarrekintzak, beraz, ematen digu modu horretan sortu den sistema bati koherentzia emateko proposamen bat. Harremanen eta gizarte babesaren arteko doikuntzak definitzen duen elkarrekintza, batak zein besteak huts egiten dutenean babestu beharrekoa. Baina hori babestea eta kokatzea non geratzen da? Nola?

Eredu familista mediterranea oinarri duen sistema bat

Testuinguruaz hitz egitean, beharrezkoa da sistema kokatzen den egitura nagusiari begiratzea, eta horrek duen eraginari: ongizate estatu mediterranea, familia oinarri duena. Ongizate estatua bera gizon langilearengan pentsatuz sortutako egitura izan zen, hainbat autorek aztertu duten bezala. Gure inguruan, gainera, garapen hori beranduagokoa izanik, familian oraindik ere pisu handiagoa utzi du.¹

Funtsean, gizarte zerbitzuen sistemaren eraikuntzak familia gako nagusi izan duen ongizate sistema bat izan du oinarri. Horren arabera, gure sistemak arlo askotan zerikusi handiagoa du subsidiarotasun printzipioaren arabera antolatzen den sistemarekin unibertsalismoan oinarritzen denarekin baino. Zentzu horretan, eta familiarekiko, topagune orokorra izan da familia arduratzen den bitartean ez duela zertan beste eragile batek kargu hartu. Horrek eragin zuzena izan du zaintza lanetan gehien egon diren emakumeentzat, nagusiki kargak beraien esku utziz eta banaketa posibleak ekidinez. Eta hemendik eratortzen da askotan entzun den unibertsalizazio eta desfamiliarizaziorako mezua, mugimendu feministak formulatua, besteak beste.

Unibertsalizazio bideko erreformek eredu honetan sakondu duten sistema bat

Unibertsalizazioa eta eskubidearen aldarrikatzea berandu iritsi ziren gizarte zerbitzuen sistemara. Espainiako Parlamentuak 2006an Mendekotasun Legea onartzearekin gertatu zen hori, eta ondoren onartu ziren erkidegoetako legeak (hirugarren belaunaldiko lege bezala ezagutu direnek) egonkortu dute joera.

Mendekotasun Legeak balorazio tresna komun bat (BVD) ezarri zuen eskubide subjektiboa deklaratzeko oinarri bezala. Arlo guztiek jarraitu duten eredia izan da hori. Baina horren ondorio, bi zutabe nagusi zituen sistema bat irudikatzen zuen: zerbitzuen katalogoa eta diru-laguntzen katalogoa. Legea irudikatu eta pentsatu zutenek, edo bertatik gertu egondakoek,² askotan esan dute legearen imajinarioan zerbitzuak indartzean zegoela giltza, eta diru-laguntzak, aldiz, osagarri minimotzat hartzen zirela. Legearen garapenak, aldiz, kontrakoa erakutsi du.

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan argi geratu da diru-laguntzek nabarmen gainditu dutela zerbitzuen eskaera. Krisi ekonomikoen testuinguruak ere eraman du horretara

Gaur egun indarrean dauden zerbitzuetako asko beste logika baten pean sortuak izan ziren.

Beste garai batean paradigmatikoa zen etxez etxeko zerbitzua da adibiderik onena

agian. Eta horrek indartu egin du maila batean familiak pertsona etxean artatzearen logika. Edo, urtetan okerragoa izan dena, zaintzaile bat kontratu edo deklaraziorik gabe hartzekoa.

Egiari zor, aldundiek ahalegin handia egin dute balorazioak azkar egin eta diru-laguntzak osatzen. Eredu batzuk abian jartzea ere paradigmatikoa izan da, Gipuzkoak PEAParen kasuan egin bezala. Eta zaintzaileen egoerak eta baldintzak ere erregulatu dira, kotizazioak

derrigortuz. Bide ona eta emankorra egin da erregulazioan, balorazioan eta eskaintzan oro har.

Ondorio nagusia, edozein kasutan, hauxe da: diru-laguntzen gailentzeak etxean gelditzearen joera mantendu du, zerbitzuak hazi edo eraldatu gabe eta familiaren rola indartuz.

Zerbitzuak pentsatu behar dituen sistema bat

Egun indarrean dauden zerbitzuetako asko beste logika baten pean sortuak izan ziren. Beste garai batean paradigmatikoa zen etxez etxeko zerbitzua da adibiderik onena. Etxez etxeko zerbitzuak nor bere zaintzarako laguntza ematen dio etxean dagoen pertsonari, egunean bi edo hiru orduz, osagarritasun begirada batetik. Zerbitzu horrek, hala ere, muga garrantzitsuak ditu etxean zaindua izan nahi duen gizarte batean: kostuetatik hasi eta jarraitutasunera, ordu kopuru mugatutik igarota, zerbitzuak dituen zailtasunak oso agerikoak dira egun, eta horiek malgutasun ezarekin lotura zuzena daukate.

Etxez etxekoak bezala, mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroek zein egoitzek ere beren ekintza birpentsatu behar dute egoera eta lehentasun berrien aurrean. Nola egokitu antolaketa jakin bati erantzuten zion eskaintza

batetik pertsonen beharrei erantzun behar dien batera? Erronka garrantzitsua dute zerbitzu gehienek aurretik.

Gobernantza konplexuko sistema bat

Politika publikoetako sistema guztiek dute beren baitan antolaketa eta gobernantza modu konplexua. Baina gizarte zerbitzuen sistemak konplexutasun hori handitu egiten du Erkidegoan artxipelagoa eta mataza deitu ditugun horietan.

Artxipelagoak eredu fragmentazioa esan nahi du, funtsean. Erkidegoaren barruan, eredu bakarraren falta eta garapen ezberdinak Araba, Bizkai eta Gipuzkoan.³ Eskumen banaketak sortutako logika horretan, lurralde bakoitzak bere garapena darama. Zaila da banaketa horrekin hiritarrek identifikatuko dituzten espazio argiak topatzea.

Matazak elementu berari egiten dio erreferentzia, baina hiritar edo erabiltzailearen ikuspegia kontuan hartuta. Behar bati erantzuna emateko pertsona bakoitzak eman beharreko pausoak, galderak eta zalantzek askotan zerikusi handiagoa dute *Asterix eta Obelixen 12 frogekin* logika sinple batekin baino. Horrek tramitazioa bera mataza handi bat bihurtzen du, ulertezina askotan egoera larrian dauden pertsonentzako.

Bi elementuek, artxipelagoak eta matazak, gobernantza konplexuko sistema bat marrazten dute. Konplexutasun horrek zailtasun handiagoa suposatzen du sistema propio bezala identifikatzeko, legitimatzeko eta, beraz, funtsean, behar bat suertatzen denean berori erabiltzeko. Sorgin-gurpil nabaria da.

Sistema feminizatu bat, profil profesionalak lantzeke dituenak, lan baldintzak etengabe eztabaidan

Zaintzara dedikatzen diren profesionalak, ehuneko handi batean, emakumeak dira. Eta horrek pisu handia du sektorearen beraren konfigurazioan. Aspalditik dago definitzeko zaintzaileen profil profesionalaren inguruko afera. Zein da zaintzaile izateko eskatuko den gutxieneko formazioa?

Edonor izan al daiteke? Nola ordenatu formazio maila ezberdinak? Zer egiteko? Informalitateak pisu handia duen sektore batean, galdera horiek erantzun gabe daude oraindik. Eta, noski, aurreko bi elementuekin bat, lan baldintzak ere hobetzeko bide nabarmena duen arloa dugu zaintzena. Konbenioen etengabeko negoziaketan, deslokalizatzen ez den arlo bat nola bihur daiteke lanerako erakargarri? Zein dira mahai gainean jar daitezkeen elementuak?

Funtsean... sistema bat?

Funtsean, elementu horiek guztiak mahai gainean jarrita, esan al daiteke gizarte zerbitzuen sistema artikulatu bat badaukagula? Esan al daiteke, beraz, zaintza erdigunean jartzen duen sistema bat daukagula? Agian, zerrenda bat egiten hasiko bagina, topa genitzake sistema bat bere horretan izendatzeko ezinbesteko elementuak: egon badago arreta eredu bat, egon badago gobernantza eredu bat eta baita zerbitzu eta diru-laguntza katalogo eta zorro bat ere. Hori eztabaia daezina da.

Baina sistema bat ez da bere izena bakarrik, bere izanak ere osatzen du logika hori. Eta berori erabili behar dutenek legitimatzen ez badute, identifikatzen ez badute, lidergo argirik bisualizatzen ez bada, kalifikatu al daiteke politika publiko multzo bat sistema gisa?

Ez dago identifikatua eta legitimatua den gizarte zerbitzuen sistemarik, eta, berori identifikatzen ez den heinean, zaintza erdigunean jartzen duenik ere ez. Nola eralda dezakegu daukagunetik aurrera? Zein pauso eman beharko genituzke?

Aukerak eta erronkak

Edonola ere, diagnostikoak ezin du erabat negatiboa izan. Profesional onak daukagu egunerokoan politika publikoetan pentsatzen ari direnak, eta horrek gehienetan emaitza onak ematen ditu. Egun indarrean dauden zerbitzuen kudeaketa

ongi egiten da eta horien ondorioak ere ikusgarri dira gure gizartean. Horrez gain, badira egun oraintxe identifikatu dugun trantsiziorako bidean sortzen diren aukerak, horretarako lagun dezaketenak.

Zaintza eztabaida publikoaren erdigunean kokatzen da

Koronabirusak sortutako itxialdi handiaren eta ondorengo olatu eta fase guztien ondoren, zaintza eztabaida publikoaren erdigunean kokatu da. Krisi horrek bi kontsentsu handi utzi ditu mahai gainean: osasun publikoa indartzearen beharra eta zaintzaren inguruko eztabaida sustatzearena. Hori modu diferenteetan egin edo zehaztu daiteke ondoren, baina elementu bezala agenda politikoaren erdigunean kokatu da, balkoietatik politiketara igaroz, gure imajinarioa okupatuz eta kontsentsu politiko zabaletarako aukerak baliatuz.

Zaintza sareen oihartzuna

Pandemiak herriz herriko eta auzoz auzoko esperientzia ezberdinak abian jartzea ekarri zuen: zaintza sareak deitu izan zirenak. Zaintza sareak etxean zeuden pertsonen beharrei erantzuna emateko ekimen azkarrak izan ziren, bakardadeari edo elikagaien errealitateari erantzuna eman zietenak.

Horietako batzuk hiritar ekimenez sortu ziren. Beste batzuk udal ekimenez, eta egon ziren hirugarren sektorearen ekimenez sortutakoak ere. Horien guztien ibilbideaz egindako ikerketek erakundeen bultzada azpimarratzen dute, komunitatearen artikulazioaren konbinazio argi batekin. Gehiengotik, iraunkortasuna izan da zalantza nagusia: kontestu jakin batean sortutakoak balio ote dezake beste kontestu batean aplikatzeko? Emergentsiazko begirada batekin sortutako erantzunak aplikagarri izan al daitezke emergentsia egoera desagertzen denean?

Oraindik irekita dauden galderak dira horiek. Argi da goiena da, edozein kasutan, ekimen horiek abiarazi izanak

paradigma aldaketa bat suposatu zuela ordura arteko begiradan. Paradigma aldaketa horrek komunitatearen eta administrazio publikoaren arteko harremana beste modu batera ulertzen lagundu du eta proiektu ezberdinak abian jarri ditu hori artikulatu nahian.

Zaintza ekosistemen eraikitzea

Gipuzkoan nagusiki, Gipuzkoako Foru Aldundia sustatzen ari den Etorkizuna Eraikiz ekimenaren baitan eta hainbat udalekin elkarlanean, zaintza ekosistemak direlakoen inplementazioa ikusten ari gara. Esperientzia ezberdinak abian jartzen ari diren udalen artean Pasaia, Errenteria, Azpeitia, Usurbil, Hernani edo Zestoa daude, besteak beste. Zaintza ekosistemek integrazio prozesu ezberdinak abiaraztea suposatzen dute: integrazio bertikala, arreta maila ezberdinen artekoa, eta horizontala, sistema eta esperientzia ezberdinen artekoa. Hori guztia erakunde publiko eta entitateek sustatutako proiektuak bateratu eta elkarrekintzak sortuz. Dinamika horrek garrantzitsua dirudi antolaketa forma berriak esperimentatzen hasteko, behetik gorako lanketan, sistemen eta arreta ereduen integrazio formulatan. Aukera ona izan daiteke hiru norabidetan: alde batetik, gizarte zerbitzu eta osasun sistemen arteko elkarrekintzak sustatzeko bidean; bestetik, gobernantza bide berriak topatzeko ahaleginean; azkenik, komunitatea inplikatzeko saiakeran, publikoaren eta pribatu edo komunitarioaren arteko elkarlana eta ahaleginak batuz. Horrek pertsona erdigunean jarriko duen eredurantzko bidea jorratzen lagun dezake. Aukera ona da, zalantzarik gabe.⁴

Pertsonarengan zentratutako ereduen indartzea

Pertsonarengan zentratutako arretak, funtsean, zerbitzuak, erakundearen antolaketa logikatik pentsatu beharrean, pertsonen beharretatik antolatzearen logikan pentsatzea dakar. Horren sinplea dirudien paradigma aldaketa hori zerbitzu

asko hankaz gora jartzera deituta dago. Benetako iraultza suposa dezakeelako, arreta moduak aldatuz, baina baita erai-kinak diseinatzeko modua, pertsonen parte hartze eta entzute moduak artatzekoa eta baita beste hainbat aldagai ere.

Pandemiak perspektiba hori indartu badu ere, joera lehenagotik zetorren. Gure inguruko administrazio eta elkarteek azken urteetan pertsonen oinarritzko eskubideak oinarri dituen begirada horretan dute jarrita arreta. Hala ere, ezinbestekoa da arlo horretan hirugarren sektoreari erreferentzialtasuna onartzea, bai desgaitasunaren arloko elkarreei (Gautena, esate baterako) zein adinekoen arlokoei, Matia Fundazioaren adibidearekin.⁵

Era berean, etxean egin/egon ere duaren inguruko kontsentu zabala ere hedatu da. Ez da nola artatu behar den bakarrik, baizik eta non artatu behar den ere bai. Zentzu horretan, etxeak, inguruak eta komunitateak hartu duten protagonismoa ezinbesteko giltzarria da.

Pertsonarengan
zentratutako arretak,
funtsean, zerbitzuak,
erakundearen
antolaketa logikatik
pentsatu beharrean,
pertsonen beharretatik
antolatzearen logikan
pentsatzea dakar

Egoitzen eredu berria (Espainiako Gobernuak sustatutako akordioa)

Orain dela oso denbora gutxi onartu du Espainiako Gobernuak egoitza eta zerbitzuen akreditazio eta kalitaterako irizpide komunei buruzko dokumentua (2022). Bertan printzipio gisa formulatzen dira pertsonaren duintasuna, pertsonalizazioa eta pertsonarengan zentratutako arreta. *A priori*, albiste onak dira. Eztabaida dezente dago horrek suposa dezakeen eskumen inbasioaren inguruan, baina, egoitzetan fokua jarri den honetan, irizpide horien inguruan eztabaida sustatu eta kontsentu komun bat eraikitzeko ahalegina egitea ez da edonolokoa.

Hirugarren sektorearen heldutasuna

Gure lurraldean hirugarren sektore indartsua daukagu. Edozein lurralde historikotan, gainera. Eta kontsentsu politikoa zabala da horren gizarte eraldaketa eta inpaktuaz. Askotan hirugarren sektorearen ekintzak administrazioaren beraren aurretik joan izan dira, berrikuntzari edo antolaketari dago-kienez. Indar hori aprobetxatu beharra dago, elkarrekintza-rako espazioetatik harago, hasierako funtzioa errekuperatu eta traktore indar izan daitezen.

12/2008 Legeak 14 urte

Gizarte zerbitzuen EAEko legeak 14 urte betetzen ditu aurt-en. Nerabezaroan sartzen den honetan, aukera polita za-baltzen da eztabaida publiko eta errebisiorako. Legeak urte hauetan bere potentzialitateak erakutsi ditu, baina baita bere mugak ere. Alde horretatik, aukera ezin hobea da horren inguruko eztabaida politiko heldu eta lasaiari ekiteko, modu horretan zaintza erdigunean izango duen beste marko bati hasiera emango dioten proposamenak ikusi, eztabaidatu eta landu ahal izateko.⁶

Nora iritsi beharko genuke?

Artikuluaren hasieratik marraztu dugu zein den helburua: zaintza sistema bat artikulatu eta horretarako egiturak di-seinatzea. Eta hori nola lortu? Galdera horren erantzuna konplexua da, eta ez da egun batetik bestera egingo den zerbait. Edonola ere, garrantzitsua da bide horretan pausoak ematen hastea, *trantsizio* bat marrazten joatea, gako diren esparru batzuetan.

Zaintza sistema artikulatu: gobernantza berri bat

Zaintzen sistema izango denak ezinbestekoa du gobernantza berri bat.

Gobernantza berri honen oinarria orain indarrean dagoen eskumen banaketatik arretaren jarraitutasuna bermatuko duen banaketa batera igarotzea izan beharko litzateke. Ez da nahikoa egun gizarte zerbitzuen sisteman banatuta dauden eskumenak batzearekin,⁷ guztiz beharrezkoa izango da hori egungo bi sistemen arteko harremana beste modu batean artikulatuz pentsatzea: osasun sistemaren eta gizarte zerbitzuen artean.

Horrela, arreta ereduaren eta horren jarraitutasunean begirada jarrita, beste eskumen egitura batean pentsatzen joan beharko da, beste lan egiteko modu bat bermatuko duena. Pertsona erdigunean jarriz, horren arretarako behar diren baliabideak gertutasunez kudeatuko dituen. Finantzaketa iturri bakar batekin, kudeaketa arazoak gutxituz eskubideak bermatu ahal izateko. Eta gainerako eragileekin modu artikulatuan lan egiteko gai izango dena.

Gainerako erreformak garrantzitsuak izanik ere, gobernantzan pausoak ematen joateak eragingo du aldaketak egiturazkoak eta epe luzekoak izatea. Horretarako oso garrantzitsuak izango da egun abian dauden esperientziazko proiektuetan ikusten ari garen emaitzak sistemen egituretan barneratzea eta bertan eta bertatik aldaketak eragitea. Esperientziazko aukera asko jartzen ari da mahai gainean. Eztabaida politikoak bere denborak behar dituen honetan, aldaketarako bide ezin hobeak izan daiteke. Izan dadila egituretan ere.

Harremanak birpentsatu

Funtsean, Javier Yanguasek (2021) bere azken liburuan esan bezala, harremanak birpentsatu behar ditugu, arreta ereduaren birpentsa dezagun. Harremanak birpentsatzeak gure beharrak beste modu batera adierazi eta konpontzen saiatzea esan nahi du. Norberaren zaugarritasuna onartu eta elkarrekin beharra adieraziz, zaintza egunerokoan proiektatuz.

Bide horretan etxeak zerbitzuz josi behar dira, eta zentroak etxe bihurtu. Horretarako behar da arreta ereduaren aldaketa

bat, pertsona erdigunean jarritz, nahiak eta desioak entzunez, partaidetza bideak irekiz... Egun 'pertsonalizazioa' izenez eza-gutzen dugun hori praktikara eraman behar da, eguneroko praktikak beste modu batera entzun eta partekatuz.

Eta hori guztia komunitatearekin egin beharra dago, elkarrekin harremanak birpentsatze horretan, fisikoki gertuen ditugunekin harremanak zainduz eta landuz, sareak eratuz, solidaritatea artikulatuz. Eta, horretarako, komunitatea indartzeko, lan egin behar da. Sustatzaile eta dinamizatzaileak behar dira, harreman horiek auzo zein herrietan saretzen lagunduko dutenak, komunitatea eraikiz. Abiarazi beharko dira horretarako partaidetza mekanismoak, Lucía Martínez Virto eta Maite Huertak (2022) dioten bezala. Landu beharko da hiritartasun aktiboa, Mayte Sancho eta Elena del Barriok (2022) dioten bezala. Edo artikulatu beharko da, behin betiko eta azken helburu gisa, zaintzen demokratizazioa, Emagin kooperatibak zabal aztertu bezala (2020).

Trantsizio horrek, beraz, zera eskatuko digu: zaintzari baliola eman eta bultzatzea, horretarako eskema berriak sustatuz. Gizartearen zahartzeak, edo Marta Luxanek esan bezala, bizitzaren demokratizazioak, agertoki berri batean jarri gaitu. Bihur gaitezen aktore, zuzendari eta ekoizle eta eman ditza-gun agertoki horretan kokatzeko behar ditugun pausoak. Geroak eskertuko digu, baina baita orainak ere. 

Oharrak

1. Gai hau zabalago landua izan da, besteak beste *Euskal demokrazia patriarkala* liburuan (Goikoetxea *et al.* 2020), eta baita Berriak, Elkarrek eta Jakinek elkarrekin argitaratutako *Pentsioen geroa. Eztabaida sozial baterako gakoak* liburuan ere (Fernandez 2020).
2. Mayte Sancho edo Pilar Rodríguezen lanak irakur daitezke zentzu horretan, besteak beste.
3. Oraindik zailagoa beraz Euskal Herri osoa hartuko duen eredia topatzea, nahiz eta saiakera bat egon den Eusko Ikaskuntzaren men-deurrenako kongresuak sustatutako ikerketa ildoan haritik (Arin *et al.* 2021).
4. Zaintza Herri Lab ekimena.
5. Azkenaldian asko entzun dira pertsonarengan zentratutako arretan oinarritzen den eredia edo, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat eragilerekin batera landutako pertsonalizazioaren inguruko gida.
6. Hori bera proposatzen zuen Manuel Aguilarrek (2019) Gizarte Zerbitzuen Legearen hamargarren urteurrena ospatzeko Eusko Legebiltzarra antolatutako jardunaldietan.
7. Horretaz zabalago hitz egiten dut *El archipiélago del bienestar. Los servicios sociales en el País Vasco* liburuan (2019).

Bibliografia

- Aguilar, M. (2019): 'Ziaboga ala txalupa aldaketa? Gizarte zerbitzuen dilemak', in *Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 10. urteurrena*, Gasteiz, Eusko Legebiltzarra, 39-58.
- Arin, A.; Berasategui, M.; Martínez Virto, L.; Melito, L.; Toña, Á.; Zalakain, J. (2021): 'Envejecimiento y atención a la dependencia en los territorios de Euskal Herria', *Zerbitzuan* 74, 115-132 (<https://doi.org/10.5569/1134-7147.74.07>).
- Arrieta, F. (2019): *El archipiélago del bienestar. Los servicios sociales en el País Vasco*, Madril, Catarata.
- Camps, V. (2021): *Tiempo de cuidados*, Bartzelona, Arpa.
- Del Barrio, E.; Sancho, M. (2022): 'Ciudadanía activa: respuesta al edadismo desde el papel social de las personas mayores', in *Servicios sociales y vulnerabilidad frente a la pandemia*, Donostia, Eguia Careaga Fundazioa, 117-133.
- Emagin (2020): *Zaintza lanen demokratizaziorantz*, Andoain, Emagin.

- Fantova, F. (2008): *Sistemas públicos de servicios sociales. Nuevos derechos, nuevas respuestas*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- Fernandez, J. (2020): *Pentsioen geroa. Eztabaida sozial baterako gakoak*, Andoain eta Donostia, Berria, Elkar eta Jakin. Aleka bilduma 9.
- Gobierno de España (2022): *Acuerdo sobre Criterios comunes de acreditación y calidad de los centros y servicios del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD)*, Madril, Espainiako Gobernua.
- Goikoetxea, J.; Lujanbio, L.; Rodriguez, Z.; Garai, E. (2020): *Euskal demokrazia patriarkala*, Donostia, Elkar.
- Martínez Virto, L.; Huerta, M. (2022): 'Los cuidados en y por la comunidad', in *Servicios sociales y vulnerabilidad frente a la pandemia*, Donostia, Eguia Careaga Fundazioa, 103-116.
- Yanguas, J. (2021): *Pasos hacia una nueva vejez*, Bartzelona, Destino.

Euskara: ezagutza ez da nahikoa izango

Garikoitz Goikoetxea Etxeberria

Uemako euskara-teknikaria


Etorkizunari begira jartzean, bi elementu uztartu behar dira ezinbestean: desioa eta errealismoa, anbizioa eta aukera, nahia eta ahalmena. Hogei urte barru zein izango da euskararen egoera? Gertuago izango ote da *normalizazioa*? Diagnostiko bat egiteko ariketa da honako hau, *ametsak doitzeko* ariketa bat. Behar da ametsa ere, jakina: grina, aurrera egiteko indarra. Baina ametsak, bertan zarta ez dadin, behar du diagnostiko errealista bat oinarrian. Zimendu bat.

Zer bidetan goazen

2040ko egoera nolakoa izan daitekeen marrazteko, errepara diezaiogun norabideari: zer bidetan goazen. Euskararen ezagutza zabaltzea izan da urteotako apustu nagusia, eta eman du emaitza –jakina, ez leku guztietan hein berekoa–: 25 urtean 225.000 herritar gehiagok dakite euskaraz, Inkesta Soziolinguistikoaren arabera. Igoera esanguratsua da: euskaraz dakitenen kopurua %42 areagotu da. Gizarte osoa oinarri hartuta, hara emaitza: euskaraz dakitenak %22tik %28ra igo dira. Datu horietan 16 urtetik gorako herritarrak daude aintzat hartuta; beraz, segurutzat jo daiteke portzentaje horiek gorantz segituko dutela datozen urteetan, belaunaldi berrien eskutik.


Euskara: ezagutza ez da nahikoa izango

1. grafikoa. Euskaraz dakiten herritarrek (1991-2016)



Euskararen ezagutza baino gehiago hazi da ulermena: eus-
kara ulertzeko bai baina hitz egiteko gai ez direnen ehune-
koa bikoiztu baino gehiago egin da 25 urtean. Nolanahi ere,
oraindik euskal herritar gehienak (%55) ez dira gai euskara
ulertzeko, nahiz eta ehunkoa jaisten ari den. Bestela esanda:
helduen euskalduntzean ahalegin handia egin beharko da
hurrengo hamarkadetan ere.

2. grafikoa. Euskararen ezagutza (1991-2016)



Ezagutzatik gaitasunera

Euskararen erabilera aztertzeko, ordea, komeni da ezagutzatik harago begiratzea. Izan ere, gauza bat da euskara ezagutzea, euskaraz gutxi-asko jakitea, eta bestea, gaitasun egokia izatea, euskaraz gutxieneko erosotasuna edukitzea. Eta ezauzarri hori giltzarria da euskara erabiltzeko.


Iñaki Lurrebaso Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak oraintsu egin du planteamendu bat hizkuntza-gaitasunari erreparatzeko, non *continuum*

gisa uztartzen diren euskararen ezagutza –arestian aipatutako hiru tipologiak: elebidunak, ia elebidunak eta erdaldun elebakarrak– eta elebidunen erraztasun erlatiboa –euskaraz ala erdaraz, zein hizkuntzatan egiten duten aiseago–. Begirada horrek bistan jartzen du egungo desoreka: ezagutzen dago oso hutsune handia –herriar gehienek ez dute euskara ulertu ere egiten–, baina elebidunen gaitasunean ere badago hutsunea, elebidunen artean gehiago baitira erdaraz errazago egiten dutenak euskaraz errazago mintzo direnak baino.

Interesgarria da 25 urtean zer gertatu den aztertzea. Grafiakoaren ertz batean, jaitsiera nabarmena izan dute erdaldun elebakarrek; beste ertzean, euskaldun elebakarrak desagertu egin dira –16 urtez gorako herritarren datuak dira–. Gainerako lau tipologiak hedatu dira, baina ez hein berean: zenbat eta ezkerrera, erdararen alderago, handiagoa da irabazia. Erdaldun hartzaileek izan dute hazkunderik handiena, eta elebidunetan ere hori da hurrenkera: erdal elebidunak ugartu dira gehien, erdaraz hobeto moldatzen direnak; ondoren, erdaraz eta euskaraz gisa berean egiten dutenak; eta gutxien, euskaraz hobeto moldatzen diren elebidunak.

Euskararen erabilera aztertzeko, komeni da ezagutzatik harago begiratzea. Izan ere, gauza bat da euskara ezagutzea, eta bestea, gaitasun egokia izatea, euskaraz gutxieneko erosotasuna edukitzea

3. grafikoa. Euskararen ezagutza eta erraztasun erlatiboa (1991-2016)



Hiztun-tipologia horiek multzokatu egin dira trebetasunen arabera, eboluzioa hobeto ikuste aldera. Hazkunderik handiena euskararen ulermenak izan du, ia hamabost puntukoa (%30etik %45era), eta hein txikiagoan hazi da euskaraz hitz egiteko gai diren herritarren ehunekoa, sei puntu (%22tik %28ra). Horiek izan dira 25 urteotako irabaziak. Azken multzoan, berriz, ez dago hazkunderik: euskaraz errazago egiten duen populazioa ez da areagotu, euskal elebidunek izandako igoeratzok ez baitu berdindu euskaldun elebakarren galera.

Eboluzio hori are nabarmenago ikusten da belaunaldi berrietan, horiek baitira aldaketaren bultzatzaile nagusiak. Euskararen ezagutza eta ulermena oso nabarmen hedatu da adin-talde gazteetan: hori izan da urteotako arrakastarik handiena. Batez ere eskolaren ekarpena izan da ezagutza horrela hedatzea, baina, trebetasunen ikuspegitik, muga handiak dauzka horrek. Gazteak eta adinekoak alderatuta ikusten da norabidea: 65 urtetik gorako herritarren artean, %20k dakite euskaraz, eta 16-24 urtekoetan, ia hiru aldiz gehiagok, %55ek; euskaraz errazago egiten dutenen ehunekoa, ordea, %9tik %13ra soilik igo da. Bestela esanda: adinekoetan gutxiengoa dira euskaldunak, baina euskaraz

dakitenen ia erdiek euskaraz hitz egiten dute aiseen; gazteen askoz gehiagok dakite euskaraz, baina gehienek erdaraz egiten dute erosoago.

1. taula: Euskarazko trebetasunak (1991-2016)

	1991				2016			
	%	Euskara ulertu	Euskaraz hitz egin	Euskaraz erosoago hitz egin	%	Euskara ulertu	Euskaraz hitz egin	Euskaraz erosoago hitz egin
Erdaldun elebakarrak	69,9				55,2			
Erdaldun hartzaileak	7,7	30,1	22,4	7,8	16,4	44,8	28,4	7,4
Erdal elebidunak	8,4				12,6			
Elebidun orekatuak	6,2				8,4			
Euskal elebidunak	6,8				7,4			
Euskaldun elebakarrak	1,0				0,0			

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Egileak landua.


Inguruaren garrantzia

Erosotasunak badu beste alde bat ere: ingurua. Batek egin dezake euskaraz aise, baina inguruan ez badu euskaraz aritzeko aukera handirik, nekez erabiliko du euskara; eta, alderantziz, inguru gehiena euskalduna bada eta euskara inguruko hizkuntza nagusia, horrek berak bultzatuko du hiztuna euskarara. Nolako ingurua dute euskaldunek? Aldaketa nabarmena gertatu da hor, euskararen ezagutza hedatzearekin batera. 1991n, Euskal Herriko euskaldun gehienak hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan bizi ziren, herritar gehienak euskaldunak diren eremuetan –hirugarren gunean %50-80 dira euskaldunak, eta laugarrenean, %80tik gora-. Orain, berriz, euskaldun gehienak lehen eta bigarren gune soziolinguistikoetan bizi dira, hau da, euskaldunak gutxiengoa diren udalerrietan –bigarren gunean %20-50 dira euskaldunak, eta lehenengoan, %20 baino gutxiago-.

Euskara: ezagutza ez da nahikoa izango

Bi aldeko txanpona da aldaketa hori: batetik, aurrerapau-soa, ezbairik gabe, euskararen ezagutza oso apala zen lekue-tan gero eta herritar gehiagok baitakite euskaraz, batez ere belaunaldi berriek, eta etorkizunerako oinarria jartzen baitu horrek; bestetik, ordea, gaur egungo erabilerari begiratuta, eremu horietan nekeza da egiturazko urratsak egitea, eus-kaldunak gutxiengoa izanik.

4. grafikoa: Euskaldunak zein eremu soziolinguistikotan bizi diren (1991-2016)




Kontuan hartu behar da, gainera, erosotasunarekin lotuta-ko bi alderdi horiek, norbere erraztasunarena eta inguruko euskaldun-dentsitatearena, uztartuta daudela maiz: oro har, eremurik euskaldunenetan gehiago dira euskaraz erosoago moldatzen diren elebidunak; euskaldun-dentsitate apalago-ko lekuetan, berriz, elebidun gehienak erosoago moldatzen dira erdaraz. Ez da harritzekoa: eremu erdaldunagoetan, euskaldun gehienek bigarren hizkuntza gisa ikasi dute eus-kara, eskolan, eta erabiltzeko aukera txikia izateak gaitasuna atzentzea dakar. Katearen bi begi baitira gaitasuna eta erabi-lera: aurrera egiteko, bata bestea behar du.

Sustapena eta interesa

Gaitasuna, ingurua, eta bada hirugarren erpin bat euskararen erabileran garrantzi handikoa: motibazioa, jarrera, gogoia. Euskarari buruzko jarreretan bada joera argi bat: euskaraz dakitenek aldeketasun handiagoa izan ohi dute euskara sustatzeko, eta interesa ere handiagoa. Bai. Baina hori ere aldatzen ari ote da? Hala diote datuek, gazte euskaldunengan aldaketa nabari dela. Euskara sustatzeari buruzko jarreran jaitsiera txiki bat nabari da, baina diferentzia adierazgarriagoa da euskararekiko interesean: 25 urtetik gora, hiru euskaldunetik bik oso interes handia dute euskararekin, baina, adin horretatik behera, %46ra jaisten da ehunekoa; interesik ez dutenen ehunekoa zerbait handiagoa da, baina batik bat tarteko jarrerak hartzen du pisua (%39).

5. grafikoa. Euskaldunen jarrera euskara sustatzeari buruz, eta euskararekiko interesa



Gaitasunari, inguruari eta jarrerei buruzko datuak ikusita, ez da harritzekoa erabileraren egoera: geldialdian dago ka-lean zein etxean. Ezagutzaren eta erabileraren arteko koska handitzen ari da, bai, eta ezineguna sortzen du horrek, baina oraintxe ikusitako datuek zerikusi handia daukate horretan.

2040an zer

Hogei urte barruko egoera irudikatzeko, ezinbestekoa da demografiari erreparatzea, biztanlerian zer aldaketa gertatuko diren ikustea. Demografia-proiekzioek diote biztanleria hazi egingo dela hurrengo urteetan, hiru joera esanguratsurekin: batetik, biztanleriaren igoera hori migrazioaren eskutik iritsiko dela, ez biztanleriaren berezko hazkundeagatik; bigarrenik, zahartze-tasa areagotu egingo dela, jaiotza-tasa apalak eta bizi-itxaropena handitzeak eraginda; eta, hirugarrenik, jaiotza-kopuruan pisu handiagoa hartuko dutela jatorri atzerritarreko sendiek.

Espero izatekoa da
ezagutzak gorantz
jarraituko duela datozen
urteetan, baina,
norabidea ikusita, oso
litekeena da ezagutzaren
eta erabileraren arteko
tarteareagotzea, azken
urteetan gertatu den eran

Ezbairik gabe, hiru joera horiek bete-betean eragingo diote egoera soziolinguistikoari. Izatez, gaur bertan ere nabari dira norabide horien zantzuak, eta aldaketa nabarmena ekartzen ari dira.

2040an zer, ezagutzari erreparatu ohi zaio lehenik: zenbatek jakingo duten euskaraz. Eusko Jaurlaritzak 2016an egin zuen ezagutzaren bilakaerari buruzko proiektio bat, *Eta hemendik*

aurrera zer? dokumentuaren barruan, 2036a jomuga hartuta. Haren arabera, EAEn euskaldunak %51 izango dira 2036an –5 urtetik gorako herritarrek kontuan hartuta–. Finean, proiektzio horren arabera, azken hamarkadetako bilakaeraren antzekoa izango da datozen urteetan ere: orain artekoaren antzeko erritmoan haziko da euskararen ezagutza. Hurbilketa gisa eboluzio hori Euskal Herrira eramanda, honako hau litzateke emaitza: 2036an, 16 urtetik gorako herritarren %35-40 lirateke euskaldunak, 2016an baino hamar bat puntu gehiago.

Ezagutzari buruzko datuak dira horiek. Besterik da gaitasuna, arestian esan denez. Eta, beraz, ikusi beharko da

zenbatekoa den aukera euskarazko ezagutza hori erabilera-
ra eramateko: hiztunek nolako baldintzak izango dituzten,
alegia. Alde horretatik, uste izatekoa da egungo joera batzuk
areagotu egingo direla datozen urteetan: euskaldun gehienek
ez dute lehen hizkuntza euskara izango –edo ez euskara soilik
behintzat, gero eta gehiagok jasotzen baitituzte euskara eta
gaztelania aldi berean–; euskaldun gehienak ez dira erosoan
euskaraz moldatuko –erdaraz egingo dute aiseago, edo eus-
karaz eta erdaraz berdintsu–; euskaldun gehienak bizi diren
lekuetan euskaldunak ez dira gehiengo handia izango –nahiz
eta gero eta gehiago izango diren eremu horietan ere–. Erabi-
leran pauso esanguratsuak emateko trabak dira horiek denak.

Bestela esanda: espero izatekoa da ezagutzak gorantz jarrai-
tuko duela datozen urteetan, baina, norabidea ikusita, oso
litekeena da ezagutzaren eta erabileraren arteko tartea area-
gotzea, azken urteetan gertatu den eran. Ezinegona sortzen
du horrek, jakina, baina ez da harritzeko joera. Aipatu berri
ditugun faktoreei erreparatu behar zaie: erraztasuna, ingurua,
motibazioa... Hor eragin behar da, belaunaldi berriek euska-
raz gutxi egiten (omen) dutelako lantua jotzen hasi aurretik.

Datorrenari begira

Zenbakietatik harago, garrantzitsua da 2040an giltzarri izan
daitezkeen joera batzuei bereziki erreparatzea, asko bal-
dintzatuko dutelako datozen urteetako bilakaera soziolin-
guistikoa, eta mugarri izango direlako euskararen indarbe-
rritze-prozesuan. Badira eremu gehiago ere, baina hemen
funtsezko lau arlo hartuko ditugu aztergai, urteotan zutabe
izango direnak.


Transmisioa

Hizkuntza indarberritzeko oinarri nagusietako bat da euskara
belaunaldi berriei pasatzea. Azkenaldian maiz aipatzen da
bidegurutzearen ideia, eta bidegurutze horren erdigunean

dago transmisioaren gaia: euskara eskolan jaso duten euskaldunen multzo handi horrek zer jokabide hartu du eta hartuko du bere seme-alabekin? Alegia, eskolaren bidez martxan jarritako gurpila hurrengo pausora igaroko da eta euskara eskolan ikasi duten euskaldunen seme-alabek euskara izango dute lehen hizkuntza, ala berriro hasi beharko da gurpilari hutsetik eragiten?

Gurasoen hizkuntza-soslaiaaren arabera, alde handia dago belaunez belauneko hizkuntza-transmisioan. Guraso biak euskaldunak direnean eta lehen hizkuntza euskara dutenean, orduan bermatua dago euskararen belaunez belauneko transmisioa –gehienetan euskara transmititzen dute, erdararik gabe–. Gurasoen lehen hizkuntza aldatzearekin edo euskara gurasoetako bakarrek jakitearekin, aldaketak gertatzen dira transmisioan: gutxitu egiten da euskara hutsezko transmisioa, eta handitu bi hizkuntzen transmisioa –areago, transmisioaren haustura ere ageri da soslai horietako gurasoen artean–.

6. grafikoa: 3-15 urteko seme-alabak dituzten gurasoen hizkuntza transmisioa, gurasoen ezagutzaren eta lehen hizkuntzaren arabera (2016)



Kontua zera da, zein den bikote-tipologia bakoitzaren pisa, eta zer gertatuko den hurrengo urteetan. Gaur-gaurkoz,

bikote erdaldunena da tipologia nagusia, eta horietan ez dago euskararen belaunez belauneko transmisiorik –horrek ez du esan nahi, jakina, bikote horiek ez dezaketenik ezer egin euskarari etxean tokia egiteko eta seme-alaben jokabideetan eragiteko–. Ezagutza hedatzearekin, espero izatekoa da gutxiago izango direla bikote erdaldunak, eta gehiago bikote mistoak: guraso bat euskalduna eta bestea ez, euskara eskolan ikasitako gurasoak... Eta hor dago erronka, hain zuzen ere: soslai horretako gurasoetan nola eragin euskararen transmisioan.

Hutsuneak daude eremu horretan. Bat: herritar horiek, eskola-garaia bukatu eta guraso izan bitarteko urteetan, zer harreman dute euskararekin? Erabilerarik ezak gaitasuna atzentzea dakar, eta guraso horiek, eskola bukatu ondoren, zenbat erabili dute euskara? Hor sartzen da, besteak beste, lan-munduan egin beharreko ahalegina. Bi: eremu soziolinguistikoak badu garrantzia transmisioan ere, antzeko ezaugarrietako gurasoek euskara gehiago transmititzen baitute eremu euskaldunagoetan –seguruenik, erabilerari handiagoak, gaitasun handiagoak eta euskara transmititzeko egokiera handiagoak eraginda–, baina soslai horietako guraso gehienak ez dira eremu euskaldunetan bizi. Hiru: transmisioaren gaia emantzat jo da askotan, eta datuak ez dira txarrak, baina, daramagun norabidean, eta gurasoen soslaia nola aldatu(ko) den ikusita, derrigor sustatu behar da euskararen transmisioa, gurasoak horren kontziente izan daitezen, eta beren seme-alabek etxean euskara jaso dezaten, gorpilari eskolan eragiten hasi gabe. Hor izango du aurrera egiteko pauso erabakigarria euskarak. Eta lau: transmisioari buruzko ikuspegia zabaldu beharko litzateke, eta, ume-umetan euskara ematetik harago, hurrengo urteetako jardunarekin ere lotu: gurasoen arteko hizkuntza zein den, umea koskortzen doan eran nola egiten dioten, etxean zer ikusten duten... Hor ere bada zertan eragin, gurasoen erabilerarekin, ohiturekin eta gaitasunarekin lotuta.

Migrazio-mugimenduak

Biztanleriaren aldaketek zuzenean eragiten diote egoera soziolinguistikoari, eta migrazioek ere bai, beraz. Kanpo-migrazioek, salbuespenak salbuespen, erdaldunen zakua hantitzea dakarte: migratzaile gehienek badakite gaztelania edo frantsesa, eta ez dakitenek azkar ikasten dute, premiak eta egokierak eraginda. Euskararekin ez dago halakorik, oro har.

Migrazioen eragina egitatea da jada, eta datozen urteetan areagotu egingo da, biztanleria-proiektzioen arabera migrazioaren bidez areagotuko baita Euskal Herriko biztanleria. Heldu beharreko gaia da, beraz: harrera-prozesuetan zer leku daukan euskarak, zer egokiera dagoen euskara edo gaztelania/frantsesa ikasteko, nolako premia dagoen euskara ikasteko... Ezintasun horiek guztiak bistan jarri dituzte migrazioek. Besterik da euskararen gaitzak migratzaileen bizkar jartzea.

Migrazioekin lotuta, badira arreta bereziz aztertu beharreko bi ertz.


Batetik, jaiotzetan izaten ari den aldaketa: gero eta ume gehiagok dituzte atzerrian sortutako gurasoak. Adierazgarriak dira Eustaten datuak: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

2021ean jaiotako umeen %27k beste nazionalitate bateko ama zuten. Azken bi hamarkadetan etengabe areagotu da migratzaileen seme-alaben ehunekoa. Hara: 1996an, jaiotako umeen %2k zuten ama beste nazionalitate batekoa; 2008an, %14k; eta 2021ean, %27k. Joe-
ra hori azaltzeko, kontuan hartu behar dira bi faktore: batetik, migratzaile gehienak gaz-


Migrazioen eragina egitatea da jada, eta datozen urteetan areagotu egingo da, proiektzioen arabera migrazioaren bidez areagotuko baita Euskal Herriko biztanleria

tetan iritsi ohi dira, guraso izateko adinean edo gertu –adin gazteagoan izan ohi dira guraso–; bestetik, guraso bakoitzeko ume kopurua ere handiagoa dute. Horrek dakar migrazioen eragina nabarmenagoa izatea jaiotzetan.

7. grafikoa. EAEko jaiotzak, amaren nazionalitatearen arabera



8. grafikoa. EAEko udalerri euskaldunetako jaiotzak, amaren nazionalitatearen arabera



Euskararen ikuspegitik, jaiotzetan izaten ari den aldaketa horrek inpaktu handiagoa du udalerri euskaldunetan. Atzerrian jaiotako gurasoak dituzten umeen ehunekoa nabarmen biderkatu da udalerri horietan ere, nahiz eta datu orokorretatik zerbait behera dagoen (%22). Euskararen ezagutza unibertsalizaziotik gertu dago udalerri euskaldunetako be-launaldi berrietan, eta, areago, gehienek euskara dute lehen

hizkuntza eta maizenik erabiltzen dutena; beste hizkuntza-biografia bat dute jatorri atzeritarreko familietan jaiotako seme-alabek, eta aldaketa ekarriko du horrek.

Familia horiek jaso beharko lukete euskararen indarberritze-prozesuari buruzko kontakizun bat. Ba al dakite hemen badela hizkuntza gutxitu bat, hamarkadetan zapaldua eta berreskuratzeko bidean dagoena? Ba al dakite zergatik eta zertarako ari garen euskara sustatzeko politiketan? Ba al dakite Euskal Herria badenik? Nork egiten die gonbita euskara ikasteko? Nork nabarmentzen die seme-alabei euskararako ateak irekitzearen garrantzia? Zer baliabide ditugu herri-tar horiei euskara gerturatzeko? Herritar horien harreraren badira adibide eredugarriak, baina, oro har, agerikoak dira hutsuneak. Zer bilakaera datorren ikusita, heldu beharreko eremuetako bat da.

Migrazioekin lotuta, badago beste ertz bat, kuantitatiboki pisu txikiagoa daukana, baina ikuspegi kualitatibotik funtsezkoa dena: arnaguneetarako barne-migrazioak. Duela hamarkada batzuk, emigrazio handia izan zuten arnagune ugari, belaunaldi gazteek herri handiagoetara jotzean; azken urteetan, berriz, eremu urbanoagoetatik jo dute herritar ugari arnaguneetara. Horrek biziberritu egin ditu udalerri horietako asko: jaiotza-kopuruak gora egin du, biztanleria hazi da, eta oinarritzko zerbitzuak indartzeko modua izan dute herri batzuek (ikastetxeak, ostalaritza...). Datu bat, aldaketaren neurria hartzeko: 2000ko hamarkadaren hasieran, EAEko arnaguneetan bizi ziren biztanle gehienak udalerri horietan jaioak ziren (%59); orain, erdiak eskas dira (%50) –kontuan hartu behar da iritsi diren familia berrien seme-alabak herrian jaioak direla askotan–.

Ikuspegi soziolinguistikotik, atzerakada ekarri du horrek: euskararen ezagutzak behera egin du, eta galera handiagoa gertatu da lehen hizkuntzan eta etxeko erabileran, iritsi diren biztanleen hizkuntza-profilarekin lotuta –euskaldunak direnen kasuan ere, beste egoera soziolinguistikoko batetik datoz, eta askok euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi dute, erdaraz

erraztasun handiagoa daukate, eta gertuko eremuetan erdaraz aritzeko ohitura dute (familiar, lagunartean...)-.

Bestela esanda: arnasguneetan eragin bikoitza dute migrazioek, eta beste herrialde batzuetako bizilagunen etorrerak baino eragin handiagoa izan dezake Euskal Herriko beste eremu batzuetako herritarren iritsierak, besteak beste, gehiago parte hartzen dutelako herriko jardueretan eta harreman handiagoak izan ohi dituztelako kalean. Arnasguneen garapenari eta hirigintzak duen eraginari tentuz erreparatu beharko zaie datozen urteetan, galera hori eteteko.

Teknologia eta ikus-entzunezkoak

2040a jomugan hartuta, ezinbestekoa da aldaketa teknologikoei erreparatzea. Hogei urtean eragin nabarmena izan dute berritasun teknologikoei gure egunerokoan, eta, beraz, hizkuntzari ere eragin diote. Hala izango da datozen hamarkadetan ere. Iragarpenek diote aldaketa handiak izango direla gure etxeetan 2040rako: robotak, beren kabuz funtzionatuko duten etxetresnak, ikus-entzunezkoak kontsumitzeko azpiegitura handiak... Eta hizkuntza? Alegia, zein hizkuntzatan komunikatuko gara gailu horiekin? Gailu horiek nola eragingo dute eguneroko harremanetan?


Aipamen berezia merezi du hizkuntza-teknologiaren gaiak. Itzultzaile neuronalak iraultza handia ekarri du hainbat eremutara, eta espero izatekoa da aldaketa handiagoak etorriko direla datozen urteetan adimen artifizialaren eskutik. Kontua da teknologia hori nola baliatu euskararen aldera. Zeren aukera eta arrisku izan baitaiteke: aukera, euskara ulertzen ez dutenekin zubia egiteko, geurea zabaltzeko eta zernahi jarduera euskaraz egiteko, euskaraz ez dakitenekin ulermenaren bermatuta; baina arrisku, euskara ikastearen baliagarritasuna ezbaian jar baitetzake erdaldunen aurrean, euskararik jakin gabe euskarazkoa ulertzeko modua izanik. Oreka topatzea da kontua.

Ikus-entzunezkoen eremuan gertatu da aldaketarik handienetako bat azken urteetan: sakelako telefonoak, sare sozialak,


online plataformak... Hizkuntzaren ikuspegitik aldaketa handia ekarri dute. Aurrera ezean atzera goazela, hori bete-betean ari da gertatzen ikus-entzunezkoetan: erdarazko eskaintza nabarmen areagotu eta zabaldu da urteotan, baina euskarazkoa, apenas.

Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean inkesta zabal bat egin dugu, mankomunitateko herrietako 10-18 urteko gaztetxoek kontsumoa aztertzeko (11.600 inkesta), eta badira arretaz aztertu beharreko emaitzak. Hiru erpinetan gogoeta batzuk. Bat: marrazki bizidunen kontsumoa gaztelaniarantz jotzen ari da, eta Lehen Hezkuntzan (4. mailatik 6. mailara) zazpitik bakarrik ikusi ditu azken marrazki bizidunak euskaraz –Clan gaztelaniako kateak bikoiztu egiten du ETB3ren audientzia–. Bi: hiru ikasletik bi Netflixen ohiko kontsumitzaileak dira, eta hor ikusi ohi dituzte serieak; lautik hiruk gaztelaniaz ikusten dituzte, eta Batxilergoan ia laurdenek ikusten dituzte ingelesez. Eta hiru: sare sozialetan, kontsumo nagusia gaztelaniazkoa da alde handiz (Youtuben, %71 gaztelaniaz eta %9 euskaraz), eta gaztetxoek eurek ere erdaraz igotzen dituzte eduki gehienak sare sozialetara, nahiz eta ahozko harremanetan euskara duten hizkuntza nagusia.

9. grafikoa. Azken marrazki biziduna edo seriea ikusteko hizkuntza, irakastaldiaren arabera



10. grafikoa. Sare sozialetan edukiak ikusteko hizkuntza



Tentuz aztertu beharrekoa da ikus-entzunezkoetako kontsumoak eta ohiturek nolako eragina duten mintzajardunean, batez ere adin gazteenetan. Izatez, ikerketaren abiapuntua hori bera izan da: hainbat eskolatan sumatu dute ikus-entzunezkoen gaztelaniazko kontsumoak eragin handia daukala neska-mutikoen hizkuntza-erabileran, -ohituretan eta -erregistroetan. Datozen urteei begira, beraz, ikus-entzunezkoek egunerokoan duten lekua ikusita, zaindu beharreko ardatza da, ezbairik gabe, eta euskarazko eskaintzak indarra non egin behar duen aztertu. Argi baitago euskarazko eskaintza ez dela erdarazkoaren parera hurbildu ere egingo; beraz, kopurutan ez, kualitatiboki landu behar dira euskarazko edukiak, lehen-tasunezko eremuak ondo identifikatuta.

Hautua elikatu

Iraganeko kontutzat har daiteke akaso, baina, daramagun bilakaeran, ezinbestekoa da euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea. Ikusi ditugun datuek eta joerek zera uzten dute agerian: Euskal Herriko leku gehien-gehienetan, Euskal Herriko euskaldun gehienentzat, hautu kontzientea izango da euskaraz egitea, edo ez dute euskaraz egingo. Hautu kontzientea ez egiteak, inertziak, hizkuntza hegemonikora eramaten du.

Motiboak behar dituzte euskaldunek. Erdara noranahiko hizkuntza eroso duen euskaldunak, erdaraz hobeto moldatzen den eta inguru gehiena erdalduna duen euskaldunak, zergatik egingo du euskaraz aritzeko ahalegina? Antzera gertatzen da transmisioarekin: euskaraz oso eroso moldatzen ez den

gurasoak, bikotean erdararako ohitura finkatua duen gurasoak, egunerokoa eta ingurua erdarazkoa dituen gurasoak, zergatik egingo du ahalegina seme-alabei dakien euskara transmititzeko? Gaitasunean nolako hutsuneak dauden ikusita, kontzientziazioan eragin behar da derrigor.

Hautu hori elika daiteke, ala ito: erraztasunak jarri, ala trabatu. Euskararako hautua elikatzea da, gaur eta hemen, hizkuntza-politikaren zeregin

nagusia. Horrek, batetik, eskatzen du hizkuntza-eskubideak erabat bermatzea: lege-betekizuna da, eta ez da onargarria ofizialtasuna hamarkadetan ezarria dagoen eremuetan egituraz urratzea herritarren hizkuntza-eskubideak, areago administrazio publikoetan –areago, milaka euskaldun bizi dira euskara hizkuntza ofiziala ez den lurraldeetan, gero eta euskaldun gehiago, eta haien eskubideak erabat babesgabe daude–. Marra gorria da hori. Bestetik, ordea, daramagun bilakaera ikusita, hizkuntza-eskubideak bermatzetik harago eragin behar da: herritarrak euskara ikastera, transmititzera eta batez ere erabiltzera bultzatu. Hori da datozen urteetarako jomuga nagusia. Horrek ez du esan nahi, noski, euskararen indarberritzearen ardura herritar norbanakoen bizkar uztea, edo aitzakia hori erabiltzea egiturazko neurriak ez hartzeko. Euskara indarberritzearen ametsak bi-biak beharko baititu 2040an ere: bai hizkuntza-politika aurrerakoiak, bai herritarren engaiamendua. 🌱

Euskarazko hautua elikatzea da, gaur eta hemen, hizkuntza-politikaren zeregin nagusia. Herritarrak euskara ikastera, transmititzera eta erabiltzera bultzatu, hori da datozen urteetarako jomuga nagusia

Demografia, lurraldea eta zaintza hizkuntza-ekologiaren begiradatik

Itsaso Olaizola Azurmendi

Zuzenbidean lizentziaduna eta Ingurumen Zuzenbidean eta Hizkuntza-ekologian espezializatua

Aurreikuspen demografikoak lurraldeari, zaintzari eta hizkuntzari begira ageri dituen erronkak aztertuz, ondoko lerroetan etorkizun desiragarri baterako pausoak irudikatzen saiatuko naiz; erronka horri hizkuntzaren eta ekologiaren arteko zubietatik begiratu tuko diot.

Lehenik eta behin, hizkuntza-ekologiaren paradigma aurkeztuko dut. Euskararen aldeko testuinguru fisiko eta sozialak sortu eta indartzeak duen balioan jarriko da azpimarra, eta ingurumenerako babes-teknika eta aktibismoa hizkuntzen babeserako ekartzeak zer ezaugarri dituen jasoko da.

Bigarrenik, hizkuntza-ekologiak proposatuko lukeen EH2040 (desiratutako agertokia) irudikatuko dut, batez ere zergatien bueltan hausnartuz. Euskaraz eroso bizitzea eta ondo bizitzea bereizezinak direla iradokiko da, horretarako hizkuntzaren eta lurraldearen arteko elkarreraginean arreta jarritz. Ildo horretan, batetik, tokiko hizkuntzan eroso bizitzea garapen ereduaren baldintza gisa jasoko da, eta, bestetik, lurralde bizigarria euskaraz eta euskaratik eraikitzea zergatik den estrategikoa hausnartuko da.

Hirugarrenik, EH2040 desiratutako agertokira iristeko hizkuntza-ekologiatik demografia, lurraldea eta zaintza al-dagaiekiko erronka/galdera/aukerak identifikatuko ditut dekalogo batean.

Ondorioetan, esperantzaz bukatuko dut, aukeretan arreta jarrita.

Hizkuntza-ekologiaren paradigma

Hizkuntza-larrialdi egoeran, *hizkuntza-ekologiak hizkuntza aniztasuna babestea eta tokiko hizkuntza gutxituen garapena du helburu*. Unibertsalak diren, hizkuntzarekin berarekin lotura ez duten (ez daude hizkuntza garatu eta azpigaratuak) eta botere harremanetan (eta ez prozesu natural batean) oinarritzen diren hizkuntzen desagertze edo ordezkapen faktoreak aintzat hartzen dituelarik, hizkuntza-ekologiak, lurralde berean hitz egiten diren hizkuntzen arteko harremanak aztertzeaz gain, hizkuntza bakoitzak bere testuinguruarekin duen harremana du aztergai. Gurera etorrita, euskararen garapena eta lurraldearen eta herriaren garapena uztartzen ditu. Izan ere, lurralde garapenak eta hizkuntza garapenak muin-muineko lotura dute ekologiaren begirada honetatik. Hala, ekologiak ekosistema osatzen duten espezie eta espazioen arteko elkarreaginak aztertzen dituen moduan, hizkuntza-ekologiak aztertzen ditu harremanetan dauden hizkuntzen arteko eraginak, baina baita hizkuntza bakoitzak bere testuinguruarekin duen harremana ere.

Lurraldetik hizkuntzarako noranzkoan, herriaren eta lurraldearen garapenak euskararen garapena sustatu eta barne bildu beharko luke. Ezin baiezta daiteke garapen eredua jasangarria dela tokiko hizkuntza desagertzeko bidean jartzen badu, euskaraz garatzen ez bada. Euskararen biziberritzea posible egingo duen garapen eredua jasangarria izan dadin, bere hiru dimentsioetan izan beharko da jasangarri: 1) ingurumen eta lurraldearen mugen barruan garatuz (egun hiru Euskal Herri beharko genituzke), 2) justizia soziala eta kultura-hizkuntza

garapena bermatuz (hizkuntzari zentralitatea emanaz, kulturaren bihotza delarik), eta 3) aurreko bi dimentsioak oinarri izango dituen ekonomia sistema eraikiz. Gurean bezala, begirada horretatik urruti ikusten dut Nazio Batuen Erakundea. 2030 urtera begira ezarri dituen Garapen Jasangarriko 17 Helburuen artean, «hizkuntza eta kultura aniztasuna» helburua ez da jasotzen, ez da kasualitatea. Hala ere, badira hizkuntza gutxituen begiradatik egin diren proposamen interesgarriak, hala nola: 18. helburu espezifiko gisa, «hizkuntza eta kultura aniztasuna» jasotzea; hizkuntza beste helburu batzuen baitan esplizitatzea; edota, zeharka, 17 helburuak lortzeko bitarteko gisa hizkuntza jasotzea.

Hizkuntzatik lurralderanzko noranzkoan ere, euskararen garapena estrategikoa da herriaren/lurraldearen garapenerako. Lurraldeko ezaugarri eta berezitasunetatik unibertsal izateko eta kultura eta ekonomia endogenotik garatzeko bidea da euskara. Hizkuntza ezin da ekonomia eta kultura ereduaren 'esternalitate' gisa ulertu eta tratatu.

Hizkuntza-larrialdi egoeran, hizkuntza-ekologiak hizkuntza aniztasuna babestea eta tokiko hizkuntza gutxituen garapena du helburu

Ekologiaren *begirada* hizkuntzetara

Ekologiaren paradigma eta begirada hizkuntzetara ekartzea ez da behartua, inondik inora. Izan ere, giza zientziak eta natur zientziak bereizi beharrezkoak direla argituta, beste gizarte zientziek ere edaten dute ekologiari, hala nola ekologia politikoak, gizarte ekologiak, ekofeminismoak, populazio-ekologiak edota ekonomia ekologikoak. Zergatik? Ekologiaren begirada holistikoa, sistemikoa, konplexua, dinamikoa eta diziplinartekoa delako, eta, egungo mundu konplexu, ezegonkor eta aldakorra eraldatzeko edota bertara egokitze eraginkorra eta estrategikoa delako.

Zein da ekologiaren begirada hizkuntzara ekarrita? Labur esanda, hiru baieztapen nagusi egin daitezke:

- *Aniztasuna (bioaniztasuna eta hizkuntza aniztasuna) aberastasuna da eta bizirauteko giltzarri ere bada*, egungo kultur homogeneousazio eta hizkuntza pobretzearen aurrean. Zer pentsatua ematen du munduko bioaniztasun handiena hizkuntza aniztasun handiena dagoen lurraldeetan dagoela ikusteak. Erresilientzia linguistikoa eta lurrarekiko harreman estua izan daitezke faktore gakoak?
- *Aniztasunaren babeserako, tokikoa zaindu behar da, tokikoaren balio unibertsala dago muinean*. Tokiko ekonomia, lurraldea eta kultura dira garapenerako oinarriak. Hizkuntzetara ekarrita, gurean euskara: *tokikoa, garaikoa eta ekologikoa den hizkuntza da*. Lurraldeko jatorrizko eta berezko hizkuntza; hizkuntza zaharra bezain modernoa; eta bere lurraldean gutxitua den hizkuntza endemikoa, garatzeko babes neurri orekatzaileak hartu ezean, desagertu (ordezkatua izan) edota gehienez ere biziraungo lukeena.
- *Lurraldetasun printzipioan oinarritzen da eta lurraldeko kultura, hizkuntza eta naturarekin harremanetan jartzeko balio sistema bat proposatzen du*. Begirada produktibista huts batetik (garapen maila = BPG) eredu antropozentrikoagora pasatu gara (giza garapena barne biltzen duen garapen adierazle eta indizeak hor dira); egun, antropozentrismotik ekozentrismora begirada zabaltzea beharrezkoa bezain estrategikoa iruditzen zait. Gizakia/natura dikotomiatik harago, gizakia lurraldea dela eta euskal hiltuna eta komunitatea euskara direla barneratzeko bidea ematen du.

Ekologiaren zientzia hizkuntzen babesera ekartzeak balio praktikoa du

Testuinguruan eta lurraren defentsan jartzen da azpimarra.

Testuinguruaren zaintzan eta esku-hartzean oinarritzen den zientzia da ekologia; horretarako, testuinguru, lurralde

jasangarri eta burujabeak indartu, sortu edota lotzea proposatzen du. Adibide batekin errazago ulertzen da. Ekologian, desagertzeko arriskuan dagoen espezie bat babesteko eta gainerako espezieekin harremanak orekatzeko, espezie horren nitxo ekologikoa edota habitataren jarraitutasuna (korridore ekologikoak) bermatzea estrategikoa bihurtzen da. Hizkuntza-ekologian, lurrarekin eta gainerako bizidunekin gizakiok ditugun harremanak zaintzea proposatzen da, eta, gizakien arteko harremanetan, lehentasunezko esku-hartzea da hizkuntza gutxituentzako egokiak diren testuinguruak edota hizkuntza-korridoreak sortu eta lotzea. Izan ere, jakina da testuinguruak eragiten duela hiztun-komunitateak euskara gehiago/gutxiago edo eroso/estres linguistikoarekin erabiltzean. Euskaraz ariatzeko probabilitatea handitu egiten da arnasmuneetan, giro eta kultur eskaintza euskaldunetan, lehen sektorean (orain gutxira arte behintzat) eta naturarekin harremanean, mendian gora eginda edota herri/hiri bizigarrietako plazetan. Eta, aldiz, hiriaren kanpoaldean eraikitzen den zentro komertzialaren testuinguruak nola eragiten du euskararen erabileran?

Artikulu honetan, 'testuinguru' kontzeptuaren baitan elkarrreraginean dauden bi dimentsio nagusi eta osagarri barne biltzen dira: lurralde fisikoa eta soziala. Ez da testuinguruaren adiera zabalagoetan sartzen, hala nola euskarak beharrezkoa duen testuinguru edo lurralde birtualean, adibidez.

1. *Testuinguru fisikoa*, espazio edo lurralde fisikoa dago. Lurraldetasunaren garrantzia gero eta agerikoagoa da hizkuntzen biziberritzean. Hizkuntzen erabileran eragina du lurraldeak, eta lurraldean eragin daiteke lurralde politiken (lurralde antolamendua, hirigintza, arkitektura...) bidez. Hausnarketarako galdera batzuk izan daitezke: euskara ofiziala den lurraldeaz ari gara? Zein bailaratan dago eta nola dago komunikatua eta lotua? Maila hurbilean, nolakoa da lurralde/herri/auzo banaketa espaziala? Hau da, nekrosia edo lurralde zatiketa da nagusi, edota lurraldearen egitura-keta eredu ekologikoagora ('tipula' eredu, babes perimetrotak eta korridoreak) gerturatzen da? Erabilera mistoak

(lana/etxea/aisia) dira oinarri? Elikadura, energia edota ura zein eskalatan kudeatzen dira? Nolako etxebizitzak, zein tamainakoak eta norentzat eraikitzen dira? Hutsik daude? Zein leku du tokiko ekonomiak eta zero kilometro filosofiak? Giza harreman askotarikoak, modu orekatuan eta aniztasunean errazten dituzten azpiegiturak eta guneak daude? Kontsumitzea beharrezkoa ez den guneak erabiltzen dira? Norentzat pentsatutako guneak dira? Zein adinetakoentzako herri/hiriak dira? Emakumeentzako gune deserosoak daude? Euskaraz egiten ez diren guneak daude? Zein da lurraldeko bizi erritmoa eta herri/auzoen tamaina?

2. *Testuinguru soziala (hizkuntza komunitatea, kapital sozial eta kulturala)* ere bada. Lurralde horretan bizi diren pertsona eta komunitateen harreman, interakzio sistema eta ezaugarrien arabera egingo da euskaraz gehiago edo gutxiago. Espezie soziala gara, eta harremanak izatea da gure beharrik berezkoena: gertuko harreman sakonak izatea edota 'harremanen dentsitatea' ongi bizitzearen adierazle dira. Zein da hizkuntza-paisaia eta hizkuntza nagusia auzo/kale/lan edo aisialdi gune bakoitzean? Nola dago lurralde horretan euskal

Ingurumen babeserako
tresnak –arau
betearazlea, plangintza
eta sustapen teknikak–
baliagarriak dira, eta
erabiliak jada kasu
batzuetan hizkuntzen
babeserako

komunitatea (trinkoa, sakabana-tua, lausoa, prestigioduna, aktiboa...)? Nolako interakzioa dago (baldin badago) euskal hiztunen eta hizkuntza komunitate desberdinetako kideen artean? Nolako harrera egiten zaie etorri berriei? Interakzio horien nolakotasunaren arabera, euskara ikasteko beharra sentitzen dute etortzen direnek? Ikasteko eta erabiltzeko

aukera dute? Nola/nork kudeatzen ditu herri/auzoko azpiegiturak? Komunitatea eta giza kapitala euskaraz ari da? Nola parte hartzen dute auzokoek lurraldearen definizio eta kudeaketan? Turistifikazioak eta demografia fluxuek nola

eragiten dute hizkuntza erabileran? Auzoko zein zerbitzu eta sektoretan egiten da euskaraz? Lurraldean bizi eta lan egiten du jendeak? Gazteak non elkartzen dira?

Galdera horien erantzunen arabera ikus daiteke testuinguruak bere osotasunean (fisikoa eta soziala) nola eragiten duen euskararen erabileran. ‘Sektorialak’ deitzen diren politika desberdinek proiektu, azpiegitura edo programa bat abian jarri aurretik (prebentzioa), euskararen erabileran izango duen inpaktua neurtzea eskatzen du, adibidez, EAEko Udal Legeak, Eragin Linguistikokoaren Ebaluazioa tresnaren bidez. Eta modu prebentiboan eta pauso bat harago joanez, neurri zuzentzaileak proposatzeaz gain, *‘hizkuntza-politika’ egiteko berariaz eta intentziaz erabil daitezke oso eraginkorrak diren bestelako lurralde, turismo, demografia edota zaintza politikak ere*. Adibide bat jartzearren, ikertuta dago arnaguneetan hizkuntza erabileran gehien eragiten duten bi faktoreak etxebizitza parke berriak eta demografia fluxuak direla. Beraz, egin beharreko galdera izan daiteke: zer demografia eta etxebizitza politika ezarri beharko lirarteke arnaguneetan euskarak funtzio eskusiboak izaten jarraitu ahal izateko?

Ekologiaren babes-teknikak euskararen garapenerako baliagarriak dira.

Ingurumen babeserako *tresnak* –arau betearazlea, plangintza eta sustapen teknikak– baliagarriak dira, eta erabiliak jada kasu batzuetan hizkuntzen babeserako. Aurreko puntuan aipatu den eta Ingurumen Eraginen Ebaluazioan inspiratu den Eragin Linguistikoen Ebaluazioaren teknika adibide interesgarria da oso. Hala ere, kontuan izan behar da zailtasunak handiak izaten ari direla bide horretan. Adibide batera ekarrita, Europako Batasunak ingurumenaren babeserako araudi zorrotzak ezartzen dizkie estatuei, eta, aldiz, hizkuntza-eskubideak eskubide unibertsalak (indibidual zein kolektiboak) diren arren, hizkuntza gutxituen sustapena estatuen barne afera gisa uzten da *de facto* sarri asko, eta botere judizialetik eta euskararen lurraldetik kanpoko epaitegietan egiten da ‘hizkuntza-politika’.

Hizkuntza-ekologiak, ekologiaren zientzia ekartzeaz gain, soziolinguistikarekin eta beste zientzia arloekin loturak egitea proposatzen du.

Testuinguru soziolinguistikoari dagokionez, aztertu beharko dira: inkesta soziolinguistikoak, Euskararen Gaitasun Indizea, hizkuntza bilakaera eta joerak, euskaldunen tipologiak eta motibazioak (identitatea, lehen hizkuntza izan edo ez, adina, sexua...), transmisioa eta sozializazioa, gaitasun erlatiboa, pertzepzioen eragina (arrisku edo larritasuna, koherentzia, prestigioa...)... Eta beste zientzia arloetako azterketak ere beharko dira: turismo eta demografia fluxu eta politikak, herritarren parte-hartze eskubideak eta bideak, zaintza egiten den sektoreen egoera... Eta baita gizarte zientzietako kontzeptuak ere, hala nola babesgabetasun ikasia, hizkuntza-prestigioa eta erresilientzia, asimilazioa, ekonomiaren legea, boterearen teoriak edota hizkuntza diskurtsoak. *Konplexua bai, baina beharrezkoa eta aukera ere bai. Krisia ari duen honetan, euskararen erabileraren kristalezko sabaia apurtu eta jauzi kualitatiboa emateko aukera da.*

Ekologiaren aktibismoa euskalgintzara ekartzeak ezaugarri propioak ditu

Nolako aktibismoa sustatuko litzateke hizkuntza-ekologiaren begiradatik? Bost gogoeta hemen:

- Ekologia *zientzia interbentzionista* da, hizkuntza gutxituen garapenerako babes-neurri orekatzaileak hartzea (desorekak orekatzea, 'diskriminazio positiboa', boterearen teoria) eta *hizkuntza-justizia* barne biltzea dakar.
- Ekologiaren begirada *interdependentea* da eta, beraz, *azpimarra interaktibismoan* jartzen da. Horretarako aukera bat haxe da: borroka euskaltzalea, agroekologista, feminista... justizia soziala bilatzen duen borroka bakar gisa ulertzea (aktibismo burujabe integratzailea); beste aukera bat: mugimendu edo elkarte bakoitzak bere borroka nagusia izanik ere, beste mugimendu, borroka eta

antolakunde eta politika sektorialekin –ekologismoa, feminismoa, zaintza orekatua, partaidetza politikoa...– uztartuta aritzea. Aktibismo bidea bat izan edo bestea izan, *hizkuntza-ekologiaren begirada eraginkorra da kontsentsuak, indar-metaketa eta gutxieneko diskurtso konpartituak eraikitzeke eta borroken arteko loturak egiteko*. Kontsentsuak ez du soilik hizkuntzaren aferaren baitakoa izan behar. Hala, egungo garapen ereduaren eta krisiaren alternatiba diren diskurtso eta praktiken osagarritasuna bilatzeko aukera ematen du hizkuntza-ekologiak. Homogeneizazio joerari erantzungo dioten beste kolektibo eta eragileekin interes komunak adostu eta gutxieneko diskurtso eta marra gorriak (hizkuntzari, ingurumenari, generoari lotutako gutxienekoak...) eraikitzeke baliagarria da. Galderak lirateke: zer egin dezake lurraldeko talde/mugimendu/borroka batek besteen alde? Zein da taldearen indargunea? Zer egin dezake talde bakoitzak euskalduntzeari begira? Zer ekarpen egiten die euskarak eta euskalgintzak beste taldeei? Euskarak eta euskal kulturak beraien militantzia praktikak hobetzeko garrantzia duela adierazi izan du, adibidez, Iparraldeko Bizi! mugimendu ekologistak, euskara = «biotopo berezi eta inklusibo» gisa ulertuta.

- *Aktibismoaren prozesua parte-hartze demokratikoan eraikitzen da*. Subsidiarioritasun printzipioa oinarri hartuta, erabakimena herritarrengandik ahal den eta gertuen egotea lehenestea proposatzen da. Izan ere, lurraldean, herrian edo auzoan bizi direnek eta lurraldea bizi dutenek definitu beharko lukete nola bizi nahi duten, eta horrek euskararen aldeko ekintza komunitarioa indartzea, parte hartzea (instituzionala edo ez) ahalbidetzea eta instituzio publikoen berme eta baldintzak definitzea eskatzen du.
- Partaidetza ereduari dagokionez, interesgarria da, orobat, *elkartegintza eta lankidetza ereduak indartzea*. Bakoitzeko adibide interesgarri bana jartzearen: 1) elkartegintzari

lotuta, Bizi! mugimenduari egingo diot erreferentzia berri-
riz ere: %20 euskal hiztuna duen mugimendu ekologista
erradikal eta pragmatikoa izanik, salaketa egin eta herri-
tarrekin sareak osatzeaz gain, ekintza eta jardunbide po-
litikoen proposamen teknikoak (adituak) egin, hautetsiei
ekoformazioa eman eta mugimenduko kide berriei (jada
kontzientzia ekologikoa bai baina euskaltzalea jaso ez du-
tenei) euskararen historiaren eta garrantziaren formazioa
eskaintzen die; 2) lankidetzari dagokionez, badira, baita
ere, gizarte antolatuaren partaidetza sustatzeko erakunde
publikoen eta eragile sozialen lankidetzazko gobernantza
partekatuan bidea egiten ari diren ereduak, berriki sor-
tu den Badalab (Hizkuntza eta Gizarte Berrikuntzarako
Laborategia) egitasmoa tarteko.

- Prozesu dinamikoetan arreta jartzen duenez, hizkuntza-
-ekologiaren ekintzailetasunean *alderdi emozionala eta
taldearen zaintza erdigunera* ekartzen da.

Aktibismoa EH2040an indartsu egoteko, norbanakoaren
eta taldearen zaintzak beharrezkoak izango dira. Egungo
testuinguruan, bereziki, etsipen eta frustrazio sentimen-
duak ere berdintzen du mugimendu euskaltzalea beste
zenbait gizarte mugimendurekin, bai maila pertsonalean,
baina baita borroka kolektiboetan ere. Nik ikusten dut
adineko jende asko etsita euskararen egoerarekin, eta ez
da norbanakoaren auzia soilik, borroka guztietan taldeari
gertatzen zaiona baizik. Orduan, taldea asko zaindu behar
da, aktibismoa iraunkorra eta orekatua izan dadin. Zen-
tzu horretan, badaude nazioartean mugimenduak gizarte
traumaz hitz egiten dutenak. Sistemarekiko ezinegon bat
da. Gertatzen da arrazismoarekin, klima larrialdiaren
kontrako edota herri indigenen borrokekin, adibidez, eta
uste dut hizkuntza gutxituen borrokan ere *landu daitekeela
hizkuntza-trauma*. Izan ere, hizkuntza propioa uztea eta
ordezkatzeta ez da hautu librea. Erreta, etsita, haserre edota
gaindituta sentitzen garela onartu eta konpartitzea lagun-
garria gerta daiteke mugimendua bera indarberritzeko.

Jarreraz, ‘optimista erradikala’ izateko, dimentsio soziala lantzea garrantzitsu ikusten dut. Izan ere, ematen du arazoak orain indibidualak direla, eta arreta kolektiboki gertatzen den horretan ere jarri beharko genuke. Nola gaude 2022an eta nola egongo da euskalgintza EH2040an?

Hizkuntza-ekologiak proposatuko lukeen EH2040 nolakoa litzateke hizkuntza eta ekologiari begira? Eta zergatik?

Euskaraz bizi den lurralde bizigarria

Hizkuntza-ekologiak proposatzen duen EH2040an, agertoki desiratua euskaraz eroso biziko den lurralde bizigarria da. Lurraldetasunaren garrantzia azpimarratzen du hizkuntzen biziberritzerako.

Gobernantza globalean herrien subiranotasunak eta identitateak zein rol eta norainokoa izango duten ezbaian dagoen honetan, mundu mailako erronkei maila lokalean erantzun ahal izateko, euskara/lurraldea azterketak indarra har dezake EH2040an. *Estatutik gabeko herri, lurralde, kultura eta hizkuntza gutxituetan arreta berezia* jarriko delakoan nago.

Bide horretan, zenbait adituk adierazi izan dute jada Euskal Herria «Lurralde Burujabe Jasangarri» gisa uler daitekeela, bai jasangarritasunaren begiradatik ikusita eta baita, nola ez, euskarari dagokionean ere.

Eskala honetan eta tokian-tokian ere, hizkuntzen ‘testuinguruaren’ bi dimentsioen (fisikoa eta soziala) uztardura egiteko, gakoa da *‘lurralde eta herri bizigarri’ kontzeptua aintzat hartzea eta bere baitan hizkuntzaren dimentsioa berariaz*

Hizkuntza-ekologiak proposatzen duen EH2040an, agertoki desiratua euskaraz eroso biziko den lurralde bizigarria da. Lurraldetasunaren garrantzia azpimarratzen du hizkuntzen biziberritzerako

barneratzea. Lurraldean –Euskal Herrian, eskualdean, auzoan...– bizi diren pertsonen eguneroko bizitza erdigunean jartzeak (bizitza bizigarria eta jasangarria izatea) euskaraz eroso bizitzea eta euskaratik lurraldea eta harremanak eraikitzea eskatzen du. Herri eta lurralde bizigarrien ezaugarritzat hartzen dira, adibidez, funtzio ezberdinak izango dituzten eremu fisikoak sustatzea; adin, sexu eta jatorriz askotarikoak diren elkarrizketak sortuko diren lekuak diseinatzea eta lotzea (korridore linguistikoak); gero eta metropolizazio joera handiagoak dauden honetan, parkeak eta naturguneak herri eta hirietan integratzea; komunitatearen beharretara egokitutako azpiegiturak eta baliabideak indartzea; eta horiek ahal den eta modu komunitarioenean kudeatzea. Uler daiteke lurralde bizigarria dela, euskaraz eroso bizi ezin bada?

Lurraldeak euskararen erabileran eraginez. Lurralde fisiko bizigarri horiek sustatzeko, harremanak askotarikoak, erosoak eta horizontalak izatea bilatzen da; beraz, aukera handiagoa izango da euskaraz eroso bizi eta aritzeko, baldin eta hiztunak (testuinguru soziala) aktibatuta baldin badaude. Baina kontuz: testuinguru sozialean ere eragin behar da ‘herri bizigarria’ izateko. Izan ere, ahozko harremana errazten duten espazioetan ez da automatikoki euskaraz egingo. Gaur egungo soziolinguistika datuek erakusten dute hautu kontziente bat egin behar dela euskaraz bizitzeko, erabaki pertsonal eta kolektiboa dela. Hala, indibidualizazioa nagusi den gizartean, herritartasun eta euskalduntasun aktiboa begirada komunitariotik eraiki beharra dago, batez ere euskal komunitate gisa.

Euskararen erabilerak lurraldean eraginez. Alderantzizko noranzkoan ere, euskaraz eta euskaltasunetik bizi den komunitateak lurralde bizigarriagoa eraikitzeke potentzial handia duela esan da aurrerago. Hala, eraginkorra litzateke lurralde politikek euskararen erabilera sustatzea. Euskararen aldeko baldintzak egoteko, beharrezkoa izan daiteke euskal hiztun komunitatearen beharrei erantzutea, komunitatearen erabakimena zaintzea eta euskarak funtzio eksklusiboak izango dituen espazio eta lurraldeak eraikitzea.

Zergatik euskaraz?

Esplizitatzen saiatu naizen lurraldea/euskara harremana elikatzen jarraitzeko, *hizkuntzak zer diren eta euskara gure lurraldean zer den* hausnartzeak lagun dezakeela iruditzen zait. Beraz, oso oinarritzkoa diren bi ideia lehen lerrora ekarriko ditut: 1) bizidun guztiak komunikatzen gara (bakteriak, landareak, animaliak), eta gizakion komunikatzeko tresna berezkoena hizkuntza da, hizkuntzak egiten gaitu gizaki; 2) hizkuntza guztiak komunikatzeko baliagarriak dira, noski; baina, gainera, hizkuntza bakoitzak bere hizkuntza komunitatearekin eta bizi den lurraldearekin eta kulturarekin lotura berezia du. Euskara ez da soilik komunikaziorako hizkuntza bat; hizkuntza-ukipen egoera gutxituan dagoen hizkuntza endemikoa da, euskararen lurraldean garatu edo desagertuko den (ordezkatuko den) hizkuntza da, munduko hizkuntza aniztasuna handitzen duen eta euskararen lurraldea interpretatu, kudeatu eta eraldatzeko aukera ematen duen hizkuntza.

Herri honek eta euskaigintzak *EH2040an euskaraz zergatik egin behar duen kontzientzia hartze hau* beharrezko pausotzat daukat. Nire ustez, ez dugu barneratuta euskaraz bizitzea 'ondo bizitzea' edota 'bizitza duina' kontzeptuen baitan dagoela. Ekologiatik 'ondo bizitzea' edo 'bizi kalitatea' zer den galdetzen denean, ekofeminismotik edo *transition* mugimenduetatik adibidez, behar materialez hitz egiten da, noski: elikagaiak, etxebizitza, soldata duina... Baina, gutxieneko behar horiek bermatuta badaude edo daudenean, harreman sareak eta bizitzari zentzua bilatzea azpimarratzen dira. Gure kasuan, sustatuta eta eraldaketan dagoen herri, kultura eta lurralde bizia izateko, gakoa da harremanak euskaratik eta euskaraz eraikitzea eta euskaraz bizitzeari zentzua eta balio erantsia ematea.

Egungo datu soziolinguistikoek pistak ematen dizkigute nahi dugun etorkizunari begira. Hizkuntzaren motibazio, ezagutza eta erabilera loturak aztertuta, lehentasunak izan daitezke:

1. Jarrera eta motibazioei dagokienez, gazteen eta ez horeen gazteen *hizkuntza motibazioan eta atxikimenduan*

eragitea, gehienek euskara bigarren hizkuntza izango dutela kontuan hartuta eta hizkuntza transmisioan, eza-gutzaz gain, motibazioa transmititzeak ere eragiten duela jakinda. Zentzu horretan, euskarak lurraldearekin duen lotura ikusarazteak eta euskalgintza komunitate ireki eta moderno gisa garatzeak berarekin dakar, neurri batean behintzat, lurraldearekiko, lurrarekiko eta hizkuntzarekiko talde identitatea piztea, areagotzea edo trinkotzea.

2. Datuei begira 18 urtetan euskararen ezagutza maila ez dela igoko aurreikus daitekeen arren, posible da ezagutza erlatiboan eta gaitasunetan eragitea eta, beraz, *euskaraz (ahozkotasunean) eroso aritzea errazten duten lurralde, espazio, mugimendu, komunitate eta giroak (batez ere informalak) irabaztea*. Izan ere, ikusten ari gara gero eta gehiago direla euskararen ezagutza izan arren erdaretan erosoago bizi direnak euskaraz baino (ezagutza urriagatik edota atxikimendu maila baxuagatik).

Hizkuntza-ekologiak demografia, lurraldea eta zaintza aldagaiekiko ikusten dituen erronka eta aukera nagusiak

Jakin Jardunaldian partaide izan diren gainerako adituen ekarpenak oso aberasgarriak gertatu zaizkit, batez ere berriagoak zaizkidan demografia eta zaintza arloetako erronka eta prospekzioei dagokienez. Atal honetan, bertan entzun eta ikasitakoek iradoki dizkidaten hausnarketa eta gogoe-tak hizkuntza-ekologiaren iragazgailutik pasatzeko ariketa egiten saiatu naiz. Hala, dekalogo moduko batean jaso ditut EH2040an lurralde euskalduna, justua eta ekologikoa helbu-ru lituzkeen demografia eta zaintza proposamenak.

1. Lurraldea, demografia eta zaintza politiketan, euskara esplizitatzea.

Lurraldeaz orain arte esandakoez harago, demografiak eta zaintzak hiztun eta herrietan eragiten dutenez, euskararen

aldeko demografia eta zaintza ereduak identifikatzetik has gaitezke.

Zaintzari dagokionez, EH2040an nola antolatuko dugu zaintza? Familia nuklearretik haragoko zaintza eredu berri-tzaileek hizkuntza barne biltzen dute? Egoera zaurgarrietan daudenak, dependentzia egoera duten helduak edota desgaitasun edo behar bereziak dituzten pertsonak eta komunitateak zenbat eta nola egongo dira? Euskaraz zainduko dira? Hizkuntza eskubideak bermatuak dituzte?

Eta gazteen zaintza eta demografia fluxuei dagokienez? Etorkizuneko belaunaldietan arreta berezia jartzen du garapen jasangarriaren definizioak berak; zentzu horretan, EH2040an gazteei zuzendutako

politiketan euskararen erabilerari lotutako datu eta neurriak beharrezko izango dira, kontuan izanda, besteak beste, gazteen mugikortasuna handia dela eta belaunaldi berri hauetan baliabideen (soldata eta etxebizitza) lorpen berantiarra eta prekarioa gertatzen ari dela. Gazteek lana edota etxebizitza beraien herrietan eskuratu ezin izanak zein eragin izango du lurralde orekan eta demografia fluxuetan? Beste lurraldeetatik datozen gazteak euskaraz ikasteko eta egiteko zaintza egiten bada?

Populazioaren zahartzeari dagokionez, 'zahartze osasuntsua' eta 'bizitza duina' bezalako kontzeptuen baitan 'hizkuntza-ongizatea' barne biltzen da?

2. Euskararen balio erantsia barneratzea zaintza eta demografia politiketan, lurralde politiketan bezalaxe.

Gogoetarako galdera batzuk: populazioaren zahartzeari dagokionez, 'zahartze osasuntsua' eta 'bizitza duina' bezalako kontzeptuen baitan 'hizkuntza-ongizatea' barne biltzen da? Belaunaldiarteko harremanak euskaraz eta hizkuntza-ren bueltan ere eman daitezke? 'Zilarrezko ekonomiak' eta adin nagusikoen autonomia garatzeko zaintza politikak zein erronka linguistiko planteatzen ditu?

Eztabaida interesgarria izaten ari da bizi kalitatea eta zahartzea lotuta. Bizi-kalitate maila altuaren adierazle positibotzat hartzen da bizi itxaropenean, noski; baina, gero eta luzaroago bizitza positiboa izanda ere, nahikoa al da horrekin bizi kalitate ona izateko? Dependentzian bizi direnen bizi kalitatea nola neurtzen da? Heriotzaren kalitatea aintzat hartzen da, adibidez, bizi kalitatearen barruan? Heriotza boluntarioak eskubide izan beharko luke?

3. Planetaren eta demografia mugak mundu mailako begiradapean eta tokiko eskalan aztertzea, hizkuntza gutxiituak dauden lurraldeetan bereziki.

Planetaren mugen gainetik bizi gara –aztarna ekologikoaren arabera, hiru planeta beharko lirateke munduko biztanle gutxiak Euskal Herrian bezala biziko balira–, eta mundu mailan gainpopulazioaz eta migrazio fluxu gero eta handiagoz (klima errefuxiatuez, tartean) hitz egiten da. EH2040an, zenbat izango gara munduan eta Euskal Herrian? Eta horietatik zenbat euskaldunak (=euskal hiztunak)? Testuinguru zabal horren baitan aztertu eta kokatu behar ditugu demografiako hiru aldagaiak (jaiotzak, heriotzak eta migrazio fluxuak), euskararen erabileran ahal den eta eragin positiboena izan dadin. Bizi itxaropen altua duen lurraldea izanik, nolakoak izan beharko lukete EH2040ko jaiotza eta migrazio tasek?

4. Etorkinen dentsitate erlatiboa eta kontzentrazioa berariaz kudeatzea, bereziki sektore prekarizatueta eta hizkuntza gutxiituak diren lurraldeetan.

Euskara gizarte kohesiorako elementu izateko, bereziki zaindu beharko dira sektore prekarizatuena tartean, hizkuntzaren erabileran eragin handia duten zaintza sektorean (feminizatua ere badena) edota ostalaritza sektorean. Izan ere, etorkin dentsitate eta kontzentrazio handiagoa dago sektore prekarizatueta, eta euskaraz jakin gabe laneratzin direnen ehunekoa altuagoa da. Sektore horietan hizkuntza eskubideak betetzen al dira? Zerbitzuak jasotzen dituzten

herritarren eta hiztun komunitateen hizkuntza-eskubideak eta etorkinek euskara ikasteko izan beharko luketen eskubidea nola gauzatzen dira? Gehiegi eskatzea da euskaraz oinarritzko elkarrizketa bat –edo pintxo poteoa– egitea? Eta zeini eskatu behar zaio gure herri gastronomiko honetan menuak euskaraz egotea? Bestalde, sektore horietan lan baldintzak duinak balira, euskararen erabilera hobetuko litzateke? Badugu garaia galdera horiei heltzeko.

5. Euskararen unibertsalizazioa posible egitea, demografia fluxuei eta immigrazioari dagokienean.

Euskalduntzen diren eta hizkuntza aniztasuna dakarten etorkin euskaldunak izan nahi baditugu, etorkinek aukera (erreal) izan beharko dute tokiko hizkuntzaren garrantziaren berri izateko eta euskara ezagutu, entzun eta erabiltzeko. Euskaraz bizitzeko beharra izan edota sentitzen dute? Tokikoen hizkuntza-praktikak nola eragiten dute 'behar' horretan? Bertan jaiotakoei euskara eskatzen ez bazaie edota erabiltzen ez badute, kanpotik datozenei noraino eta zein denbora epetan? Edota, nola erantzun egun entzuten diren «euskaraz egitea eskatzea diskriminazioa da» edota «euskara ez ikastea esku-bide bat da» baieztapenei?

6. Politika sektorialetan eta demografia estratifikazioetan hizkuntza aldagaia ezagutzea eta gainerako aldagaiekin gurutzatzea.

Gizarte zientzia desberdinetarako erabiltzen den zientzia estatistikoa da demografia. Lurralde jakin batean gizakion kantitatea eta egitura aztertzen ditu denboran zehar. Demografiaren egiturari dagokionez, hizkuntzari lotutako aldagai eta datu soziolinguistikoak ezagutzea beharrezko gertatzen da hizkuntza gutxituetako lurraldeetan.

Lehenik, esan daiteke euskara ezagutza datuak badauzkagula, nahiz eta egitura administratibo desberdinetan banatuta izateak –EAE, Nafarroa eta Iparraldea– zailtasun gehigarriak ekartzen dituen. Adibidez, ezagutzen dira 'euskaldunak' edo

‘ia euskaldunak’ zein ehuneko diren edota euskara erabilera datuak (Soziolinguistika Klusterraren kale erabilera datuak) zein diren, adina, sexua eta lurralde datuekin gurutzatuta. Bigarrenik, eta behin datuak izanda ere, datu horiek zaintza, turismo edota immigrazio politika/programa/proiektuak gauzatzekoan aintzat hartzea da hurrengo pausoa. Adibide batera ekarrita, turismoari mugak jarri behar al zaizkio euskararen erabileran modu esanguratsuan eragiten duenean? Eta, hirugarrenik, datu horiez gain, demografia/hizkuntzaren

Sorkuntza eta kulturaren
erdigunean egon
beharko luke euskarak,
eta zehar lerro izan. Baina
zehar lerro, zentralitatez
eta hasieratik. Euskaraz
egingo da gune
honetan? Hori pentsatu
behar da edozein gune
eraiki aurretik

inguruan zein beste datu esanguratsu behar diren hausnartu beharko da. Adibidez, euskara-rekiko atxikimenduari lotutakoak edo ezagutza erlatiboari dagozkion datuak badira? Eta immigrazioa/euskara datuak? Zein da euskalduntzen diren etorkinen ehunekoa lurralde edo herrika? Eta badakigu zein herritatik datozen eta nora etorri diren euskalduntzen direnak? Demografia fluxuetan, datozenen eta harrera egiten dutenen hizkuntza motibazio

eta erabilera datuak? Doazenetatik zenbat diren euskaldunak, eta horietatik zein bueltatzen diren? Metropolizazioa gertatzen ari den honetan, hizkuntza aniztasun datuak ere baliagarriak izango dira EH2040an. Urteetan Soziolinguistika Klusterrak eta Gaindegiak egindako lanari eskerrak emateko aukera baliatuko dut.

7. Demografia joerek lurraldearen bizigarritasunean eta lurgune euskaldunetan duten eragina eta aztarna neurtzeaz gain, orekatzea.

Demografiak euskararen erabileran duen eragina bereziki zaindu beharko da arnasguneetan, euskaraz bizi diren

auzoetan, euskal giroetan eta euskal fluxuetan. Horretarako, testuinguru fisiko zein sozialak zaindu, sortu eta saretzea gakoa da. Euskarak funtzio guztiak betetzen dituzten testuinguruek babes berezia behar dute.

8. Tokiko kultura eta hizkuntzan sorkuntza egiteko harremanetarako guneak lehenestea eta kontsumitzea beharrezko ez den espazio multifuntzional eta irekiak ere sustatzea.

Sorkuntza eta kulturaren erdigunean egon beharko luke euskarak, eta zehar lerro izan. Baina zehar lerro, zentralitatez eta hasieratik. Euskaraz egingo da gune honetan? Hori pentsatu behar da edozein gune eraiki aurretik.

Desberdinen arteko elkarrizketak errazten diren gune eta hirietan, euskara kohesio hizkuntza izan daiteke. Batez ere euskaraz –edo euskaraz gero eta gehiago– egingo den hiriak aukera ireki dezake haurren hiri, 65+ hiri, hiri segurua eta osasuntsua ere izateko.

9. Euskaldunen eta euskaraz ez dakitenen arteko hizkuntza harreman askotarikoak sustatzea (hizkuntza aniztasuna, ez ordezkapena).

Euskaraz izan ezin diren harremanak ez dira nahitaez hizkuntza hegemonikoetan edo hedatzaileetan izan behar. Euskaldun eta katalan batek katalanez elkar uler dezakete? Elkarrizketa elebidunak posible dira? Hizkuntzekin gozatzeko aukerak ere eman ditzakete hizkuntza teknologia berriek.

Edonola ere, ezinbestekoa zaigu euskaraz ez dakitenekin harremanak erdaretan izateko prestatuak izatea, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioan pausoak emanda ere. Kasu horietan, euskaraz egiten ez den gune eta espazioek amankomunean zer duten aztertzea lagungarria izan daiteke ekin-tzarako lehen urrats gisa. Zaintza, turismo edota ostalaritza eredu globalizatzaileetan euskaraz egiteko aukerak gutxitzen al dira? Bestalde, gune eta harreman espazio horietan euskararen presentzia irabazten joateko, erdaretan subsidiarioki

noiz egingo den ados daiteke. Harreman askotarikoetan edota gune ez-euskaldunetan ere (ETB2, adibidez) euskaraz eta euskaratik bizitzearen garrantziaz eztabaidatzea, euskarari balio gehigarria aitortzea eta euskarari tokia egitea (azp titulaturik dauden euskarazko elkarriketa edo elkarriketa elebidunen bidez) euskararen erabilerarako epe motzeko pausoak izan daitezke, erdaretan izanda ere.

10. Etorkinen hizkuntzenganako interesa eta etorkinen hizkuntzei begirunea erakustea.

Ez dut uste nahikoa transmititzen edo azaltzen dugunik zergatik zaigun garrantzitsua/beharrezkoa euskaraz bizitzea, zergatik izan nahi dugun irekiak eta unibertsalak euskaratik. Geroz eta hizkuntza gehiago hitz egiten dira Euskal Herrian, eta horien artean badira beste lurraldeetako hizkuntza gutxiak ere, hala nola kitxua edota wolofera.

Aniztasun horrek euskararen erakarmen indarraren alde joka dezake. Izan ere, aniztasunari balioa emateak eta besteekiko interes hori azaltzeak ere laguntzen die datozen horiei hemengo hizkuntzara hurbiltzen. Batzuek oso naturalki egiten dute. Hala ere, hizkuntzak funtzionala izan behar du. Hori transmititu ezean, euskara arriskuan dagoen hizkuntza hori da. Eta, arriskuan badago, zergatik ikasi hori eta ez arriskuan ez dagoen eta denek erabiltzen duten hura? Euskara beste hizkuntzetatik zerk bereizten duen, hori da pentsatu eta transmititu behar dena.

Jar gaitezen etorkinaren tokian. Etorkina izanik eta legez behartua ez bazina (euskara ofiziala den lurraldeetan ere ez da exijitzen euskararen ezagutza), zergatik ikasiko zenuke tokiko hizkuntza gutxiak? Mundu mailan, tokiko hizkuntzen biziberritze prozesuetan, *euskara eredu* dela eta euskalgintza berrikuntza sozialaren adibide dela jakitea lagungarria izango litzaizuke zure motibazioan? Euskarak irautearen misterioak euskaldunekiko interesa piztuko lizuke? Euskaldunek hizkuntzaren zaintzan duten esperientziak *migratzaileon 110 hizkuntzoi egiten dieten harrerari* eragingo liokeela uste

duzu? Euskaldunek lurraldearekin zein harreman izan duten galdetuko zenioke zure buruari? Euskaraz bizitzeak eta euskal komunitatearen kide izateak zer ekarriko lizukeen pentsatzen jarriko zinateke?

Ondorioak

Esperantzaz bukatu nahi dut. Artikuluan nabarmenduta ageri da hizkuntzen arrisku faktoreen artean lurraldearen kudeaketa dagoela, eta azpimarratzen da, lurraldearen kudeaketa ereduak hizkuntzen biziberritzean eragiten duen moduan, tokiko hizkuntzak lurraldearen kudeaketan ere lagun dezaakeela. Begirada ekologiko hau konplexua izanik ere, aukera ere bada intentzioz eta komunitate mailan eraginez gero. Izan ere, lurraldean eta hizkuntzan eragin badezakegu, bietako batean eraginda bestean ere eragiten da.

EH2040ra begira ere, euskalgintzak (eragile sozial eta erakunde publikoek) testuinguru euskaldun berriak sortzen (mitigazioa) eta testuinguru askotariko eta aldakorretara egokitzen (adaptazioa) asmatuko duelakoan nago. Gakoa izango da erakutsi izan duen berrikuntza sozialerako gaitasunean eta gogoan berriz ere arreta jartzea: euskararekin eta lurraldearekin konektatzeko, euskaraz bizi nahi/ahal/jakiteko eta euskaraz hobeto bizitzeko.

Mundu mailako testuingurua eta 2040 urtea interesgarriak dira. Mundu global honetan, arlo desberdinetan –energia, elikadura, hizkuntza...– tokiko eskalari erreparatzeko joera handitzen doa, eta joera horrek euskararen prestigioari mesede egin diezaioke. Ikusten ari gara lurraldetasunak gero eta modu ageriagoan eragiten duela hizkuntzen biziberritzean, eta, gainera, lurraldearen kudeaketak ez ezik, zaintza eta demografiak ere eragin nabarmena dutela hizkuntza gutxituen biziberritzean. Egungo krisi globalean, zaintza, demografia, ekologia, ekonomia, hizkuntza krisiaz eta abarrez ari garen honetan, tokiko eskalak eta subiranotasunaren aldarririk garrantzia hartuko dute. Hor asmatu beharko genuke

hizkuntzaren auzia ondo kokatzen. Gure erronka handietako bat da, hain justu, euskararen babesa beste borroka eta politiketan sartzea eta euskaraz bizitzea ondo bizitzeko proposamenarekin lotzea.

Gure eragin esparruan arreta jarrita, hizkuntza motibazio eta atxikimendurako erronka nabarmenduko nuke 2040ra begira. Lurralde eta naturaren garapenak eta hizkuntza garapenak elkar elikatzen dutela sentitzen hasiak garela pentsatu nahi dut, gure bizimodua eta lurraldearekin dugun harremana bizi garen eta gaituen hizkuntzaren bidez definitzen baita. Lurraldea, natura eta euskara garela barneratzeak norbanakoen zein taldeen identitatean eragingo luke. Euskara identitatearen faktore determinante bilakatuta, hizkuntzaren biziberritzean eta lurraldearen (eta beraz lurraren) defentsan eraginkorragoak ginateke. Barne motibazioan oinarrituen begirada ekologikoak eragingo du euskararen aldeko babes-teknikak eta aktibismo bide interesgarriak urratzen. Abenturazko bidaia da aurrean duguna, bizitzatik deskonektatzea baino, geure buruarekin eta inguruarekin konektatzen lagunduko diguna. 🌱

Bibliografia

- Aperribai, J. (2022): 'Itsaso Olaizola: «Jasangarritasunaren erdigunean egon behar luke euskarak»', *Berria*, 2022-07-19.
- Azurmendi, M.-J.; Olaizola, I. (2003): 'Sustainable Quality of Life: Cultural Diversity, Environmental Law and Building Citizenship', *Medio Ambiente y Comportamiento Humano* 4(2), 127-152 (http://mach.webs.ull.es/PDFS/VOL4_2/VOL_4_2_e.pdf).
- Azurmendi, M.-J. (2010): 'Hizkuntza-ekologia eta jasangarritasuna, globalizazioan: Euskarari begira', *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria* 75(2), 145-164.
- Bastardas-Boada, A. (2017): 'The Ecology of Language Contact: Minority and Majority Language', in A. Fill eta H. Penz (argk.): *The Routledge Handbook of Ecolinguistics*, 26-39.

- Bat. Soziolinguistika Aldizkaria* (2011): *Hizkuntza-ekologia euskararen ingurunean*, 81(4). zenbakia. Artikuluak: B. Uranga, A. Bastardas, J. I. Marko, X. Erize, I. Idiazabal, J. I. Marko eta B. Uranga eta J. Sarasua; mahai-ingurua (koord.): B. Uranga.
- (2014): *Lurralde-Antolaketa eta Hizkuntza*, 90(1). zenbakia. Artikuluak: B. Uranga, U. Fernandez de Betoño, K. Telleria, E. Apaolaza, I. Salaberria, P. Bilbao, B. Urkiza eta A. Ensunza.
- Brundtland, G. H. (1991): *Our Common Future*, Oxford, Oxford University Press.
- Davis, F. (2021): ‘Committing to Restorative Justice: Mediating Conflict, Strengthening Community and Repairing Harm’ (*Collective Trauma Summit 2021: Collective Healing in Action*: <https://thomashuebl.com/collective-trauma-summit-2021-collective-healing-in-action-summary>).
- Haugen, H. (1972): *The Ecology of Languages*, Stanford, Stanford University Press.
- Inglis, D.; Pascual, U. (2021): ‘On the links between nature’s values and language’, *People and Nature*, 1-17.
- Jakin Jardunaldia (2022): *Euskal Herria 2040: demografia, lurraldea, zaintza, hizkuntza*, Usurbil, 2022-07-07/08 (www.jakin.eus/bideoak/2022-euskal-herria-2040/30).
- Sánchez Carrión, J. M. Txepetx (1985): *La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Sarasua, J. (2007): ‘Material gordin bat hizkuntzen ukipenerako’, in X. Aierdi eta B. Uranga (argk.): *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan jardunaldiaren inguruko gogoetak*, Bilbo, Ikuspegi eta Amarauna-Unesco Etxea, 66-69 (www.unescoetxea.org/dokumentuak/euskara_immigrazioa.pdf).
- UEU50 (2022): *Lurralde eko-euskaldun eta euskal-feministarik bai ote?*, Bilbo, 2022-06-28 (www.ueu.eus/ikasi/udako-ikastaroa/1730/Lurralde%2Beko-euskaldun%2Beta%2Beuskal-feminista).

EGUNEN GURPILEAN

111 Kultura

EAEko aurrekontuak: zertan eta zenbat
gastatzen da kultura deitzen dioten
horretan?

Maialen Akizu Bidegain

117 Glokalia

Begiz beteriko hiriak
Begiz beteriko lanpostuak
Begiz beteriko objektuak
Konfiantzaren krisia

Iñigo Martinez Peña



EAEko aurrekontuak: zertan eta zenbat gastatzen da kultura deitzen dioten horretan?

Poesia eta hitz-jolas merkeak erabili izan ditut izenburueta-rako orain arte, baina, ikasturte berrian beteko ez ditugun asmoei heltzen diegu eta kontu *seriez* aritzeko gogoia sartu zait ba; eta hori da politika, eta hori da ekonomia. Zertan eta zenbat gastatzen da kultura deitzen dioten horretan? (Barkamenak aurrez, Euskal Autonomia Erkidegoa izango dudalako aztergai).

Irailaren 22an izan zen Eusko Legebiltzarrean politika orokorreko osoko bilkura. Hitz eta pitz aritu baziren ere, hurrengo eguneko titularrak zein kontzeptu azpimarratu ados azaldu ziren: «herri akordioak». Ukrainako gerrak eta energia krisiak sortutako ziurgabetasun egoera medio, lehen-dakariak bost esparrutan banatu ditu itunak: 2023ko lehen mailako osasun arretan, hezkuntza, erronka demokratiko eta gazteriaren estrategian, energia esparruan eta 2023ko aurrekontuetan. Kulturgintzaren arrastorik ez.

Datorren urteko aurrekontuek aurtengoak izango dituzte oinarrian. 2022 urtearen hasieran EAEko aurrekontuen aferak izan zuen arrabots pixka bat. Aurrekontuak EAJ eta EH Bilduren arteko akordio bidez atera ziren aurrera, eta «inoizko aurrekontu zabalenak» bezala izendatu zituzten bozeramaileek. Politikariak eta sagardogileak dira ezbairrik gabe profesionalik optimistenak; ordura arteko produkturik onena urterokoa. EAEko aurrekontuak sarean daude ikusgai. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailera sartu naiz eta, hizkuntzaren pastel zatia beste baterako utzita, hona hemen Kultura Sailaren aurrekontuen gakoetako batzuk.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bost azpiatal ditu: Kultura sailburuordetza, Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Etxepare Institutua, Jarduera Fisikoa eta Kirol Zuzendaritza eta EITB. Aurrekontu orokorra 322,4 milioi euroko inbertsioa da (konparaketa bat egitearren, iazko hondarrean CAF enpresari 260 milioi euroko kapital soziala bideratu zion Jauralaritzak, eta aurtun 300 milioi euroraino handitzeko borondatea du). Kultura eta Hizkuntza Politikaren aurrekontua honela banatzen da:

<i>Sailak</i>	<i>Edukia (milioi €)</i>	<i>%</i>
Kultura sailburuordetza	70,6	22
Hizkuntza Politikarako sailburuordetza	69,4	22
Etxepare Institutua	3,4	1
Jarduera Fisikoa eta Kirol Zuzendaritza	12,2	4
EITB	161,5	51
<i>Guztira</i>	<i>317,1</i>	<i>100</i>

Iturria: Eusko Jaurlaritza (Irekia).

317,1 ez da 322,4. Zeroak gehitu gabe alde izugarriarik ez dago, baina nire kalkulagailuaren gehiketa aipatutako aurrekontura zergatik ez den heltzen gustura jakingo nuke. Dena dela, Kultura sailburuordetzaren zatiari emango diot begiratu bat: aurreko taularen lehen lerroko %22 horretaz ariko gara.

<i>Urtea</i>	<i>Kultura eta Hizkuntza (aurrekontu orokorra)</i>	<i>Kulturaren sustapena (€)</i>	<i>%</i>	<i>Ondare Historiko Artistikoa (€)</i>	<i>%</i>	<i>Kultura + Ondarea (€)</i>	<i>%</i>
2011	248.960.128	39.918.153	16	32.158.039	13	72.076.192	29
2012	222.584.185	37.584.185	17	27.764.266	12	65.348.451	29
2013	170.626.578	29.121.948	17	20.099.044	12	49.220.992	29
2014	174.643.094	30.715.777	18	20.866.095	12	51.581.872	30
2015	179.582.620	34.239.227	19	19.242.151	11	53.481.378	30
2016	185.461.766	36.000.185	19	18.792.205	10	54.792.390	30
2017	190.944.159	31.894.656	17	20.613.360	11	52.508.016	27
2018	194.576.897	32.246.033	17	21.488.823	11	53.734.856	28
2019	260.137.000						
2020	278.247.600						
2021	289.870.000						
2022	317.100.000	35.327.337	11	35.761.984	11	71.089.321	22

Iturria: Eusko Jaurlaritza (Irekia).

Kultura sailburuordetzaren barruan bi zaku handi dau-
de: Kulturaren sustapena eta Ondare Historiko Artistikoa.
2022ko aurrekontua aurreko urtekoa baino %11,6 handiagoa
zela atera zen titularretan, baina, Kulturaren sustapenaren
ehunekoari dagokionez, behera doaz.

Kontua, ordea, ez da zenbat, baizik eta zertan. Tatxan, inber-
tsioak. Zein inbertsio jo ditu ezinbestekotzat EAJren aurrekon-
tu proiektuak? Hementxe kopuruaren hurrenkerari jarraituz,
lehen hamalau proposamenak. ‘Eremua’ eta ‘Herrialdea’ neuk
gehitu dizkiot. Ez naiz balorazioetan sartuko.

<i>Hartzailea</i>	€	<i>Eremua</i>	<i>Herrialdea</i>
Orconera industria ondare higigarriaren zentroa	3.100.000	Ondarea	Bizkaia
%1a moduan ezagutzen den kultur ondarea balioztatzeko diru-laguntza deialdiaren zenbatekoa handitzea	3.000.000	Ondarea	EAE
Albaola Itsas Faktoria museo biziaren azpiegiturak handitzea	2.000.000	Ondarea	Gipuzkoa
Sestaoko Labe Garaia	2.000.000	Ondarea	Bizkaia
Zallako artisten gunea	1.258.000	Industrias Creativas y Culturales	Bizkaia
Errenteriako Artisten Barrutia	960.000	Sorkuntza	Gipuzkoa
Iruña-Veleia aztarnategi arkeologikoaren balioa nabarmentzea	500.000	Ondarea	Araba
Getariako Zarautz jauregia birgaitzea (Elkanori buruzko interpretazio zentroa egitea)	375.000	Ondarea	Gipuzkoa
Arteder, Euskal Artearen Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa	300.000	Ikerketa - garapena	Bizkaia
Euskadiko Arte Eszenikoen artxibo digitala	200.000	Ikerketa - garapena	EAE
Bilboko Zorroza auzoko Euskal Errotak izeneko lantegia birgaitzea	150.000	Ondarea	Bizkaia
Donostiako Miramar jauregia birgaitzea	130.000	Ondarea	Gipuzkoa
Irungo Urdanibia jauregia zaharberritzea	100.000	Ondarea	Gipuzkoa
Euskadiko Artxibo Historikoaren eraikina berritzea	100.000	Ondarea	Bizkaia

Iturria: Eusko Jaurlaritza (Irekia).

Sorkuntza sustatzeko proposamenak, hiru: «Sorkuntza bultzatzeko deialdiak, izendunak eta programa bereziak» (13,7 milioi €), «Kultura eta Sormen Industriak» (1,5 milioi €) eta Etxepare Institutua (3,4 milioi €). Kultur eskaintza eta zabalkundea, transmisioa eta digitalizazioa ere aipatzen dira aurrekontuan. Apasionantea horri begiratzea ere. Ez dut jarraituko zifrak mahaigaineratzen. (Inork interesa balu, hementxe dokumentua: www.euskadi.eus/contenidos/informacion/presupuestos_cae/eu_def/adjuntos/pdfs/2022P/11_Kultura-Hizk.P._Cultura-P.Ling.pdf; eta hemen Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen web orria: <https://aurrekontuak.irekia.euskadi.eus>).

2022ko aurrekontuak oinarri izango dira datozen lau urteetan. Hargatik garrantzia. Noski, kultur politikak ez dira aurrekontu hutsak, are gutxiago Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu hutsak, baina esango nuke badirela lagin bat euskal kulturgintzan gabiltzanon markoa zein den hobeto ulertzeko.

Egin dezagun atzera. Ramon Zallo komunikazio eta kultur adituak egin ditu trantsizio garaitik gaurdainoko EAEko kultur politiken analisi sakonenetarikoak. Zallok hiru fase bereizten ditu politika horietan: normalizazioarena (1979-1987), instituzionalizazioarena (1988-2001) eta gobernantza kulturalarena (2002-2011). Lehen bi etapetan, «kulturararen gobernuaren» presentzia nabarmentzen da, hau da, politikarentzat egindako kultura garatuko da. Hirugarren fasean, politika kulturalen garapena bultzatu da: kulturak autonomia irabaziko du politikarekiko.

Iñaki Martinez de Albeniz soziologoaren arabera ere, EAEko kultur politikak kulturak izan duen pisu faltagatik ezaugarritzen dira; gurean, itxuraz, etengabe nahasten dira kultur politikak eta kultura politikoa. Eta debateak hor jarraitzen du: kultur politikek autonomoak izan behar dute ala botere politikoaren legitimazio sinbolikoa ahalbidetzen dute? Nolakoa da gurean kulturararen erabilera instrumentala? 2011tik 2022ra bitarteko epealdian zer gertatu da?

Joera eta epealdi horiek bat egiten dute batik bat Europako Batasunean izandakoeekin. EAEko egitura instituzionalean, aldundien zentralitatea da azpimarratzeko ezaugarrietako bat. Lurralde Historikoen Legeak zein Estatutuak kultur eskumenak banatzen dituzte Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen artean. Orokorrean, Jaurlaritzari dagozkio jardueraren profesionalaren ekoizpena eta sustapena zein ondareari lotutako legedia, eta aldundiei zein udalei, berriz, erakustaldi, kultur eskaintza eta jarduera amateurrari loturikoak.

Eskumenak hiru administrazio-mailen artean banatzeak kultur proiektu integrala eragozten du, besteak beste. Eskumen eta kudeaketaren arazoa ez da kultur politikan soilik aurkitzen dugun auzia; politika publikoaren eta, orokorrean, zerbitzu publikoen afera da zer-nolako egituraketa izan behar duen.

Haizea Barcenilla Artearen Historian doktoreak EAEko kultur politiken bilakaeraren bestelako zatiketa egin du. Barcenillak, batez ere, arte plastikoen esparruan jartzen du fokua, eta kronologiaren jopuntu gisa Bilboko Guggenheim museoa. Bere iritziz, Guggenheim museoak eragin handia izan zuen euskal kultur politiken definizioan, eta lau etapa bereizten ditu gertakari hori ardatz hartuta: artea inbertsio gisa (1991-2001), megamuseoaren hedapena (2001-2011), paradigma aldaketaren markak (2012-2016) eta, 2016tik aurrera, ihesa. Barcenillaren hitzetan, polita litzateke printzipio kapitalistetatik at bizi den kultur sistema batez hitz egitea; fantasia litzateke, aldi berean. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaio eragin ekonomikotik aldentzen diren kultura aztertzeke irizpide berrien proposamena egitea, estetikoak zein esperimentalak, sozialak, hizkuntzaren aldekoak edota genero ikuspegia garatzeko aukerak eskaintzen dituztenak.

Kulturgintza esparru instituzionaletik harago doa, noski, eta instituzioek instituzio ez den horri eman behar diote forma. Baina iruditzen zait gurean kulturgintzan asko gabiltzala praktikan, ekintzan, masan, eta gutxiago estrategietan; badakigula geure egoerak izan beharko lukeela bestelako,

baina ez dakigula nola hasi bestelakotzen. Kontua ez da industriaren moldetan pentsatzea, kontua ez da geure jarduna logika monetarioan baloratzea, kontua ez da kultur politika dontsu batzuk egitea, baina bada garaia kulturgintzatik ere kontuak ateratzeko. 🧡



Begiz beteriko hiriak

Bideozaintza ohiko bilakatu da; gure hirietako bazter guztiak begiz beterik daude. Betazalik gabeko begiak, beti esna. Baina, zer dago begirada horien atzean? Segurtasuna? Kontrola? Gardentasuna? Merkatu teknologikoa puzteko beharra? Edozein *x.0* berrikuntzaren ideologia aurrera eramateko apustu itsua?

Londresko kaleetan zehar, besteak beste, bostehun mila kamera baino gehiagoko telebista zirkuitu itxi bat dago, ibiltariei begira. Ongi etorri munduko hiririk zainduenera! Hamalau biztanleko kamera bana. Egunero, gutxi gorabehera, hirurehun aldiz filmatuko zaituzte bertatik paseoa zozela. Eta horixe dugu hiri zein herri guztien joera orokorra, toki batzuetan begien kopurua arinago hazten ari bada ere. Egun, oro har, Txinako hiriak dira kameran erosle nagusiak munduan. Erresuma Batuak, berriz, munduko biztanleriaren %1 baino ez dauka eta bideozaintzarako kameren %20 kontsumitzen ditu. Parisek gertutik jarraitzen du Londres, eta Pekin ere asko hurbildu zitzairen 2008ko Olinpiar Jokoen antolakuntzarekin batera. Ospakizuna zaintzeko jarritako kamerak ez ziren, ondoren, kendu.

Foucaultek aipatutako diziplinaren gizartetik kontrolaren gizartera igaro gara. Ez dezagun inortxo ere bistatik galdu! Ustezko errudun gisa begiratzen al gaitu begi grabatzaileak? Delitugile potentzialak ote gara hirietako paseatzaileak?

Paradoxikoki, bideozaintzak ez du delitu kopurua jaitsarazi. Hala adierazi zuen, argi eta garbi, Mick Nevill inspektoreak, Scotland Yardeko bideozaintzarako arduradun nagusiak: inbertsio milioiunak ez du kriminalitatea gutxitu. Zer dela

eta? Batetik, kamerak eguneko 24 orduetan ari dira grabatzen eta ez dago bideo-datuen uholde hori aztertzeko nahikoa polizia. Bestetik, jendea kamera aurrean txanoarekin edo eguzkitako betaurrekoekin agertzen da sarritan, eta ez dira identifikatzeko batere errazak. Beraz, milioika libera gastatu dira ekipamendu teknikoetan, baina ez da minutu bat bera ere eman irudi horiek nola aztertu eta auzitegietan nola erabili pentsatzeko. Hauxe da inspektoreak adierazitako emaitza: bideozaintzaren bidez delituen %3 baino ez da ebatzi. Eta zifra horiek ez datoz bat, inolaz ere, gastatutako diru kopuruarekin. Aspaldikoak ditugu datu polizial horiek, baina, hala ere, ez du inork begi mekanikoen ugalketa etengabea geldiarazi.

Kamerak ez dira, beraz, uste bezain eraginkorrak ikerketa-tresna gisa. Ados. Baina kontua da disuasio-tresna gisa ere arazoak sortzen dituztela! Gero eta beldur gutxiago eragiten dute. Badira funtzionatzen ez dutela pentsatzen dutenak, eta badira orobat (hauxe bai kezkarria) delituak kameraren begiradak bultzaturik egiten dituztenak. Kontrako efektua! Beren burua agertoki baten aurrean sumatzeak estimulu gisa funtzionatzen die. Ez al dira mugikorretan eraso asko grabatzen, irudiak partekatzeko eta zabaltzeko asmoz? Lapurtu eta kameraren aurrean mingaina atera, keinu bat egin, aurpegi berezi bat jarri..., hori da joera berria. Badirudi bideozaintzaren eta ikuskizunaren arteko muga uste baino askoz lausoa goa dela. Horrenbeste ohitu gara kamera aurrean egotera? Begiradak ez gaitu jada lotsarazten; amaitu da lotsa. Hala dio Jacques Alain Miller psikoanalistak, telebistaren eta ikusle-go masiboaren kultura aztertuta. *Reality show*-ak eta *Love Story*-ak ditugu lotsa amaitu izanaren adibide. Beti gaude exhibizionismorako prest. Beraz, bideokameraren begirada anonimoa autoritaterik gabeko begirada bilakatu da, lotsatzen ez gaituena. Egoera bitxia, geurea: intimitatea babestu nahian, batetik; ikusiak izateko gogoz, bestetik. Biak batera. Paranoia eta nartzisismoa elikatzen ditugu aldi berean. Edo biek bat egiten dute? Begiratu egiten naute, pertsegitu egiten naute, beraz, garrantzitsua naiz!

Begiz beteriko lanpostuak

Lan munduan, aldiz, jagolearen asmoa argia dela ematen du: errendimendua areagotzea. Egia esan, langileen gaineko bijilantzia zurruna ez da gauza berria. Henry Ford bera ibiltzen zen, pasa den mendean, kronometroa eskuan zuela paseatzen eta bere langileei begira, produkzioaren abiadura areagotzeko asmoz. Berritasuna bideozaintzaren eta teknologia digitalaren bidez zelatatzeke eskalan dago, langileengan jarritako arreta mailan, eragindako presioan: gehiegizkoa da. Zaintzaren kapitalismo berria pairatzen dugu, Shoshanna Zuboffen hitzetan. Eta kapitalismo berri horren adibide deigarri asko daude: «Atera ezazu *selfie* bat zure lanpostuan eta bidal iezaguzu!». Horixe eskatu zien Away ekipajeen enpresako arduradunak bere langileei gaueko ordu bietan, lanean ari zirela egiaztatzeke. Oso kritikatu izan zen, baina gero eta enpresa gehiagotan ari dira gertatzen horrelakoak. Gure etengabeko konexioak eskainitako aukera?

Telelanak, modu berean, kontrol mota berriak eragin ditu. 2020ko pandemiak eragindako itxialdiak jende asko etxetik lan egitera behartu zuen, baina, gerora ere, gorantza egin duen joera izan da. Bulegotik kanpo lan egiteak, hala ere, ez zuen inor kontrol zurrunik libratu: WorkSmart bezalako aplikazioak sortu ziren, langileen ordenagailuetako pantailetan hamar minutuan behin argazkiak egiteko prest, gailuetan proiektatutakoa ziurtatzeko. Atsedetik ez! Aplikazio horren salmenta %300 handitu zen 2020an, eta bankuak zein aseguru-etxeak izan ziren zelatatzeke softwarearen erosle nagusiak. Desinstalatu ote zituzten pandemia eta gero? Ez dut uste. Tamalez, nagusiaren begirada etxera sartu zaigu; desagertu egin da etxearen eta lanaren arteko muga, esparru pribatu eta publikoaren artekoa.

Gehiegizko bijilantziak salaketa ugari eragin ditu azkenaldian, baina ondorio gutxi, oraingoz. Deigarri egin zait, besteak beste, paketeak entregatzeko FedNex enpresaren bijilantzia mota. Biltegiko langileek une oro eskaner bat eraman behar

dute besoan itsatsita, paketeak egiteko erritmoa neurtzeko gailua. Begidun besokoak daramatzate? Nagusiek ez zioten ezer galdetu Reynalda Cruz langileari, eskumuturra handitu zitzaionean pisu handiko paketeak altxatzeagatik, mugimendu errepikakorregiak egiteagatik eta eskanerrak besoan eragindako minagatik. Datuak ikusi eta erritmoa areagotu behar zuela agindu baino ez. Mina ez omen da ikusten. Egoerak eta testuinguruak ez omen dira aztertzen. Langileak, lur jota, roboten antzera tratatzen zituztela adierazi zuen. Eta okerragoa ere izan daiteke: horra hor Amazonek patentatuko eskumuturreko berria. Komunetik bueltan edo buruari hazka uste baino denbora gehiago emanez gero, eskumuturrekoak bibrazioak egingo ditu, eta nagusiei abisua eman.

UAM edo «erabiltzaileen jarduera gainbegiratzea» deitu diote langileei egindako espioitza etengabe horri. Produktibitaterako baliorik ez duena ez da ikusten. Non sartzen dira, ordea, bestelako balioak? Lanean giro ona sortzea, egun txarra izan duen lankidearekiko adeitasuna, lankide berri bati emandako laguntza... Bulego panoptikoak neurtzen duena neurtzen du, horretan datza gardentasuna. Bitartean, baina, lanean etengabe begiratuak eta ebaluatuak izateak bakardera bultzatzen gaitu, besteekin gero eta harreman gutxiago izatera. Eskumuturrekoak bibrazioak eragingo ditu ustezko denbora galtze horretan: *burnout* ospetsuaren eragileetako bat? Gizatasunaren urraketa nabaria bada, behintzat.

Begiz beteriko objektuak

Egia esan, egun, edozein objektuk eraman dezake begi bat. Espioitzaren inguruko nanoteknologia izugarri garatu da eta begidun gauzen merkatua askotarikoa egin zaigu. Eguneroko objektuetan daude kamuflatutako kamerak, edozerk begira gaitzake: erlojuek, etxeko bonbillek, kotxeko giltzek, iratzargailuek, betaurrekoek, boligrafoek... Hamaika aukera daude, Amazonen gainbegirada soil eta arin bat emanez gero.

Guztien artean, azkenaldian, begidun atea nagusitu dira merkatu horretan. Arrakasta, batez ere, Ring deituriko aplikazioari esker etorri da, 2018an Amazonek erositakoari esker. Horren bidez, *smart* txirrinak instalatzen dira etxeko ateetan eta, norbaitek atea jotzen badu, etxean inor ez badago ere, mugikorrean ikus daiteke nor dabilen ate joka. Txirrinak egunean zehar egindako grabazio guztiak ikusteko eta beste bizilagunekin partekatzeko aukera ematen die Ringen erabiltzaileei, Neighbors deituriko *app*-aren bidez. Beraz, norbaitek bere etxeko kameran zerbait susmagarria ikusten badu, bizilagunak ohartaraz ditzake. Horra hor hogeita lau orduz elkarri konektatutako txirrinen sistema, une oro aktibatuta dagoen zaintza-sarea. Bi motatako bideoak parteka daitezke bertan: segurtasunarekin lotura daukatenak edo dibertigarriak direnak; ateko etxean dagoen pertsona susmagarriaren bideoa edo zure etxe aurretik paseatzen irristatu eta jausi denarena. Biak daude RingTVn ikusgai. Aldi berean, beren auzoko gorabeheren alertak jasotzeko aukera ematen die erabiltzaileei. Zorionez, badira horren inguruko ahots kritikoak: Chris Gilliard pedagogoaren arabera, hiperzaintza horrek segurtasun ezaren antsietatea elikatzen du eta espazio publikoak militarizatzen ditu. Mike Caulfield alfabetizazio digitaleko arduradunaren ustez ere, Ring bideo-sareak sensazionalismo kutsua ematen die auzoko gorabehera txikiei. «Segurtasun eza» etiketa partekatzeko eduki bihurtzen du, eta jendea gertaera horiek aurkitzera bultzatzen, RingTVra igotzeko.

Modu berean, segurtasun ezaren ideologiak haurtzaroa kolonizatu du: bideozaintzaren gehiegikeria umeek pairatzen dute, bereziki. *Babysitter*-ak zaintzen du haurra, eta gurasoek umezaina, eguneroko bizitzan erabilitako objektuetan kamerak txertatuz. Logelako peluxeetan edo biberioetan daude, disimulaturik. Umearen gelako objektuek begiratu egiten zaituzte... Ez al du ematen beldurrezko film bat?

Horrelako jarraipenak egiteko aukera ematen dute arropan jarritako txipek ere. RFID deituriko teknologiaren bidez,


seme-alaben jarraipena egiten dute hainbat gurasok. Amaitu da ezkutaketan jolasteko garaia! Lagunekin ibili eta gurasoei liburutegian egon naizela esan? Ezinezkoa! Gurasoek seme-alaben pauso guztien berri izan dezakete gardentasun teknologikoa dela medio. Jacques Lacanek esan bezala, ordea, besteak egiten duena jakiteak ez du zertan maitasunaren adierazgarri izan. Bitartean, hiriak, lanpostuak eta giza harremanak begirada etengabearen mende ari gara jartzen. Aipatutako konfiantza faltaren seinale?

Konfiantzaren krisia

Badirudi gardentasuna zalantzan jartzeak susmagarri bilakatzen zaituela. Ez al zaude erabateko gardentasunaren alde? Zer duzu, bada, ezkutatzeko? Ikusia ez izatea erruduna izatearekin lotu zaigu! Errudun/errugabearen dikotomiatik ezkutatzeko, zerbait/ezer ez izatearen dikotomiara pasatu gara. Logika berri horrek ondorio faltsu batzuetara garamatza, aurreiritzi arriskutsu batzuk elikatzen baititu. Horra hor: 1) errugabea izatea ezkutatzeko ezer ez izatea da; 2) ezkutatzeko ezer ez daukanak ikusia izatea onartu beharko luke; 3) ikusia izatea onartzea errugabea izatea da.

Ikusia izatea, gainera, aurreiritziz beterik egon daiteke: begiratzen duenaren aurreiritziz, alegia. Argi sumatzen da hori bideozaintzaren irudien trataeran, aurpegi-ezagutzaren inguruko tekniketan. Adibidez, Evan Selingerrek eta Woodrow Hartzogek egindako ikerketaren arabera, erabat neurritz kanpokoa da aurpegia ezagutzeko teknikak biztanleria beltzaren gan duten eragina. Horren berri ematen dute *Obscurity and Privacy* saiakeran: azal iluneko jendea detektatzerakoan positibo faltsuen kopurua askoz handiagoa da, ohikoa baita argazkiaren eta identitate okerraren arteko lotura. Aurpegiak ezagutzen egindako akatsak, gainera, emakumeen kasuan areagotu egiten dira. Emakume beltzak dira, bideozaintzaren aurrean, egoerarik okerrenean daudenak.

Egungo boterea, finean, ez da gutaz fidatzen. Baina konfiantza ezinbesteko balioa dugu elkarbizitzan: agortutako sinesmena? Konfiantza galtzearen sintoma garaikidea paranoia litzateke, egungo nagusiaren ezaugarria: horregatik ebaluatzen gaitu etengabe. Guran konfiantza balu, agindu eta atsedean hartuko luke. Baina ez, ebaluazioaren hizkuntza elebakarrean hitz egitea eskatzen digu denoi, gaizki-uler turik ez egoteko. Edo kontabilitatearen eta estatistikaren hizkuntzan berba egin, edo isildu. Eta, badaezpada, ez hitz egin gehiegi zuen artean! Susmo txarra hartzen die bestelako elkarriketei: denbora galtzeaz aparte, konplot posibleak ere aurreikusten ditu, mesfidati. Kontrolatzea eta hizkuntza garbitzea ditu helburu. Teknozientziaren jabe paranoikoak kalte egiten ari gatzazkiola sumatzen du. Eta geuk ere, giro horren parte garen heinean, zentzu bikoitzeko paranoia bizi dugu: erakundeek ez daukate jendearengan konfiantzarik eta jendea ez da fio instituzioekin. Susmoaren aroa. Nola berre-raiki, ordea, elkarrekiko konfiantza apur bat? Iluntasuna ere beharrezkoa baita. Izan dezagun konfiantza, datuetatik eta pantailetatik at, ikusezina den horretan. 🌿



 **euskadi
irratia**
gertu

JAKIN 2021

Jakin 242

RUBIO, Miren: *Pilare Baraiazarrari elkarriketa*
GURRUTXAGA, Alexander: *Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 243: Gazteak eta politika

LARRINAGA, Ane; IRAOLA, Iker; ODRIOZOLA, Onintza; AMURRIO, Mila;
ZABALO, Julen; EPELDE, Maddalen: *Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai*
OLARIAGA, Andoni: *Garai baten mugetan*
BARANDIARAN, Ander: *Konpromisoa krisi garaiotan. Aitana Agirre, Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando, Unai Martinez eta Naiara Rodriguez*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 244

LEKUONA, Ane: *Arteak euskal identitate bati forma eman zionean. Kultur politikak, artearen historia eta generoa*
ARRUTI, Nerea: *Traumaren ondoren: gehiegizko oroimena eta ahanzturak euskal literaturan*
ARANGUREN, Gaizka: *Zoparen Teoria Orokorra. Identitatearen atarietan*
GOROSTIDI, Juan: *Lekeitio Lemoizen da*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 245-246: Krisi ekosoziala: desazkundea irtenbide?

PASCUAL, Unai: *Klima eta biodibertsitatearen krisi bikoitzari aurre egiteko gobernantza eraldatzailearen aldeko aldarria*
BEGIRISTAIN, Mirene: *Ekofeminismoaren txirikordak*
ELOSEGI, Arturo: *Euskal Herriko ingurune naturalen etorkizuna*
ZABALETA, Ane; ANTIGUEDAD, Iñaki: *Ur berdearen garrantzia klima-krisiaren aurrean*
AUSEJO, Belen: *Uraren kudeaketa Nafarroan: gatazkak eta proposamenak*
FLORES, Lorea: *Abeltzaintza industrialaren ajeak. Nafarroako kasua*
ENDARA, Sabine; HARLUXET, Xabier: *Bizi!, larrialdi klimatikoaren, metamorfosi ekologikoaren eta justizia sozialaren haritik borrokatzen*
AZKARATE, Aitor: *Esne-behi gutxiagorekin bizi daiteke?*
GALLEGO, Sergio; JERÓNIMO, Cristina: *Non daude gure basoak?*
GOIKOETXEA, Ibon: *Usurbil Atez Ate. Hondakinen desazkundearen bidetik*
MURGOITIO, Eider: *Energia berriztagarriak. Euskal Herrian badugu alternatiba propioa*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 247: Euskal kultura 2021

MANTEROLA, Ismael: *COVID edo postCOVIDaren urtea?*
URIEN, Ainhoa: *Euskal kultura segurua da?*
BARANDIARAN, Alberto; TXAKUR GORRIA; FANO, Dani; ARBELBIDE, Nora;
GURRUTXAGA, Amagoia; AGIRREAZKUENAGA, Irati; GARTZIANDIA, Maitane; ZUMALABE, Maddi; BASAGUREN, Jon; EZKERRA, Estibalitz; AXPI; ARANDIA, Izaskun; JOSEVISKY; AGIRRE, Manex; CABALLERO, Maite;
LARRAIOZ, Mikel; MIMENZA, Libe: *Euskal kultura 2021*
EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2019*

Sailaren arduraduna: Joxe Azurmendi

- 1 URIBARRI, Ibon: *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*
- 2 GALPARSORO, Jose Ignacio: *Betiereko itzulera Nietzscheren pentsaeran*
- 3 KANT / HEGEL: *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak*
- 4 DUCHET / MARQUARD: *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora*
- 5 LEIBNIZ, Gottfried Wilhelm: *Metafisikako diskurtsoa*
- 6 ADORNO, Theodor W.: *Musikaren filosofia*
- 7 MARX / ENGELS: *Alderdi Komunistaren Manifestua*
- 8 FOUCAULT, Michel: *Gizakiaren heriotzaz*
- 9 FREUD, Sigmund: *Ilusio baten etorkizuna*
- 10 LEYTE, Arturo: *Heidegger: Hermeneutika eta Funtsezko Ontologia*
- 11 PLATON: *Sokratesen Defentsa*
- 12 BACON, Roger: *Unibertitate eta Zientzia Erdi Aroan*
- 13 PORTALIS, J.E.M.: *Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*
- 14 BENGOTXEA, Juan Bautista: *Filosofia eta Zientzia. Vienako Zirkulua*
- 15 WITTGENSTEIN, Ludwig: *Etika, zientzia eta antropologia*
- 16 PLATON: *Ion*
- 17 URIBARRI, Ibon: *Kanten ezagutzaren teoria*
- 18 GARATE, Jenaro: *Gizakia maitagogo da (Nire aitorpen filosofikoa)*
- 19 RILKE, Rainer Maria: *Poeta gazte bati idatziak*
- 20 BENTHAM, Jeremy: *Panoptikoa*
- 21 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Zertaz dihardu filosofiak?*
- 22 PLATON: *Sinposioa*
- 23 DOMAT, Jean: *Legeen Tratatuak*
- 24 BENGOTXEA, Juan Bautista / EIZAGIRRE, Xabier: *Dogmak zientzian?*
- 25 ARREGI, Xabier: *Descartes*
- 26 NIETZSCHE / FREUD: *Nietzsche eta Freud, filosofian eragile*
- 27 ALVAREZ SANTA CRISTINA, Jose Luis: *Etikaren oinarrien bila*
- 28 GROTIUS, Hugo: *De iure belli ac pacis. Gerra eta bakearen zuzenbidea. Testuak*
- 29 AIESTARAN, Ignazio (arg.): *Kant eta modernitatearen iraultza*
- 30 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *W. von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*
- 31 ITURRIOTZ, Ander: *Giza abere heroikoa kultura homerikoan*
- 32 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak*
- 33 ZAPIAIN, Markos: *la guztiaren funtsaz. Kojève globalizatzaile*
- 34 ITURRIOTZ, Ander: *Lehen filosofia Heladen*
- 35 PUFENDORF, Samuel: *De officio hominis et civis juxta legem naturalem libri duo*
- 36 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Paideia eta hizkuntza: euskal hezkuntza*
- 37 AGUIRRE, Javier: *Aristoteles Metafisikari sarrera*
- 38 INSAUSTI, Xabier / ARRIETA, Idoia: *Hic Hegel, hic saltus*
- 39 FOUCAULT / BENAÏD: *Historiaz mintzo*
- 40 JIMENEZ, Jon / OLARIAGA, Andoni: *Modernitatearen auziaz*
- 41 SUAREZ, Francisco, S. J.: *Tractatus De legibus ac Deo legislatore*
- 42 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Hizkuntzaren zientziak hizkuntzaren pedagogian*
- 43 AZURMENDI, Joxe (arg.): *Filosofia eta poesia*
- 44 INSAUSTI, Xabier / OLIDEN, Irati: *Konpromisorik gabeko filosofia. Alain Badiou*
- 45 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Arimak eta balioak*
- 46 ETXARTE, Hedoi: *Wagner auziaz. Wangermée, Clément, Žižek, Badiou*
- 47 AZURMENDI, Joxe: *Gizabere kooperatiboaz*
- 48 SARTRE, Jean-Paul: *Begirada*
- 49 URDANGARIN IRASTORZA, Mikel: *Simone de Beauvoir, norbanakoa eta burujabetza*

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- ☐ Euskal Herria **60 €**
- ☐ Europa **75 €**
- ☐ Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- ☐ Paperean bakarrik
- ☐ Digitalean bakarrik
- ☐ Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- ☐ Euskal Herria **14 €**
- ☐ Europa **17,50 €**
- ☐ Mundua **20 €**

DIGITALA

- ☐ **14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- ☐ Jakinkide bazara **Doan**
- ☐ Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

Jakinkide bazara
Jakinkide ez bazara

- ☐ **10 €**
- ☐ **12 €**

DIGITALA

- ☐ **4 €**
- ☐ **7 €**



Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia |

Kontuaren jabea



Jakin *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus





Jakin ^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

